HODEIEN ADOREA

YOSEBA PEÑA

YOSEBA PEÑA

Hodeien adorea

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3,54 €.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2012 Yoseba Peña Landaburu
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2012ko maiatza
Edizio hau: 2012ko maiatza

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Jabier eta Aingeru Mentxakari

adorea behar da hazteko eta benetan zarena bihurtzeko

e.e. cummings

POLONIUS: Jauna, Erreginak zurekin mintzatu nahi luke orain-
txe bertan.

HAMLET: Ikusten al duzu ia gamelu itxura duen hodei hura?

POLONIUS: Alajaina, gamelu itxurakoa da, bai horixe.

HAMLET: Erbinude bat dirudi, nik uste.

POLONIUS: Erbinude baten bizkarra dauka.

HAMLET: Edo balea batena?

POLONIUS: Balea batena, noski.

HAMLET: Berehala joango naiz amarengana. (Zorarazi egingo
naute ezin gehiagoraino). Banoa berehala.

POLONIUS: Bazoazela esango diot.

William Shakespeare

Imajinatu Donostia. Imajinatu Donostia baina ez postaleko glamourra: Zinemaldia, Laconcha, Kursaala. Badakizu, bidaia-telebistetako maskor argitsua. Ez, ez, ez; eguneroko asfaltoa irudikatu: beltzak orgatxo-ekin, hipoteka kitaezinak, txiza espaloietan, agureak tope-luxuzko haur-kotxeei bultzaka eta adingabeko suizidak motorretan.

Benetako Donostia diotsut, maskorrak ezkutatzen duena: bihotz txuri-urdina kartera hori-gorrian, pintadak, putak, txikiteroak, atso bakartiak, seiehun euroko lanak eta Peruko zaindariak umerik gabeko parkeetan. Michelin hiriburuaz ari naiz, bere larunbateko menuaz: txirri belarra entsaladan, botelloia edateko, plater nagusia nahi adina haragi gazte mikro-gonetan bilduta eta, postrerako, azukre-hautsa lerroetan; sukaldaritza?, hemen bezalakoa inon ez! Kantauri itsasoaren diadema hau gogoan hartu, plastiko arrosazkoa eta dena-merke txinatar batean lapurtua: zure Donostia.

Hor jarri klase ertaineko familia bat. Demagun asturiarrak direla jatorriz. Jende apala, beren bizitza tristean lan eta lan besterik egin ez dutenak. Pentsa, hainbeste izerdi eta *ElPueblo*n duten etxola zarpaila

nekez konpondu dute. Lorezaina eta etxekoandrea: zure gurasoak.

Betidanik bizi izan zarete periferiako estolda batean: heroinak gogor astindu zuen horietako bat diot, turistei inoiz erakusten ez zaiena. Baietz, motel: porlanezko erlauntzak, jonki zonbiak eta zabor poltsa urratuak atarietan, oroitzen? Eskolarako bidean ikasi zenuen zenbatzen: xiringa bat, bi, hamaika. Amadeok eta Manolik alokairuan hartu zuten habiatxoan bertan bizirauten duzue, denboraren poderioz eta itzelezko esfortzuarekin erosita. Aspaldiko altzariekin batera zahartua, ilunpean eta mozkortuta aulkiak saihesten dakizun hori, txikitxoa eta erosoa: zure etxea.

Hiru seme: hogeita zazpi, hogeita bat, hamasei. Hasteko, nagusia: metro laurogeita hamar eta ehun kiloko morroskoa, ikasteko inoiz balio izan ez duena. Tailer batean dihardu mekanikari, trebea omen. Zuen aitak dioen moduan: zertarako nahi duzue Einstein bat?, bizitza eskuez irabazi behar da.

Jose Felix Preciado NAn, «Txefe» zuentzat eta «He-man» auzoan. Zure amak ez ditu gustuko azken garaiko lagunak, eta esan, hala esaten dio. Etxeko erituala: Manolik etengabe sartzen du muturra zeuen bizitzetan eta inork ez dio kasu putarik egiten.

Txefek arranditsu erakutsiko du Realaren karneta, berak ordaindutakoa, esan gabe doa. Jarraitzaile sutsua, Peña Mujikakoa. Hau da, egunkarien egia sakratuaren arabera: *zale erradikala*. Gazte erradikala, ezker erradikala, erreforma erradikala... antza, dena da erradikala gurean gaur egun. Erradikala: sustraietakoa.

Egunak joan, egunak etorri, ohitu zarete Txeferen orrazkera berezira; badakizu: motza goian, basatia atzean; baita forropolar, piercing eta «Euskal presoak etxera!» eta antzeko leloak aldarrikatzen dituzten kamisetetara ere. Badakit: moda hori gaindituta dago. Artaldeko ardiek, ordea, leial eusten diote hamasei urterekin bereganatuari, izan laurogeiko hamarkada bizitako heavy txima-luzeak edo kolore bateraezinezko alkandora surfer koadrodunak. Post-modernitatea existitu ahal izateko batzuek *modernitatean* segitu behar!

Etxean politika tabua izan arren, Jarrain ibili zen eta auzoko tenplutzat du Herriko Taberna. Honetan berarekin bat nator, bai jauna: martirien estanpak, erromesaldiak, ostiak, ardoa, abestiak mekanikoki errepikatzen dituzten eliztarrak, herri hautatua eta misio sakratu bat.

Ezker abertzalekoa, batere ez epela. Eta badakizu: zuen aitak, makietako semeak, sindikalista eta betiko sozialistak, zokoratu egiten ditu abertzaleen kontu deseroso horiek, harro:

– Hogei urterekin ezkerrekoa ez denak ez dauka bihotzik.

Harrigarriki, aipuaren bigarren zatia esan gabe uzten du beti.

Txefek eta zuk ez duzue harreman onik, onar ezazu behingoz, eta ez pentsa berak ume mokotzat hartzen zaituenik. Nola esango nuke: askatu gabe dituzue korapilo batzuk; baina ez dago presarik, dena argituko dizut lasai asko.

Zeu zara hurrengoa: Jon, familiako martin-jakintsua, Txefe baino sei bat urte gazteagoa. Udara honetan hirian geratu zara Alde Zaharreko taberna batean zerbitzari, neska-lagunarekin egoteko irrikan. Ummm, gizonak izanda, azaletik hasiko naiz: txikia, argala, ile leun horia, begi urdinak, lehenengo inpresiotik ederra. Pneumatikoa, erakargarria eta morbosoa ere bai. Horri gehitu jatorra eta azkarra dela, eta ekuazioak emaitza erraza izango du: etxerako modukoa.

Enpresa ikasketak egiten ari zarete Deustuko Unibertsitatean, Donostian, zure neskaren antzeko elite-

kumeekin. Ondo baino hobeto dakizu gurasoei ordaintzen lagundu behar diezula; haientzat gehiegi da, beraz tabernara lanera. Mutil txintxoa omen zara, amona Juliana zenaren kuttuna.

Dena di-da harrapatzen duen horietakoa, ikasteko abila eta bizitzeko ere berdin, beti izan duzu haizea alde. Esaterako: Igeldokoa duzu printzesa; gurasoekin bizi da txalet erraldoi batean badiara begira, zuen aitak zaintzen dituen lorategietatik oso gertu. Harenak dirutza dauka, ustez eraikuntzan eta industrian irabazia. Ezaguna da hirian: aspaldiko leinua, lagun bereziak Udal eta Foru Aldundian, astero Jaurlaritzan; noblezia. Ez duzu ezagutzen... oraindik.

Urtebete egin duzue elkarrekin eta luzerako dela dirudi. Pentsa, lagunekin ateratzeari utzi diozue dagoeneko; txolinduta ematen duzue denbora osoa, eskutik helduta edo besarkatuta. Superplanak: zinema hartatik beste honetara.

Maddi Jauregizar. Joño! Abizenak ere badu xarma patrizioa, are gehiago zuenaren aldean, Jon Preciado: hori da hori igogailua! Hau entzunda, bai seguru, sutan jarriko zara: txiroek harrotasuna besterik ez duzue. Konforme: onartuko dizut hasieran ez zenuela Maddiren ekonomia (nola esango dugu) loriatsuaren

berri. Unian begi-bistakoa zen, baina mutilok ez dakigu YSL poltsak noiz diren benetakoak.

Tira ba, familiako harribitxia baino ez zaigu geratzen. Etxeko txikitxoa: Aingeru edo «Geru». Nolako zura, halako ezpala: altua, argala, zabala. Beti saltoka eta oihuka, bateria bukaezina duten horietako *ume* bat da. Lehenengo begiradan inork ez du *hori* antzemango. Bere berezitasuna, diotsut. Edo xelebrekeria, segun zeinen gaizto izan nahi duzun. Inork ere ez, hiru minutu bere ondoan igaro arte. Gehiegi mugitzen baita. Salto egiten baitu, txalo, hankei eta besoei eragin, zeruari irri eta hitzik ez baitzaio entzuten: garrasiak, irrintziak, barreak. Ez dela *normala*.

– Autista da, bai, baina oso azkarra –esan ohi du zuen amak.

Gauza batzuk eskatzen badaki eta, gainera, zenbait agindu betetzen du. Manolik inork baino gehiago jasan behar izan ditu jendearen mespretxuak, jakinminez edota jakin gabe botatako begiradak, isilune eta jokaera errukiberak. Hala da, errukiak harrotasunari ankerkeriak baino min handiagoa eragiten dio, eta seme autista bat izatea etengabe odoletan dagoen zauria da.

Semea bere baitako atxilotik ezin salbatzeak amorratzen du. Auskalo zerk izorratzen duen gehien: atera ezinik edo ateratzeko gogorik gabe izateak. Dena den, zuk ez zenion asko laguntzen, ezta? Ez esan orain baietz buruarekin: Txefek hartzen zuen bere bizkar Manolik ezin zuenean, ondo baino hobeto dakizu. Zeu... zeu handik eta hemendik flotatzen ibiltzen zinen, politikoarena eginez eta ezertan ere busti gabe.

Beno, beno, beno eta zer gertatzen da, ba? Familia arrunta baitzineten: pospolo xumeak pizten, erre eta laster itzaltzen diren horietakoak. Gertatu zen ba: sekulakoa!

Eta hemen sartzen da gure Tximeleta *afektu* maitea: tximeleta batek edozein afektugatik hegalak astintzen ditu Wisconsinen eta, hara!, bizitza izorratzen dizu Donostian. Pasa den mendean etengabe gertatu zen: *Papilio hitleriensis*-en gorrotoa Berlinen eta milioika judu labeetara Polonian. Edo *Amandre adardunae*-ren sumina sukaldean eta senarrari botatako zartaginak seko utziko zaitu kalean. Afektuak, gogoaren pasioak: haserrea, harridura, maitasuna, beldurra, atsekabea. Helburua hautatu eta, voila, mundualdi bat pikutara!

Zure kasuan, sukalderik ezean, obretan zegoen plaza txiki bat izan zenuen eszenatoki, eta gazte batzuk aktore nagusi, *American Psycho*rena egiten, hau da, morroi bati egundoko jipoia ematen. Hain astinaldi bortitza non gaizki bukatu zen... eta zu hantxe, kasualitate putaz baina begiak kendu ezinik, ostiko zaparradari so, astakeria gelditzeko potrorik gabe. Eeez, hobe isilik geratzea, ezta? Zertarako iskanbiletan sartu? Isiltasunaren legea futbolean ikasten da etxe aurrean; gainera, zurea bezalako auzo batean, salatariak egurtu egiten dituzte mingaina janarazi ondoren. Jarrera horiek, ikasi baino, osmosi bidez txertatzen dira.

Beraz, hilketa bat ikusi duzu.

Zer gertatuko litzateke ausart horietako bati anaiaren trazak igarriz gero? Kristorena, ezta? Ba horixe da xehatuko duguna, hori baita zuri gertatu zitzaizuna.

Erne egon: zu kasu bitxi bat

IZAN ZARA

Etxera bueltatzean hasi zen kontu hau, taberna itxi eta gutxira. Iraileko lehenengo igandea zen, goizeko seiak aldera.

Normalean zuzenean itzultzen zinen zure historiaurreko vespinoan, baina aldatzearren, parrandan joan zinen lankideekin. Eta gero, ibilalditxo bat motorra aparkatutako lekura, mozkorra haizatzeko. Amets goxoetan murgilduta zindoazen: udara ia bukatuta, hurrengo astean itzuliko zen Maddi, unibertsitatea... eta poltsikoan soldata beroa (eskasa, beti bezala, baina dirutza zuretzat).

Orduan entzun dituzu hotsak: zaplaztekoak, garrasiak, aieneak. Eta zu flipatzen, ez baitago inor inguruan; huts-hutsik kalea. Ezkerrean enparantza txiki bat. Arraioa!: hobe gorra bazina, minutu, segundo, istant batez besterik ez balitz ere. Erdi ezkutuan hurbildu zara, arduratuta, eta zer ikusi duzu? Gudari artalde bat *lanean*. Nirekin ostikoka dihardute bost putakumek, sekulako ankerkeriaz, suminez, amorruz. Eta beren ausardia nabarmentzearren, denak txanoz eta zapiz estalita.

Lurrean zilipurdika nabil. Jadanik ez naiz eskuekin burua babesten saiatzen. Ostia batek atzera bota dit

besoa; posizio arraroa hartu du, airean tente, gorputzarekin bat ez baletor bezala.

Ezkutalekuan makurtu zara, baina egon lasai: ez daude zugan erreparatzeko egoeran. Ikusiz gero, hori bai, gonbita egingo lizukete: begiluzeei musu-truk oparitzen zaie amnesiarainoko bonobusa.

Denbora da ez dudala deiadarrik egiten. Kolpez kolpe narabilte, etenik gabe. Zuk izkinan jarraitzen duzu zelatan, badaezpada. Esan gabe doa: zer egiten ari zaizkidan bost axola; babesean gordeta mantentzeak besterik ez dizu ardura.

Bat-batean argi bat piztu zaizu txoriburu horretan: zure anaia izan liteke bost haietako bat. Saltsatan sartu ohi zen, saltsa zegoenean. Zeuk begiz joa duzu harriak jaurtitzen, kontainerrak iraultzen, kutxazainak erretzen. Zergatik ez egurra ematen?

– Ez, Txefe ez –damutu zaizu–. Forropolar urdina dauka Txefek. Eta hor beltz bat, bi gris eta bi gorri daude. Ez, ez: ez da posible.

Ez dizute galdetzeko ere aukerarik eman: badoaz ihesi, beren performance abangoardista atzean abandonatuta. Ederki kitzikatuta daramate adrenalinaren ziztada; jausgailuz salto egitea baino merkeagoa, aizu! Tipikoa: puenting, rafting, supermerkatu batean

pistolaz lapurting, atso bati poltsa tiraka kending, atzerritar bakartiren bat jipoiting... hi, kolega, *drogalinaz adrenazak!*

Pixka bat sorgortuta, minutu batzuk eman dituzu gerizpean kukuturik, oilo maritxua ostrukarena egiten. Azkenean, belauneko mina garaile, izugarrizko kuraiarekin (aleluia!) hurbildu zara nigana. Gorpura, dagoeneko gorpu bainaiz: hilda nago, akabo! Hozten ari naiz. Bakteriek ekin diote azala, begiak eta erraiak marraskatzeari. Txima latz eta hezurdura hori bat besterik ez naiz izango hilabete gutxi barru.

Eta hala ere malkorik ez niretzat, oraindik ez behintzat. Ez duzu ahalegin minimorik egin ezagutzen ote nauzun asmatzeko; nahi izanda ere, ezinezkoa da: odolez zipriztinduta nago, odolez eta belar printzez. Tanatorioan aurpegia berreraiki beharko didate beilarako; gure amak ez du hori *ere* inoiz gaindituko.

Gorputzak (zureak, norenak bestela?) erreakzionatu du halako batean. Zigarro bat atera duzu, baina ahoan zer edo zer sartzeko perspektibak itzulikatu egin dizu urdaila. Harridurak inhibituta zeuzkan zure zentzumenak; erretzeko gogoak kiratsari ireki dio bidea, higuinak bulkada itogarri bat sortu dizu eta goitik behera egin didazu botaka: kalimotxo litroa, solo-

mo-piper murtxikatu gabeko apurrak. Kabroi galant hori: haiek garbitu eta zuk zikindu! Harrapatzen bazaitut!

Zure aztarnak nire hondakinekin nahastuta ikustean ulertu duzu endredoan korapilatu zarela: hareatza bigunean atrapatuta, ezin mugitu. Aldi berean, ordea, badakizu zerbait egin beharra daukazula lazgarrikeria honen aurrean. Segi, ba, segi hondoratzen: zureak egin du.

Telefonoak karranpa eman dizu poltsikoan. Zein da larrialdi zenbakia? Poliziarena? Anbulantziarena? Esku dardaratiz atera duzu azken belaunaldiko ukipen-miraria. Gogora ezazu: bereziki teknosexuala ez izan arren, Maddiren komentario inozente batek behartu zintuen Santimamiñeko adreilua aldatzera. Ez zenuen halako inbertsio bat egin beharrik espero, baina printzesaren mailari eusteko edozein esfortzuk merezi zuen, ezta? Badboy style: auzoko bi eskuluzeri deitu eta, artxila-murtxila, gure Jon azken boladako traste baten jabe. Eta merke-merke, ñabarduratxo horretaz Maddi konturatu ez bazen ere, jakina.

Buelta errealitatera: gorpua, odola, okada, telefonoa, *nireeetxea*. Marroia.

Itxoin: ez al zenuen, ba, larrialdi zenbakia badaezpada nonbait gorde? Esnatu! Hauxe duzu erabiltzeko aukera: botoi berdea sakatu (beitu, burmuinak apaintzen dizkidan belar izpien kolore berekoa), bip bat entzun, eta orakulu erantzungailua:

– Ongi etorri larrialdietako zerbitzura. Mesedez, deskriba iezaguzu zure larrialdia.

– Hilketa... bat.

– Zure segurtasunerako, dei hau grabatua izan daitekeela jakinarazten dizugu. Segituan ipiniko zaitugu operadore batekin. Mesedez, itxaron ezazu pixka batean.

Hitzik gabe geratu zara. Zorabiatuta, soraio.

Ertzaintzara bideratu zaituzte; izena ohikeriaz eskatuko dizute. Atzera bueltarik ez: honezkero izango dute telefonoaren zenbakia. Oso urduri jartzen ari zara: mozkorrak mozkor, biziraupen instintuak zipaioekin traturik ez izatera bultzatzen zaitu. Erne: arazoak, beti arazoak.

Tira, berdin dio: kikilduta zaude, burua ataka gaitzean. Izena eman diezu, benetakoa; beranduegi faltsu bat asmatzeko, beranduegi arrapaladan badatorkizun Mihura toreatzeko.

Itxaroten igaro beharko dituzu minutu bukaezin batzuk: gorpu batekin solasean.

– Zergatik eman dizute pasaportea horren modu basatian?

Desatsegina ez izatea barkatuko didazu baina erantzunik ez: hildakoen ohitura bitxiak, badakizu. Burugogor, zeuk bakarrizketari eusten diozu: ideia putarik ez; edozer gauza izan liteke. Eta modus ponens zoragarri baten bitartez, hona hemen zure ondorio logikoa; txalotzeko modukoa, mutil!:

– Zerbait egingo zenuen, seguru.

Bide batez esan behar dizut, oso adeitsu izan zinela handik ez ospa eginda; mila esker bihotz-bihotzez: neure zorigaiztoan ez nintzen horren bakarrik sentitu; garratza da hiltzea, ez pentsa.

Bost minutu, ertzain bikote bat: Su Ta Gar, Euskadi Ta Askatasuna, Ortega Ta Gasset. Inguruan patruilatzen aritu ziren: izkina batean, autoan sartuta eta lo kuluxkan, gaizkileak hautemateko CIAren teknika iraultzaileak aplikatzen. Esperotakoa: alde hartan bizi diren zaharrek, seguru daudelakoan, etsipen moduko batekin onartzen dute txiza eta txahala. Gaitz erdi. Eta nola ez ba, Zalditeriaren Zazpigarrenaren antzera, tandem komiko hura beti berandu. Berrogei pasatxo-

ko tripontziak dira, ordu txikitan zaintza izaten duten ergelak, hipoteka ordaintzearren Batman eta Robinenak imitatzeko prest.

Oso profesionalak: berehala konturatu dira gaztea (hau da: ni) hilda dagoela.

– Galdera batzuk egingo dizkizugu komisarian –botako dizute Humphreyk eta Bogartek; badakizu, gogor plantak eginez: begi zirrituz, gupidagabe, zuzen, zorrotz, *patetinko*.

Adar altu batetik zintzilikatu dute lepoan estekatu zaizun katea: irtenbiderik ez Houdini Handiarentzat. Laster, igo zaituzten aulkiari ostiko bat emango diote eta, krak, penduluaren dilindan itoko zara. Bizitzako irudiak arrapaladan pasatuko zaizkizu, orain kontatzen ari natzaizun bezala, behin eta berriro errepikaturik eternitate osorako: gora Nietzsche askatuta!

Eskerrak: geroago gertatuko den guztia oroitzapen lauso bihurtuko zaizu alkoholaren, nekearen eta presioaren eraginez. Polizia-etxera eramango zaituzte oinez. Eskerrak (berriz ere) inor ez dabilen kalean barrena zure ibilaldiaren berri emateko. Edo bai.

Erietxe baten moduko sauna itogarria izango dela uste duzu: garbia, berdea, bero sargoria, zeu ere gaixotuko zarela pentsatzerainokoa. Bai zera!, toki zahar

eta kaotikoa da, paperez betea, zikina bezain narrasa. Uniformedunei aire aspertua nabaritzen diezu; funtsean, pertsonak ere badira, ia denak behintzat.

Baina harira; erne:

– Zenbat?

– Bost morroi.

– Adina?

– Ez dakit, ez nien aurpegia ikusi.

– Ezagutzen duzu hau?

– Ez, ez dakit zein den mutil hori.

Hori izan da kanpoan esan diezuna. Baina, gazte, poliziak burokrazia behar du bizirauteko. Adinekoek, potoloek eta, batik bat, alferrek, ezin dute bizitza osoa patruilatzen eman, ezta? Formularioak, deklarazioak, ordenagailuan bi hatzez idaztea, zuzenketak, onespena, sinadura, argazkiak ateratzea, argazkiak ikustea... Bi pertsona mota dago munduan: denbora galtzen duena eta denbora gastatzen duena.

Alimaleko haserrea du afera tokatu zaion txakurrak. Kontua ez da hirian hilketarik ez dagoenik; egongo ez da ba!, kakaz egindako pastel ikusgarria da Babilonia puta hau. Arazoa egileak dira: erradikalak, ezker abertzalekoak. ETAkumeak, inork gutxik espero zuenean. Zer izan da, ekintza bat? Ez al zioten ba ge-

rrari utzi? Armak entregatu nahi? Sinetsi egidazu: ez zara hori guzti hori popatik hartzera bidali nahi duen bakarra. Ederki egongo zinen orain ohean, e? Bai, noski! Tamalez haizagailu erraldoi bat piztu da (piztu duzu), simaur bete gurdi bati datxekiona. Ziri-ziri, gorotz malkoak hegan: tantatxoak laster dotoretuko zaituztete inguruan zaudetenak, lepoa egin nahi?

Bakean utzi zaituztenerako argitu du egunak, eguzkitsu eta alai, begiak garrazten. Beti eman dizu pena horrelako goizetan etxera heltzeak: gaztea izateak sakrifizio asko eskatzen du. Gehiegi.

Bina tonako zutabeak dira zure hankak. Kirrinka egiten dizu burmuinak, koipegabetuta. Ispilatze batean harrapatuta zoaz: bederatziak izango dira eta, lagun gehienak ez bezala, tranparik gabe iritsi zara ordu hauetaraino: hi haiz hi!

Etxera igoko zara, txorrotak garbituko dizulakoan ikusi izandako guztia. Zure erresuma dutxa baten truke! Ur bedeinkatua, araztailea, bataio berria... eta ohean sartuko zara.

Geroago baina: dena gogoratuko zaizu zatika, kolpeka. Orain hobe dugu zuzenean bukaerara jotzea, antzeko beste egunsenti batera, antzeko beste gau batera: edaten pasatuko duzu, tarteka estasia har-

tzen, ihes egiten. Estasia, bai, droga: hu!, hu!, ez jarri aurpegi arrarorik; non dago bekatua: tirante eta galtzamotzetan doan neskatilaren izterretan edo hari begiratzen dion apaizaren desira izoztuan?

Etxera bueltatzean hotzak eta ihintzak eguraldi ona iragarriko dute. Zure eraikin proletarioa porlan tonen artean bilatuko duzu; espaloiaren mosaikoa buruz dakizu, txiklez txikle, zuloz zulo. Badira urte batzuk marrak ez zapaltzeari utzi zeniola.

Ilun dago. Sarraila bilatu dut hatz puntekin, poliki-poliki giltza sartu.

Tirriki-tarraka irekiko da atariko atea.

Tente jarri naiz, balantzaka ez sartzeko. Mozkortien seriotasuna aurpegian, badaezpada. Beldur eszenikoa: ez dadila orain bizilagunik jaitsi, mesedez, ez dezala orain bizilagunen batek aterik zabaldu (egun on!)... Pauso pare bat eman ditut eta zorabiatuta geratu naiz, besoa hormaren kontra bermatuta. Itxaron egin dut; ez dakit zer gertatuko den. Ez dadila...

Pleistozenoko arkitektura funtzionala: igogailua ez dago atariaren maila berean; kosteek sei koska egitea inposatu zuten. Bizikide elbarri batek urteak daramatza malda bat eskatzen; alferrik, esan gabe doa.

Heldulekuaren laguntzarekin igogailua dagoen goi-lautadaraino eskalatzen hasi naiz. Banan-banan, zortzi miletan bezala urratsez urrats, heltzear nago. Arnasestuka iritsi naiz gailurrera, oka egiteko zorian: mendiko gaitza.

Belaunikatu egingo zara, halabeharrez, burua ate metalikoaren kontra. Itsasontzi batean zaude, kulunka, «ixil-ixilik kaia barrenian». Damutzeko indarrik ere ez duzu.

Okarik ez, hemen ez, mesedez. Txistua irentsi dut goragalea gelditzeko. Izerdi hotza. Abiatu egin da igogailuaren motorra: norbait dator! Ezin dut hemendik mugitu: irtetean lurrera botako naute, zurbil, kristoren belarrondokoarekin, drogatuta, galduta. Ni, bizilagun santua nintzena.

Begiak itxi ditut kolpea noiz emango. Ez da ezer gertatu. Eskua botoiaren gainean deskantsatzen utzi dut, gorputzaren jabetza galduta. Marroia da atea, astuna, altzairuzkoa-edo, hotza. Orain arte konturatu gabe nengoen: porotsua ere bada, aurpegiko azalaren antzera. Hotzikara.

Itzali egin da argia. Nolabait zutitzea lortu eta zabuka sartu naiz kabinan. Zenbat urte eman dut hiruko gorri hori sakatzen? Orain dela gutxi laguntza behar

nuen iristeko: amak altxatzen ninduen. Edo Txefek, aurrea hartzeko nagusi egin zenean. Txefek. Hasperen egin dut.

Hirugarren mailara heldu aurretik loak hartzeko beldurrak astindu nau. Paranoia: lurrean etzanda aurkituko nau bizilagunen batek, konorterik gabe, igogailuan behera eta gora. Edo aitak, ogia erosteko bidean. Ez dadila inor... Betiko danbadak esnatu nau iristean.

Jesukristoren hilobiaren lauza bezain pisutsua da etxeko atea. Lehenengoan asmatu dut giltzarekin. Beltza dago dena barruan, lotan denak. Oin-puntetan noa: etxeko mamu bat, beste bat. Alkoholak disolbatu egin dit deskubritua izateko kezka. Adi: esna nago. Altzariekin ez behaztopatzen saiatu naiz, ez da gutxi, eta itsumustuka zeharkatu dut egongela, eskuak aurretik. Badakit hor dagoela.

Amadeok besaulkian jarraitzen du, negar hariak gatz arrasto lehorra masailetan. Gau hau ere igaro du horrela, telebista hotzaren aurrean. Gogoan gaitzespena, damua, pena: ze demontre egin ote du horrelako semeak izateko. Hiltzaile bat. Salataria. Eta atzeratua. *ElPueblo*n kontua bolo-bolo ibiliko da honezkero. Zer egin dut gaizki!

Irribarre ironikorik ez, mesedez: eduki ezazu erruki pixka bat zeuen aitarekin. Edo, bizitzan lehen aldiz, enpatia. Ez dakizu zer den miseriatik eskapatzea. Herriko kateen atxilo jarraitzea kanpoan bizi arren eta kanpoa atxilotu nahi izatea herriko kateekin. Nahi eta ezin. Ez dakizu bere historia, ezta? Nonbait ez dizue inoiz kontatu edo ez duzue interesik erakutsi.

Entzun ba orain: mendiak bigarren anaia irentsi zionean ere meategian jarraitu zuen lanean. Esnatzen zenetik izututa, izerditan sartzen zen aldagela belztuetara, otoi eginez jaitsi beheko zuloraino. Burdinazko kaiolak aurreratzen zion herstura iluna. Aire itoa. Bereak eta bi pasatzen zituen eskuen dardara disimulatzeko, komeriak malkoen bideak aurpegi zikinetik ezabatzeko. Biharamuneko trantzea gogoan, bezperetan ez zuen lorik egiten. Hemezortzi urte bete berritan, hil egiten zen goizero, arratsaldetan argitara jaio. Mantsoegi azaleratzen zen igogailuak biziberritzen zuen; ez zitzaion ezinegona baretzen xaflen zirrikituetatik eguzki printzak ikusi arte. Sei hilabetez eutsi zion eldarnio krudel hari eta, azkenean, izua gailendu egin zitzaion desohoreari. Egunsenti batean, arropa garbia maindirean bilduta, adio esan gabe abiatu zen ekialderantz. Urtebeteren bueltan heldu zen Donostiara,

lanez lan bidaiatuz. Herrikidea zen Manoliren aitarekin kalean topo egin eta hark sartu zuen etxera eta lorezaintzara. Hala ezagutu zuen zeuen amak, kapela eskuan eta mela-mela eginda; gizaseme serio, uzkur eta isila, orain den bezalakoa, kanpoan lan egiteak ez baitio ezertan izaera argitu. Eta bere ahuleziari semeena gehitu beharra ere! Harrapatzen duzu, behingoz, zergatik zegoen lur jota Amadeo?

Ez diot ezer esan, ez du merezi: gertatu zenetik mutu geratu da, erabat. Logelarantz flotatu dut; gotorlekuko zubi altxagarria igo eta salbu nago.

Gurasoen gelako atea erdi irekita egongo da, beti berdin. Itxita Txeferena, auskalo noiz arte. Pertsiana jaitsietatik izpi batzuk sartuko dira. Txikitan galaxiako gaizkileak irudikatzen zenituen kanpoan, x izpiez pertsiana zulatzen. Handitan, zebra bat horman.

Aitaren minak zauria ireki dit berriz ere. Arrapaladan datorkit dena, nire rola eta gainontzekoa: atxiloketa, eskandalua, anaia eskuburdinez lotua, ertzainak, kamera bat, pintadak, begiradak, ezereza, hutsa. Tematia da bizitza puta hau, geldiezina, txatartegi bateko prentsa bezalakoa. Aseezina.

Ez dut uste ama lo egongo denik: ohean etzanda, aita bezain desolatuta.

Mahai gainean apunte zaharren arragoa duzu. Mesanotxean liburu ireki bat ahuspez. Eta paretan eskegitako kortxoak ez du jadanik argazkirik; lurrean daude: bikote zoriontsua erakusten zuena, hamaika zatitan bananduta.

Txakurrek anaia eraman zutenetik arima galdu bat naiz etxean, hezur-haragizkoa. Inork ez dit errua bota, ez da beharrezkoa: airean dago akusazioa. Agerikoa da horrela pentsatzen dutela: egia balitz bezala sentiarazten naute, nire buruarekin nazkatuta.

Atzera bota ditut maindireak, biluztu egin naiz. Sargoria. Beroak harrapatuta nauka, izerditan blai, antsiatan, urduri. Neuk ere ezin lorik hartu. Estasia norentzat eta drogak mespretxatzen zituen batentzat. Halakoa nintzen lehen, dena pikutara joan aurretik. Goian jarraitzen dut; ostia, kontrol pixka bat eduki ahalko banu! Dardarka mugitzen naiz, postura egokirik ez. Azkenean burkoa kuxin moduan jarri dut esertzeko. Laster etzan naiz berriz ere. Ahoz gora, putzu sakon bi begiak.

Zirrikitu bat irekiko da atean, gela zeharkatuko dute urrats arin batzuek. Bai, hurbildik so egingo dizu. Gerriaren kontra igurtziko ditu eskuak, geldirik egoteaz deseroso. Arretaz kontenplatuko zaitu: esna

baina beste mundu paralelo batean zaude, zulo beltz bi aurpegian oraindik, bularra erregularki gora eta behera. Uste duzuna baino elkarren antz handiagoa duzue.

Imintzioak, barre isila. Ezer ez.

Ohe ondoan belaunikatuko da eta azpitik, ezkutatu eta ahaztutako traste artetik, garai batean auzoan modan egondako tramankulua aterako du: labana automatikoa. Airea ziztatzen hasiko da keinu biziz, itsuka. Duda-mudan hurbilduko zaizu, jakin-minez: entomologoa pinpilinpauxa harrigarriaren jazarpenean. Sakrifiziorako ganibetak gora egingo du txamanaren buru gainetik... behera ekarriko du ziztuan... eta aise iltzatuko da anaiaren bularrean. Behin eta birritan: txaf, txaf, txaf. Kuxin batek estali dizu burua. Besoak zerura altxatu zaizkizu; gero ez dute kasik espasmorik egin.

Zabalik jarraitzen dute nire begiek.

Esnatu... Esnatzeko!

Zer gertatzen da?

Horrela, oso ondo.

Zer ostia begiratzen ari zara?

Anaiak nola hiltzen zaituen. Bidezkoa da, ezta? Nire heriotza ikusi zenuen; orain, alderantziz. Akorda-

tu zaitez: ez zenuen ezertxo ere egin, saio xume bat, ahalegin ñimiño bat, deus ez. Funtsean ez zeneukan ezer egiterik baina, tira, badakizu, keinu xalo bat sikiera.

Nor zara zu?

Jon, Jon, Jon, ene! Hauskorra da oroimena gero! Ez al nauzu ba ezagutzen?

Ez dut gogoan...

Bai, gazte: antzeko egunsenti batean, Alde Zaharreko plaza txiki hartan, anaia eta lagunak jolasten eta ni beren jostailu. Orain bai?

Zer...?

Zure anaia zikindu egin da borborka isurtzen ari zaizun odolarekin. Geiser okrea. Ebakuntza-gelatik petrikilo irten berria, siouxen gerra margoak. Maindireak, ohea eta moketa tantaka tindatzen ari: harategia.

Nexus 7k txalo eta txalo egiten du airean ziprztinak lehertuz. Plisti-plasta Itsaso Gorrian.

Ikaratuta nago. Gorpuan preso, ahoz gora, sabaira begira. Ezin naiz mugitu, ezin arnasa hartu. Ito egingo naiz! Airea, airea! Besoak mugitu nahi ditut baina ez naiz oroitzen nola egiten den. Kontzentratuz gero are zailagoa dirudi. Nola hartzen da arnasa?

Lasai, denoi gauza bera gertatu zitzaigun bere garaian. Lehen uneko izua igarota, gustua hartuko diozu. Eutsi goiari!

Agamenon, gaixoa. Gutxien espero zenuenean, danba: hilzorian zautza.

Baina, hil egin naiz benetan?

Penagarria zara gero: Hil egin naiz benetan? Ni neu? Nolatan? Ai ama! Ez esan beldur zarela?

Bai...

Kainek gorantz botatzen du zure odola, umeek iturrietan bezala. Barre egiten du lotsati. Hasieran zurrumurru apal batekin, algaraka ondoren. Urratsek pasilloan zalantza piztuko diote aurpegian. Atea jiratuko da harridurari sartzen uzteko: gorpua ahoz gora, gorputza ondoan, biak jaioberrien antzera: hauxe duk hauxe, hasi eta bukatu odolez!

Isilunea, zizakadura, oihua. Barne muineko alaraua. Etxe osoan iskanbila, garrasiak. Ulu egiten dute denek. Denek, zuk izan ezik.

... bai, beldur naiz.

Ba ez ikaratu: dagoeneko inork ezin zaitu kaltetu. «Ahalegin zaitez gauza atseginak gomutara ekartzen, denbora luzez egongo baikara lurpean». Alferrik da aipu bat dela aitortzea, ezta? Kito; ahaztu nire frikike-

riak eta segitu gogoratzen... adibidez, horrenbeste itxarondako elkartze ezti hura: New Yorken igarotako hilabetea, aste bi Kuban, denean bizitza eta erdi ikusi gabe. Desespero batean, zure faltak Maddiri on egin ziola konturatu zinen. Beti bezain berritsu, ez zenuen astirik bere hitzei arreta emateko: aurpegi beltzarana, benetan polita zegoen, solasaldi bizian, inoiz baino ederrago, maitagarriago, zoragarriago. Arrosa kolorez margotzen zuen bere mundua, Barbie baten tankerakoa: putetxerik eta komunismorik gabeko Kuba, jende atsegin eta aberatsez betetako New York. Logikoa: ilargiaren alde eguzkitsuan jaioa zen Maddi. Pasadizo bilduma itzela zekarren: Ground Zeroa, Habanako malekoia, Central Parkeko arratsaldeak, Varaderoko ura... liluraturik zetorren. Desioari ezin eutsirik musukatu zenuen, berriketak moztuz.

Hala ere, albisteak entzunda heldu zen:

– Mutil horri buruzkoa kontatu didate. Lan egiten duzun lekutik gertu izan zen, ezta?

Zipaioek izan ezik, inork ez zekien dena ikusi zuen lekuko bakarra izan zinela. Sumarioko sekretua. Zure izenik ez zen hedabideetan argitara eman eta, egia esan, hobe, kontu horietan ez nahastea da zuhurrena.

Ordura arte, gaixo askoren jokaera burugogorra kopiatua zenuen zuk: normal jarraitzen saiatzea, sintomei ezikusiarena eginez. Badakizu: diagnostikoaren bitartez sortzen dituzte medikuek gaixotasunak, izenak arrosa nola.

– Gizajoa. Ezetz asmatu nortzuek ezagutzen zuten? Borja Iriartek eta Garmendiak, gelakoek.

Aitortu beharra daukat, ezagutu, ez nituela ondo ezagutzen: aldizkako bezero besterik ez nituen. Azkar jarri zuten domina paparrean, besteen ahotan ibiltzeko, esan beharrik ez. Dena dela, datu horrek zuri bost. Ertzainek berriro deitu zizuten eta gero ezer ez. Lau egun igarota, amnesian galtzen ari zinen; edo hori zen, behintzat, zeure buruari saldu nahi zeniona.

Txikitan futbolerako omen zeneukan gerri arin harekin, hizpidez aldatu eta musukatu egin zenuen berriz. Gainerakoak, niri gertatutakoak alegia, ez zitzaizkizun axola. Batere ez. Garrantzitsuena, elkarrekin egotea. Udara oso garai zaila da bikote gazteentzat: haragia eguzkitan, hormonak larruazalean dantzan eta distantziaren ezabatzea.

Telebistek eta egunkariek, ordea, amorruz heldu zioten gaiari. Teleberri bereziak, korrespontsalak, Amazonas erdia moztuta zutabe analitikoak inprima-

tzeko. Den-denek azpimarratzen zuten aldaketa kualitatiboa: zaborrontziak, kutxazainak eta autobusak erretzetik ETA zena ordezkatzera pasatu da kale borroka! Estatu osoko mila politikarik, buru-argik eta epailek ohartarazi zuten, iragarri: terrorismoaren itzulerari harrera suhar bezain arduratsua egin zioten.

Zehatz-mehatz prestatutako manifa espontaneoa bilakatu zuten nire ehorzketa. Elbuletik Laconchara jendez gainezka: ETA EZ. Euskadin inoiz egindako bigarren handiena, Blanco zinegotziarena buru (hirugarrena: Realaren azken igoera). Mundiala izan zen, kolosala! Batez ere terrorismoak, kale borrokak eta enparauek zerikusirik izan ez zutelako nire erailketarekin. Zer egingo diogu ba: dena zilegi da aprobetxategiarena egiten jarraitzeko. Ez genuen hori irakurri Lampedussaren *Il Gattopardo* nobelan?

Imajinatu: nire argazkia fotokopietan, karteletan, pankartetan. Bolo-bolo munduko irrati eta telebistetan nire bizitza, lanak eta mirariak. Eredu bilakatu ninduten: mutil zintzoa, familia onekoa, etorkizun jorikoa, jatorra, lagun asko zuena eta politikan sartzen ez zen horietakoa. Kabroi nazionalista batzuek, taliban fanatikoek, beste errugabe baten bizitza moztu zuten errotik, bakea erauzi zuten kaleetatik, noiz eta etxera lasai

ederrean nindoala parrandatxo errugabe bat bota ondoren.

Inork ez zion logikarik aurkitzen, politika putaz aparte; baina ez utzi logikari izenburu on bat zapuzten. Lanean ari ziren: beren familiak, posizioak eta pribilegioak babesten. Gogorra izan behar du egunero amets egitea Suitzako kontu sekretuaren zenbakia galdu duzula!

Berdin zuen: ez zen horrela geratuko. Jendarteak, nekatuta, terrorismoari planto egin zion berriz ere: esku zuriek borreroak seinalatu zituzten. Pazientzia bukatuta, gizajo horren heriotza ez zen alferrikakoa izango.

– Gizajoa –atsekabetzen ziren.

Tertulietako berbalapikoek, Real Madriden azken krisia bazterrean lagata, hilketaren gaitzespen erabateko eta absolutua plazaratu zuten, aldarrikatu, defendatu, exijitu. Halakoxea izan zen erantzuna: batua, handia eta librea.

– Gizajoa –ulu egiten zuten.

Zure lagunek ere ez zuten beste hizpiderik: alderdi unionista bateko zinegotziaren antza izateagatik nahastu omen zirela, abertzaleen munduan aspalditik infiltratuta nenbilela... konspirazio teoria parrasta bat

zergatik garbitu ninduten jakiteko. Eta susmo berriak domino tankeran zabaltzen ziren, beti bukaera berberarekin: Gizajoa.

Gizajoa, Gizajoa, Gizajoa, Gizajoa, Gizajoa... infinituraino errepika, leku guztietan, goizetik gauera, eldarnioetan, presio mediatiko globalizatua bereziki zeuri zuzenduta. Zeu: lekuko bakarra. Zeu: famili *usaina* igarri zeniona horietako putaseme bati.

Baina okerrena izan zen, ez zeniela zenekien guztia ertzainei aitortu, ez zeniela salatu susmotan hartua zenuen hura. Barruko harraren pozoiak kiskali egiten zintuen; hasieran kontzientziak alatzen bazizun, atera kontuak gero, alarma soziala piztu zenean. Abortu bat izan berri duen emakumeak haurrez beteta ikusten omen ditu kaleak; zuk polizia-autoez eta sirena-hotsez. Zalantza bera etengabe buruan bueltaka: *borroka* haietako bat, bat gutxienez, ezaguna egiten hasia zitzaizun oroitzapenetan. Familiarra, anaia. Salatu ala betiko isildu?

Oporrak bukatuta gurasoak *ElPueblo*tik itzultzeak zure kontrako apustuak igo egin zituen gainera, bikoiztu: akabo etxe baketsua, akabo gotorlekua, akabo Gizajo santua ez zebilen leku bakarra.

Beltzaran zetozen, pozik, plastikozko poltsetan hiru txerri paketatuta, urte erdian txorizo, saltxitxoi eta urdaiazpikoz asebetetzeko adina. Txefe eta bien lasaitasun eta independentziaren truke, etxea eta arropa garbi.

Lehenengo afarian momentu batean Gizajo zezena plazaratuko zutela irudi zuen; amaren saiakera lotsatiak, ordea, ez zuen harrera onik izan: balizko parte-hartzaileetako bik paso egin zuten. Nabari.

Itxaron: arreta deitu zizun Txeferen keinu deseroso batek. Zer pentsatu zenuen orduan? Agian kriminal haietako bat ezagutuko zuela. Inozoa! Zirrara: eta zeu bazina haiek ezagutzen zituena? Potrorik ez intuizio argigarriagoetara heltzeko; ez zenuen nahi. Txefe ez zen *halakorik* egiteko gai, ez. Beha, bestela, nola afaltzen zituen patata frijituak eta bi arrautza lasai asko, kamiseta tirantedun zuriaz jantzita eta azazkalak koipe arrasto beltzekin. Ez, Txefe ez.

– Ze ostia begiratzen duzu?

– Ezer ez, lasai.

– Belarrondoko bat nahi, ala?

– ¡Ah, fíos! –zuen amak, azentu asturiarra biziberrituta–. Etxean gauden lehendabiziko gaua eta mutur

joka jadanik? Auskalo zer egin duzuen aste hauetan, ene!

Erreakzio bortitza Txeferena, ezta, Jontxu? Erdipurdiko harremana zenuten baina inoiz ez zen hain oldarkorra izan. Arraroa, oso arraroa...

Hurrengo gauean, afalondoan irten zen Txefe. Lagunek alokatua zuten lonja batera joan ohi zen oheratu aurretik. Gurasoak eta *martetarra*, telebistaren aurrean. Beno, egia esan, *estralurtarra* inguruan jira-biraka eta besteak kutxa magikoari begira, normala zenez.

– Gelara noa –esan zenien.

– Gabon.

– Irakurtzera noa.

Ez zeneukan azken azalpena zertan eman: normaltzat zeukaten etxeko intelektualak haiekin gaueko telesaioa ez komentatzea. Familia zoriontsua, badakizu.

Baina ez zinen zure gelara sartu, Txeferenera baizik: Gipuzkoako futbolaren bastioira. Poster zaharkituak soberan ezagutzen zenituen; marihuanaren usaina, aldiz, berria zen. Inoiz ez zenuen pentsatu anaiak txirriak erretzen zituela, non eta bere gelan! Ados, zeuk erretzen zenuen lantzean behin, baina etxean

bertan egitea ere! Ama kontura ez zedin leihoa ixteko detailea ez izatea, marka zen gero!

Gainontzekoa, normal. Zer topatu nahi zenuen ba? Paper solte bat, aitorpenarekin?: «Neuk akabatu nuen Gizajoa. Sinatua: Txefe». Pelikula gehiegi, aizu.

Ohean eseri zinen pentsakor. Paranoia hutsa zen dena: nire heriotzak lur jota utzi zintuen. Ze kabroi motak pentsatuko luke bere anaia horrelako saltsatan nahastuta egongo litzatekeela? Txefe inoiz ez.

Hormako artelanetan pausatu zenuen arreta: manifestaldirako deiak, Ezker Abertzaleko propaganda komertziala, Realeko posterrak: 1981ean eta 1982an ligak irabazi zituzten taldeak, 2003an bigarren postuan sailkatu zirenak. Hall of Fame hura burutzeko, 2006ko taldearena ere bai, ekipoa 2. mailara jaitsi zutenak (bakoitzak diana bana buruan). Gure aingerutxoa.

Ohe azpira makurtu zinen azkenik: lehen begikaldian ezer ez baina, itxaron, han hondoan, zer zen pakete hura? Bi *Playboy*, ipurdi polit eta irri eztiez panpinatuak. Kabroi halakoa: zu bizitza osoa komunaren bakardadea pairatzen!

Etsita, anaiaren ukuilua utzi eta zure gela megadesinfektatura sartu zinen. Nahiz eta ezer deigarririk

aurkitu ez, baretu behintzat ez zinen egin. Jipoiaren irudia ezin zenuen burutik kendu eta... ostia, ezaguna egiten zitzaizun forropolar gorria zeramana, bai!

Maddiri deitu zenion denbora-pasan: informaziorik gabeko elkarrizketa, «faltan botatzen zaitut» mordo bat eta hamaika bider hamaika «maite-zaitut-maite-zaitut». Hori zen kaskoa argitzeko behar zenuena. Eta hala eta guztiz, izorratzen jarraitzen zizun ziztada kulpadunak: Maddiri ez zenion deus ere aipatu. Era berean beste kontu txiki hura ere ez zenion sekula aitortuko. Badakizu, zera hori, nola esango nuke: zure ahulezia unearena; bai, motel, beste neska harekin gertatutakoa. Are gutxiago momentu hartan, dena hain ondo zihoan. Noski ederki simaurtuta zindoazela eta neskak errazegi jarri zizula eta ez zenuela benetan nahi eta ez zela zure errua izan: gure errua onartzea, hori azkena!

Nolanahi dela, ez zenion kontatu nahi. Oi, oi... sekretutxoak gordetzea ez da batere ona, Johnny boy. Kezkak barrenak erretzen dizkizu eta begi inguruan zahartze prozesua bizkortzen antzematen duzu, nola sakontzen diren zimurrak, azalaren malgutasuna zurruntzen. Ezin zenuen beste ezertan pentsatu. Erotzen ari zinen, obsesioan murgilduta.

Enpin. Azkenean pena eta guzti emango didazu, koitadua.

Adi: astebete igaro duzu orratzak erraietan ziztaka eta biraka; lotan zaudela ere ez zaizu mina baretzen, ametsetan agertzen natzaizu-eta, beldurrezko pelikula batean bezala, itzuli bakoitzean zaurituz, harramazkatuz, urratuz.

Eta, egia esan, dagoeneko ez duzu ondo oroitzen. Ba al zenekien errealitatea eraiki egiten dugula? Hala da: iragana birmoldatuz, biziberrituz. Nonbait, forropolar gorridun tipoa besterik ez duzu ikusten, bera borrero bakarra. Eta haietako eldarnio paranoiko batean, morroia nire burua zapaltzen ari zela jiratu egin zen eta mehatxari zera bota zizun: «Hurrengoa zeu!». Txeferen aurpegia zuen, orbain handi bat masailean.

Gutxi balitz, Maddi gidabaimena ateratzen jarduteak denbora gehiegi uzten zizun libre. Arratsalde asko pasatzen zenuen etxean nazkatuta. Telebista gustuko ez, ezin zinen irakurtzen kontzentratu. Soberako astia aspertzeko, pentsatzeko, buelta ematen segitzeko.

Ganbarara igotzeko ideia ez zen zurea izan, amarena baizik: udarako arropa gordetzeko. Urteak ez zinela hara joan. Txikitan izugarrizko izua zenion, gogo-

ratzen? Etxetik pijaman eta txapinetan irteten zinen, hotzaren eta beldurraren eraginez dardarka. Eskaileratan gora, ganbara eta maila arruntak bereiziz, kartzeletako moduko metalezko ate barradunak. Komunitatekoek bizilagun baten seme galdu hari traba jartzeko paratu zuten, inork onartuko ez badizu ere. Gero, argiaren botoia topatu arte metro batzuk zeharkatu behar izan zenituen iluntasunean. Ikaratzen zintuena: tipo hura edo bere lagun drogazaleren bat ezkutuan itxaroten egongo ote zen, ume kakatiaren zain eta xiringa prest hiltzearen plazer hutsagatik.

Arratsalde hartan ezinegon bera sentitu zenuen, kinkiek hamar solairuko eraikinetan ibiltzeko ohitura balute bezala; «Egun on! Eguraldi ederra, ezta?» esanez igogailuan sartu eta ondoren goialdeko bake lasaian piko bat sastatu. Nekez. Logikak, baina, ez du izua uxatzen: hor dago, beti, ausikika.

Aise ireki zenuen ganbarako atea. Sarraila eta erroak norbaitek koipeztatuak zituela konturatu zinen: etxe zaharretako karrankarik ez. Argia piztu: dena gutxi gorabehera ondo ordenatuta zegoen, eta kutxa batzuek osatutako hormaren aurrean utzi zenuen amak emandako paketea.

Geldi! Egin dezagun atzera: «Kutxa batzuek osatutako horma». Kontxo... hau da hau kasualitatea, ezta? Horma faltsu bat, non eta lau metro koadroko ganbara ziztrin batean. Oso ondo, Sherlock: han atzean ezkutuan behar zuen zerbaitek, koipeztatzaile ezezagun batek desagerrarazteko asmotan.

Kutxa bakoitzak zeukan posizioa gogoratzeko arreta handiz ireki zenuen zulo txiki bat harresian. Howard Carterren antzera, Tutankamonen hilobira pasa zinen narras eginez, santutegira. Kontuz Faraoien madarikazioarekin!

Baliteke santutegia kasu honetan hitz egokiena ez izatea: badirudi tradizioagatik santutegi batek kandelak, iluntasuna eta sektako amabirjinen iruditxoak derrigorrez izan behar dituela, ezta? Ba, elizaren parafernaliarena kenduta, *antzekoparecido* gainontzekoa: Txefek zituen lagun presoen argazkiak, historia-aurreko *Zutabe* bat, panfletoak, ikurrina bat ETAren anagrama brodatuaz eta, zokoratuta, plastikozko poltsa bat... kanpo aldera lotsagabe gardentzen zitzaiona edukia: forropolar gorria. Gorria, bai. Eta mahukan, artean, nire odola. Xake-mate! Pista gehiago behar? Jakintzaren sagarrari kosk egin zenion, Aliziaren pilulei.

Tximeletak hegoak astintzeari utzi dio: prozesua abian da jada.

Banekien. Eta lehenengo momentutik jakin arren, ez nuen sinetsi nahi, ezin nuen ametitu. Froga horrek dena irauli zuen: infernura bota ninduen, ni, paradisuan bizi nintzena, handik egotzi izatea merezi ez zuena. Deserriratua.

Granada ireki bat eskuan itsatsi zait lepo dagoen ziega ziztrinean. Lau, hiru, bi, bat: zer egin?

Ez naiz gai Txeferen ondoan egoteko: urduri jartzen naiz, dardarka hasi. Bistan da konturatu dela nire ezinegonaz. Saihestu besterik ez dut egiten.

Errutinak salbatuko ahal nau!: astelehena, unibertsitateko kurtso berria. Berritasunek zulotik ateratzen laguntzea espero dut, otoi egiten dut. Txikiegia egin zait etxea.

Ikasturteko lehendabiziko eguna Deustuko Unibertsitatean, Donostian. Elite kontuak aipatu dizkizut lehen? Zilegi bekit errepikatzea: esklusibismorik esklusiboena. Ikasleen BMWak aparkalekuetan, motor eta kasko arrosak, klasismoa xehetasun ñimiñoenetan aldarrikatua: Dolce & Gabanna eguzki betaurrekoak, Cartier ordulariak, Prada poltsak, Marc Jacobs oinetakoak. Eta betikoa: takoiak eta makillajea, neska talde-

txoak solas aztoratuan; mutilak trankil eta cool asko, harrapakinak amesten. Ezer berririk ez azkeneko hiru mila urtean, hemen eta Malawin.

Denek entzun dute zerbait, denek dakite zerbait, denek daukate kontatzeko pasadizo izugarri bat. Grease: argazkigintza soziala. Lagun zaharrak eta helburu berriak, errepaso grinatsuak desioaren ikurretara, hormonei ezin eutsia, ezpain mugimendu soil batez zigilatzen diren bikoteak, piper egiteko taldeak, gela-barruko hierarkiak. Hori guzti hori da unibertsitatea: hori eta zabor pila bat gehiago. Eta Arkadia horren erdian, morroi bat lekuz kanpo. Hortxe dago, bai, zu zeu zara, neskaren ondoan, irribarre egiten, flipaturik. Baina zure gogoa erlauntz bateko hamaikagarren aretoan dago, ganbaran, urrun. Eskuartean forropolar gorri bat.

Adi, ea zerbait ikasten duzun: Elisabeth Kübler-Ross psikiatrak aspaldi azaldu zuenez, dolu garaian bost ataleko segida batetik pasatzen gara, gaixoa bezalaxe hil egingo duen eria onartzeko prozesuan. Ez pentsa horrelako gauzak kontrolatzen ditudanik, Simpsondarrenean ikasi nuen.

LEHEN ESTADIOA: *UKAPENA*

Forropolarra hartu duzu eskuartean, burmuina aitzakien bila topera.

Ez da berea izango.

Jakina. Baina... zer dela-eta dago ganbaran?

Honen antzeko mila daude.

Bai, bai, baina... hori nire odolez zipriztinduta dago.

Agian Txefe erori egin da, nahigabe zauri bat... auskalo.

«Nire» eta «odol» hitzetatik zein da ulertu ez duzuna? Zuk, bizitzan logika besterik erabili ez duena, orain ez konprenitzea ere! Ekuazio erraz bat jarriko dizut, ea behingoagatik harrapatzen duzun: forropolar gorri bat + inoiz ikusi ez duzuna + zuen ganbaran ezkutatuta dagoena + nire odol tanta batzuk... Zenbat da? Hamahiru! Badok hamahiru! Gero azalduko dizut txantxa; antza, gaur egun euskara jakitea ez da-eta nahikoa euskalduna izateko.

Egoera honek hilkutxaren kolorea hautatu beharko duzula onartu bitartean iraun ohi du.

BIGARREN ESTADIOA: *SAMINA*

Zutitu zara eta ukabilka eraso diozu aireari. Etsipenaren sumina: zergatik niri? Zer egin dut hau jasan behar izateko?

Txeferenak logika du behintzat. Behar duzun informazio guztia badaukazu: Jarrai, Segi eta antzekoak. Anaiaren uniformea ezagutzen duzu, beren musika, tokiak, ohiturak, zein kale saihestu behar diren manifa dagoenean eta zein tabernatara hobe ez sartzea. Zu ere han sartuta ibili zinen, ahaztua duzu jadanik? Orain dela... buf, gehiegi. Sinesgaitza, ezta? Egungo zure alkandora urdinak, jertsea lepoan eta neskalagun pijoak iragana estali dizute. Lehen amodioa, oraindik askotan dutxan eskura ekartzen duzun hura, Estitxu, ez zenuen batere pijoa, bai zera! Ai, Jon, emakumeek eragiten dizkizuten aldaketak!

Tira, kontu horiek alde batera utziko ditugu momentuz. Borrokei buruz ari ginen: esango didazu putakume horietatik baten bat jatorra izango dela. Jakina. Baina ia denak oooso-oooso gaiztoak dira (telebistak dixit), isatsa eta adarrak dituzte! Biolentziaren alde daude! Non eta Gandhi buru duen gure estatu santu

honetan! Max Weber antzarak ferratzera!: bakea bai, bortizkeria ez; lana bai, langabezia ez; natura bai, kutsadura ez. Eta horrela, ipurtzulotik sartzen dizkizute Darwinen teoriak! Egia, beti berdin, bozgorailu handienaren alde.

Asko dago esateko, adibidez: haiek behintzat mundu hobe baten alde egiten dute, zuzen edo ez; eta bitartean, zure antzekoak etxean edo diskoteketan geratzen zarete. Haiek irten egiten dira, manifak egiten dituzte, asanbladak, bilerak, grebak, txakurrengandik ihes egiteko lasterketak, kontzertuak... eta, gainera, jeltzale harroputzen kalakak jasan behar! 68 oker hartako oinordekoak dira. Baietz, bai, oooso gaizki dago biolentziaren erabilera justifikatzea eta hori guztia, are gehiago nazioarteko armadak laguntza humanitarioa ematen aritzen diren mende dultze honetan. Ummm, terrorismoaren apologia moduko bat atera zait. Eskerrak hilda nagoen eta euskara territorio librea den, kirraS istakari nugiz alazeb, bestela, epaileen izar-euria den auzitegi horretan... zigor segurua.

Zure tokian banengo, gorrotatu egingo nituzke.

Zeintzuk, borrokak? Dagoeneko pasatu zait. Hasieran bai, ez dizut ukatuko: injustizia latza izan zen ni

bezalako bizizale bati afiziorik gozoena zapuztea. Kontua da neuk ere izan nuela aukera etorkizuna ikusteko eta, zer esango dizut ba: hobe zerraldo!

Baina haiek eman zizuten pasaportea!

Ados: kontraesankorrak gara. Ez jarri aurpegi hori eta itxaron pixka batean, laster ulertuko didazu-eta. Gatozen berriz harira, alegia, ikasturte hasierako egun hartara. Begira egiozu zeure buruari. Ez duzu ezertarako balio; banketxeko jabea pixka bat zoriontsuagoa egiteko juxtu-juxtu. Edo munduaren gurpil karratuak gutxiengo batek nahi duen gisan errazago jira dezan. Zuri gainerakoak bost axola: unibertsoa desintegratuko balitz, nahikoa izango zenituzke metro koadro bat lur, hozkailu betea eta zakila sartzeko panpina puzgarria. Ez duzu inoiz konprenitu, botatzen duzun puzkerra aldean dagoenak irensten duela osorik. Edota norbaitek bidea asfaltatu behar izan duela zu ibili ahal izateko. Tximeletarena ez da kasualitatea, ondorioa baizik.

Enpin, zure tankerakoei esperantza pottoki bat geratzen zaie: hau da, egunen batean tostada ez erortzea marmeladaren aldera. Zurea, hala ere, kasualitate puta: sabaian itsatsita geratu zen! Izorrai.

HIRUGARREN ESTADIOA: *TRATUA*

Denek jarraitzen duten ibilbide berberarekin setatu zinen. Tratuaren fasean, begira zer-nolako hitzarmena ixten saiatu zinen: «Hori inoiz berriro aipatzen ez badut, gertatu ez balitz bezala pasatuko da». Haurrak eta lurreko marrak bezala: «Zapaltzen ez baditut, nahi dudana erosiko dit amatxok».

Tratu bat? Mesedez: ihes egitea! Dena den, ez dut zure koherentzia gaitzetsiko: fase honetan heldu zenion aurreneko gauzari, zeri eta parranda egiteari! Burmuina alkoholetan itotzen saiatu, bi potrorekin.

Ostiral gaua eta aspaldiko partez lan egin beharrik ez. Bihotzak sutan, zainak zabalik, ahoa prest eta apokalipsiaren zaldunak aldean. Maddik neska-lagun baten urtebetetzea zuenez, dei pare bat egin zenuen: adiskideak, parrandara! Litroak erosi, hondartzara joan eta eraso! Txirriak jiraka, kalimotxoa eta garagardoa, kubataren bat, aprobetxategiak, ezagunak, beste talde bateko neska politak, haiengana zintzilikatutako saguzarrak... badakizu, gaueko fauna arrunta. Gehiegi errez gero eta lehertu arte edan, kotoizko linbora helduko zara: zoriontasun lainoak, barre algarak, adis-

kidetasunaren gorespena eta maitasun unibertsala. Zure baitatik irtengo zara besteekin biltzera: nirvana! (Eta ez naiz Kurt Cobainez ari).

Gero, burmuina urperatuko dizu musikak. Denetarik: espainola, ingelesa, reggetoia, ijito-rocka, berdin dio. Funtsean: tabernetan komunikazioa galarazi; pertsona makaldu eta piztia piztu: ikusi, ukitu, dastatu. Abere feria!

Alaitu egin zaitu alkoholak, isolatu haxixak. Nahaste perfektua, beraz. Zure burbuilan egingo duzu dantza, erotuta, estasi betean. Eta halaxe jarraitu, denboraren kontzientziarik gabe. Berdin zaizu dena, eroso barneratu zara ez-memoriaren tunelean.

Maddi agertzean argi ñimiño bat piztu zaizu hondoan, bigarren neuronaren aldamenean: hitzordua ahaztu duzu! Karga-karga eginda zoaz eta normalean izango zenukeen izu zirrarak kili-kili egiten dizu. Ez diozu mugikorrari begiratu: eta zer? Irribarretxo bat eta konponduta, besarkada gozo bat eta aurrera festa. Maite duzu: nola esan izugarri polita dagoela? Odol hordituak egundoko abiadura hartu dizu zainetan: berotegi efektua. Unga, unga, gizon prehistorikoa zara. Desiratzen zaude eta premiak behartzen zaitu:

laztantzera, zirri egitera, musukatzera. Maite duzu, bai. Amodiozko zerua: ongi etorri paradisura.

Eta Maddik baietz, bera ere berotuta dagoela. Leku pribatuago baten bila abiatu zarete: koadrilaren *txorlekura*. Xiberoako kanta ezagutuko duzu, ezta? «Agur txorleküa, zuri ditit ene ametsik goxuenak», klasiko bat, klasikoa! Hiztegietarako: TXORLEKUA iz. (2012) (beh.) Maitaketa eta sexu jolasetarako tokia, adiskideekin alokairuan hartutako lonja edo gela sarritan.

Horrenbestez, gatozen saltsara: Barbie hizketan, kontu-kontari, berriketa zoriontsuan. Ez diozu kasurik egiten: amodioa eta digestioa egitean odola desagertu egiten da burutik. Itxaron, baina, ez izan baikorregia: tabernatik atera eta gutxira, urdailak bereganatu du pentsatzeko ardura. Edari gehiegi nahastu duzu? Edo agian jela izango zen. Edo... Kontua da ezin duzula zutik egon. Kristoren mokoiloa daramazu: zabuka, zorabiatuta, izerdi hotza. Eta oka egiteko daukazun erraztasun horrekin, zuretzat ere erraz ebazteko formula: txahala bota duzu. Maddik ez daki nola jokatu; ama-sena nagusitu zaio higuinari: burua heldu dizu, goxo-goxo ferekatu. Gaua bukatzeko modurik erromantikoena, bai jauna. Ulertzen orain diruaren eta

erromantizismoaren arteko harremana? Eta ikas dezazun: alkohol garestiek ez dute horrelako post-efekturik.

Maddiri zaputza eragin diozun arren, ez diozu kexarik entzungo. Eta, jakina, bera da biktima: salbuespenak salbuespen, arrazoia du. Zuen arteko istorioaren azalean induskatuta geratuko den orbain txikia besterik ez da, ez du hainbesteko garrantzia. Baina agian, egunen batean, zerbaitek urratzen jarraituko du, zauria odoltzen ere hasiko da eta... Aizu: inork esan ote dizu odolgabetuta hiltzen direla harremanak?

Arrastaka iritsi zara etxera. Nahikoa lan arropak kentzen eta tapaki azpian sartzen. Eta orduan, ezerezetik sortu da, berriro, hainbeste beldur diozun amesgaiztoa: forropolar gorria.

LAUGARREN ESTADIOA: *DEPRESIOA*

Biharamuna. Goibel esnatu zara, arrazoia oroitzen ez baduzu ere. Etxera heldu zinen, ezta? Eta Maddirekin egon zinen, ala? Orduan zer? Nondik, ba, negar egiteko gogo hau? Gelan ezkutatzeko premia hau? Giza-fobia duzu gaur, simaur galanta atzo. Lehertzeko

zorian burua, mugikorra pizteari beldurra. Zergatik ez ditugu ajeak dekretuz ezabatzen?

Ihartu egin zaizu bizipoza. Komodin guztiak xahutzen ari zara. Bezperan baino zatiaz okerrago zaude: gorputza astinduta, bihotza kristal puskez beteta eta ahazten ez zaizun horixe gogoan, alegia, zuen ama hiltzaile batez erditu zela. Hiltzailea, atzeratua eta hilda jaio zena; hiru mosketari: bat eginik denon alde eta denok baten kontra.

BOSGARREN ESTADIOA:
ONARPENA (ETA *HERIOTZA*)

bip, bip-bip, biiip, biiiiiiip...

Erietxe batean hiltzen bazara, txistu luze hori entzungo duzu eta, orduan, agur munduari? Edo entzun aurretik joango zara, hiltzen ari zarela konturatu gabe?

Paranoiak. Aurreko gauetan, behintzat, pentsamendu txarra uxatzea lortu zenuen. Hori bai, nire begirune osoa aitortu behar diot berorren gorentasunari, mingaina lodi-lodi eginda belarri gogotsu bati ezer konta ez zeniolako: biba berori!

Ajeaz ari garen honetan, bide batez, ba al dakizu monoaren zergatia? Drogatzean zoriontsu garelako. Mozkortuta ez dago arazorik, mugarik, etorkizunik. Eta gorputzak botere hilezin horren sentsazio eza sentitzen du. Primeran daki kabroi horrek ze komeni zaigun!

Baina, esnatu! Arratsaldeko hirurak dira, larunbat katoliko eta apostoliko batean. Amadeoren otso ahotsak behera bota du atea: zaplazteko ederra eman dio ke eta alkoholez kargatutako ufada kiratsuak. Disimulatu arren, ziur nago ilea urdindu egin zaiola pixka bat.

Espainiako sendi tradizionalaren unitatea sakratua da asteburu eguerdiko bazkarietan, igandero hamabietako meza bezala edo TVEko albistegia zuekin mahaian esertzea. Eutsi goiari eta Jaungoikoak salba gaitzala!

Betiko moduan, bezperako triskantzak ezkutatzen saiatu zara: hiru litro ur edan, aurpegia garbitu. Gurasoak, betiko moduan hauek ere, momiak baino isilago: nork aitortu nahi luke aldizkako alkoholiko dela semea?

Agertu zarenerako etxeko venustarra euliarena egiten dabil gelan, gelditu ezinik; pater familias patxadaz mahai buruan eta neskame familias sukaldean.

Heltzen azkena, Txefe Superstar, betiko estilo zakarrean eta amorru biziko aurpegiaz. Froga aurkitu zenuenetik estreinako aldia da elkarrekin minutu bat baino gehiago igaroko duzuela; ez du zure urduritasuna antzeman.

Biharamunaren ahulezia tristea barneratuta ere, egarri zara: taupadek Danborradako kanta guztiak errepikatzen dizkizute kaskezurrean. Erituala amak zerbitzatu duenean hasi da.

–Y la Real? –galdetu dio Amadeok seme nagusiari.

– Malagaren kontra daukagu. Ea bolada onari eusten diogun.

– Patata-tortilla bokadiloa egitea nahi? –Manolik, arduratsu.

Txefek kriskitin gogaitu bat egin du mingainarekin: betiko galdera, ohiko erantzuna. Semeekin arretaz aritzeko beharra sentitzen du zuen amak, baina hamar urtean Txefek ez dio bokadilo ziztrin bat ere onartu. Lagunekin erosten du tabernan; libre ibili zalea horretan ere.

Amadeoren Real Oviedo maitea desagertua zen mapatik, zorren eraginez; eta ez zaio hauxe besterik otu elkarrizketari segida emateko.

– Ea horrela den.

Txefek bularra puztu du: Anoetara joango da. Bera han egon gabe ezingo lukete ondo jokatu, are gutxiago irabazi.

Jedi zaldunak txalo zaparrada bat jo du poz-pozik bere dimentsio paraleloan: babarrunak maite ditu.

Bai, familia perfektua osatzen zenuten, artean.

– Hijo –Amadeok–, siéntate, por favor.

Hainbeste urteren ondoren seme gaztea normala balitz bezala tratatzea ezinbestekoa zaio zuen aitari. Horrelako aginduak ozen ematea beharrezkoa du bere autoestimuak. Alfa harraren kontuak, esan gabe doa.

– Hodei, aulkia –Txefek, goxo, anaiari eskutik tiratuz.

Akzioa eta objektua parekatzeko era erraza, arnes batekin lotzeko, bide batez. Hala ere, Yodak pertsonalitatea erakutsi du berriz ere: autistarena eginez erantzun ez dio ba! Eta gero bai, ama sukaldetik itzulitakoan, korrika eta presaka eseri da, plater hutsa irrikaz begiratuz barre algara batean. Manolirentzat zeruko oparia izaten da Hodeiren barrea, horrelako momentuek ordaintzen dituzte beste guztiak. Infernua da-eta, konortea galdu arte buruarekin hormaren kontra joka jarduten duenean.

Aingerutxo bat pasatu da, isilune asaldagarria, zerbait ondo ez doala nabariegi uzten duena. Amadeok eta Txefek futbolari ekin diote, giroa zarataz disimulatzearren: arbitroa kabroi hutsa da, kontuz ibili beharko dugu; badakizu nor aterako duen gaur?; mutil hori alfer zorritsu bat da; bai, baina begira zenbat kobratzen duen; futbola zeharo aldatu da, nire garaian ez zuten pezetarik patrikan; zuen aitonarekin Oviedo ikustera joaten nintzenean beti erasora irteten ginen, sei gol gutxienez; gaur egun lau beltz erosten dira zakurren antzera korrika egin dezaten, eta akabo futbola; ba, betiko txorakeriez ari zara, ze ostia dakizu zuk futbol modernoaz, zu arrazista hutsa zara; ni ez naiz arrazista, baina ez al da begien bistakoa...

Laurak aldean, mugikorra: Maddi. Modako tabernan dago, chill out lounge ez-dakit-zer my taylor is rich. Joateko. Aitzakiaren bat bilatu duzu alferrik: burmuina under construction. Ostiraleko antzerkiaren ondoren badakizu amore eman beharra duzula, normalean baino bizkorrago. Ez duzu batere gogorik; nahiago etxeko epelean geratu. Jontxu, Jontxu gaixoa: denek nahi dute zugandik zerbait, ezta?; ez dago bakerik.

Beno, orain konfiantzan gaudenez, zera aitortuko dizut: neuk ere ez nituen nire maila sozialekoak batere atsegin; taberna hura, bereziki, askoz gutxiago. Pijoen sasi-paradisu famatu super-diseinatu horietako lokal bat: alkandoren lepoak kontu handiz igoak, mila euroko poltsak, fantasiazko makillajea eta oinetako garestietatik garestienak, hemen, *Diruostian*, gure perlatxo txurian. Hartu glamour pixka bat, hautseztatu tanta batzuez eta aire kondizionatuaren bidez giroa lurrindu: kontuz Paris, kontuz London, kontuz galaxia! Munduaren zilbor-hestea Haizeen Orraziari katigatuta dago.

Behingoagatik, ez ukatu: cool mozorro horrek barruraino izorratzen zintuen, ziur aski gutxiagotasun konplexuarengatik. Esan gabe doa, zure erresistentziak ez zuen meriturik: izan amaren esnea, fardelen marka edota kreditu txartelaren kolorea, genetikoki programatuta zeunden gu bezalako odol-urdinak gorrotatzeko. Irudikatu, orduan, zer nolako umore gozotan sartu zenuen muturra ergelkeriaren ozeanoan. Eta, non zegoen Rapa-Nui? Hondoko txoko batean. Kanpotarra saloon-era sartu berritan, cowboyek eta vedetteek mespretxuz aztertu zintuzten haraino heldu arte. Terraza ederra zen, Indiako kutsu exotiko bate-

kin apaindua: lastozko diban eta mahaitxoak, intsentsu usaina eta kandelatxoak ilunabarrean.

Teresa Kalkutakoak irribarretsu utzi zizun lekua bere aldamenean. Arreta osoa jarri zuen zu entretenitzen, zurekin hitz egiten, nola edo hala mahaiari lotuta mantentzen. Ezikusiarena egin zien gorteko lagun, mutil-lagun-ohi eta izan-nahien jarrera hotzei. Ezin aldatu: olio tanta bat zinen Evian uretan. Taldeko neskek, ordea, ama berriek abortua izan duenari bezala begiratzen zizuten: errukitsu. *Talentu* bilatzailetzat zeukaten Maddi, frikiak aurkitzeagatik simaurrean eskua sartzeko gai; beraz, haren apeta xelebretzat baino ez zintuzten.

Zer esango dizut ba: nire ustez, erraz onartua izango zinatekeen kamiseta zuria eta larru beltzeko txupaz jantzita agertu izan bazina. *Grease* edo *Dirty Dancing*en estetika, badakizu. Gure belaunaldian kulero zuri asko busti dute Printze Zarpailduek. Maddik *horregatik* zurekin egon nahi izatea logikoa irudituko zitzaiekeen; baina ez: haien-kide mozorroa jartzen saiatu zinen, tematu, erratu.

Arratsalde hartan, ordea, gogor portatu zinen: kasu putarik ez egin. Jon Preciado jauna, egundoko ajeaz eta standby eran, besaulki erosoetan murgildu

zen. Akuario efektua: beiraren kanpoaldetik arrainen joan-etorri harmoniatsua mirestera kondenatuta zaude, beren perfekzioa desiratzera, inbidiatzera. Barruan, ordea, estura, asperraldia, horma, kartzela.

Tertuliaren zurrunbiloan bizirautea lortu zenuen galerak minimizatuz, gudan eta ekonomian esan ohi den moduan. Gero Maddirekin bakarrik geratzeko denbora iritsi zen, txolinduen momentua, eskutik helduta paseatzekoa, berriketa ispilutxoarekin: Kuba, moda, New York, unia, Habana, aitaren lagun batek erosi duen megaitsasontzia, Manhattan. Gora bihotzak!

Bukatzeko, buruan bueltaka mugitutako galdera, mesfidantzaz eta beldurrez botata:

– Beno, ze ordutan geratuko gara gauean?

Achtung, achtung: zunda-globoa Australiara bidean da! Larunbata, ilunabarra eta, horrekin batera, adiskidetzearen benetako eszenifikazioa.

– Ez dakit. Nahi duzunean. Hori bai, luzeago egon nahi nuke zurekin... atzo baino lasaiago, esan nahi dut.

Bale, emaitza positiboa. Minduta zegoen; tira, ulertzekoa: bart gauekoa, Ondarroako lagun batek dioen moduan, tumatxa izan zen, tumatxa!

– Barkatu gauekoa, laztana. Ez dakit... lehenengo aldia da udara honetan hainbeste desfasatzen naizela.

– Jakina. Ez kezkatu.

– Benetan diotsut.

– Espero dut kanpoan egon naizen bitartean horrela ibili ez izana.

– Lanean jardun dut.

– Ez nago haserre –ez dakit konturatu ote zinen berak irabazi zuela partida–. Nire bila etorriko zara?

Ikusten denez, pasatu zitzaion amorrua; okerrak konpontzeko tartea bazegoen, eta lehenengo abisu horrek gau lasai bati eman zion bidea. Elkarrekin joan zineten poteatzera. Lehenengo zuritoekin esnatu zitzaizun gorputza eta ondoeza lurrundu egin zen bere haserrearen azken tantekin batera: berriro gau oooso bat elkarren ondoan, elkarri musuka, elkarrekin. Ai keinu txikiak, ai erritual goxoak eta eraikia zenuten mundua. Hilabete eta erdi mugikorrez txateatzen eta egunero deika: mila bider mila cyber-lerroek ezin zuten hainbeste *maite* ezabatu, ezta pixka bat lausotu ere.

Inoiz baino lehenago alde egin zenuten zure koadrilaren lokalera. Lokala: gogoratzen aurreneko aldia-

ren zalantzak eta beldurrak? Hara joateko proposatzen ere ausartzen ez zinenean? Neska biluzien argazki erraldoiak eta horixkatuak, telebista handia eta zaharra, bideojolas pirata eta berria, sofa zarpailtsua eta zikina. Ezin aproposagoa elkarren kontra igurtzika jarduteko, ezta? Debutean, hala ere, lotsaz baino ikaraz iradoki zenion... eta berak: bai, zergatik ez? Denok igual-igualak gara: desio-oztopo-bizio. Hastapeneko beldur haiek aspaldi lausotuta zituen errutinak, ahaztuta.

Eta ahaztuta, Txeferena ere: ardura anbiziotsuagoek bigarren planora zokoratua. Ez zenekien Maddiri kontatu nahi zenion. Edo zure domeinu barruan gordetzea komeni zitzaizun, kontrolpean, gauza guztiak bezala. Tira, Maddi ez da ezertaz konturatu: Romeorekin liluratuta, ni zurekin jai-jai.

Zeinen polita: lehen bezain ondo zeunden. Ameriketara joan aurretik bezain gustura. *Gertakariaren* aurretik bezain zorioneko: anaia hiltzaile madarikatu bat zela jakin aurretik bezain kontentu.

Artean ez zinen halakorik pentsatzera iritsi, baina isilpeko babes hark konplize bilakatu zintuen: krimen kide. Onartu nahi ez arren, zu ere, aldez edo moldez, nire hiltzailea

ZINEN

Esnatu.

Zer?

Esnatzeko!

Zein ostia zara zu?

Jakob Marley izena dut; baina ez flipatu, ez dut-eta Bob-ekin zer ikusirik, babo hori! Beste era batean esanda, Mefistofeles naiz edo zure Anubis partikularra; nahiago duzuna, niri bost.

Baina ze...? Ez, ez. Zu Gizajoa zara!

Izenak ez du garrantzirik.

Zer nahi duzu?

Bidaian eraman nahi zaitut.

Bidaia bat?

Bidaia BAT ez, BIDAIA: zure bidaia denboran.

Denboran? Zer demontre? Ametsetan al nago?

Ametsetan, baliteke, bai; azken batean, zer da amets egitea?, ez al da ba bizitza amets bat? Gogora ezazu: «The man is the dream of the dolphin».

Ze paranoia klase da hau?

Goazen, ez zaitez aspergarri jarri.

Zeri begiratzen diozu horrela?

Zure anaia zu hiltzen ikusi berri dut: pelikula ikaragarri ona, zure papera betetzeko dohain handirik behar ez baldin bazen ere.

Ez dut ulertzen zer esaten ari zaren...

Ez kezkatu, segituan ohartuko zara.

Baina... benetan hilda nago?

Astuna zara gero! Hilda nago? Entzun: zure gorputzari helduta dago Flash Gordon, negar eta odol malkoak nahasian. Eta, ezetz asmatu zer egin duen? Eskuak aurpegira eraman! Primitiboa, ezta? Ba marka da: anaia nagusia euskal labela etengabe irabazi nahian eta txikienak, aldiz, lehenengo saiakeran betebetean asmatu ere! Neolitikoan bezala, ez dago odolez margotzea baino ekintza euskaldunagorik: goragutagutarrak!

Zoaz pikutara!

Ez harrotu, pittin.

Aurpegi zuri-beltza duzu... joker baten antzekoa...

Bai, zure kontzientziaren komodina naiz, iragana erakustera natorkizu. Iragana: etorkizunaren oroitzapena; etorkizuna: haren eldarnioa.

Gelaren silueta disolbatzen ari da. Ez ahal da amesgaizto bat izango! Txunba-txunba musika gero eta ozenago. Begiak argien erokerietara ohitzen ari zaizkit: joan-etorriak, flashak, garrak, iluntasun argiprintzez urratua, aurpegiak izerditan blai, estasian, alai.

Soinua moztu den arren, ero haiek dantza egiten jarraitzen dute, modu negargarrian, musikarik gabe, lekuz kanpo. Baxu bat entzuten da bateria baten erritmoan. Gitarra elektriko ezagun bat «Creep» aletzen, notak mahats-mordo heldu batetik hartuko balitu bezala. Loak hartu aurretik behin eta berriro entzuten ari nintzen abestia da.

Hara bestea! Ihesbide merkea aukeratu zenuen, ezta? Triste zaudenean horrelako kanta bat jartzea da onena, zure buruarekiko errukia izateko.

Radiohead: berriro entzuterik banu! Ametsetako txantxa bat izan behar du. Nik «Creep» entzuten dut eta gainontzekoek birao, bakailaozko goragalea. Begiak ixten saiatzen naiz, burua garbitzen, dena ahazten. Alferrik: betazalak gardendu egin zaizkit.

Inozoa... ametsetan ezin da saihestu entzutea, ikustea, izatea. Hori da benetako bizitza, edozer eta denetarik gerta litekeena.

Ez zait xelebrea egiten zu hor ikustea, ezta zauden moduan ere: erdi flotatzen, hemen bertan baina ezkutuan, kontzientziaren eta zientziaren arteko linbo batean. Transmutatzea gustatuko litzaidake: telebista kamera edo hontz-begi zaindari, berdin da. Hortxe

egotea beste helbururik ez duen edozein gauza. Hortxe egotea: behatzea, aditzea.

Gainontzeko zentzumenak sorgortuta ditut, eldarnioan dabilen artalde dantzariarenak bezala. Eta erdian zu, Gizajoa: lebitatzen, aura berde batez inguraturik. Ez! arrosa da; ez! urdinxka... kolorez aldatzen zara barre egiteaz batera, kameleoiak bezala, pailazoak bezala.

Oso poetikoa. Baina... ikusi-makusi...

Zer ikusi?

Ondo! Kasu egin zure barruko umeari, orain baitator onena. Adi!

Aurak ñir-ñir egiten dizu: horixkatik gorrixkara, kulunkan, diskoaren argien erritmoan. Pozik zaude, oso pozik...

Erne hango tipoarekin, hondoan dagoen harekin. Ezagutzen? Ni naiz. Ederra, e? Iaz da hau guztia.

Zer egiten zenuen hemen?

Ez duzu asmatuko? Ez? Oso erraza da, motel. Kaka pasatzen nuen. Goi-mailakoa, jakina.

Ez dut ulertzen.

Ez al duzu ba ikusten? Ze motza zaren, ene! Kaka, gorotza, simaurra: trafikatu egiten nuen! Denetarik:

pilulak, hautsa, heroina, estasia, azidoa, kalamua... trafika daitekeen guztia eta ez daitekeena ere bai.

Ño, segidan gertatzera doana aurreratzen saiatzen ari naiz, baina alferrik da zurekin: kaikua zara, gero! Begira hondora. Tipo txikia ikusten? Bufoi itxurakoa. Ez du inoiz arropatan xentimorik gastatzen, apo horrek. Kanpoan bezeroak ditudala abisatzera etorri zait. Hona sartzea gustuko ez duen jendea, badakizu, infernu honetara. Arraroak baina fidatzekoak: beti ordaintzen dute. Ondo gainera, eta azkenean gehiegi, putakumeak!

Morroi hura Gizajo bizidunari hurbildu zaiola dakusat, zerbait xuxurlatzen diola belarrira. Elkarrizketaren ondoren, sigi-saga pasatzen dira jende artetik, ziraunen gisan, irteera helburu.

Dakusat? Euskaldun berriaren konplexua ala? Egin ezak natural, gazte: gora euskara sencilloa! Tira, goazen kanpora, funtzioko onena galduko dugu-eta bestela.

Nola pasatuko gara jende multzo horren artetik! Ez dago lekurik...

Ez al dakizu Supermanek bezala hegan egin dezakegula? Hau da mamu izatearen abantaila: zatoz.

Abiadura hartu eta pareta zeharkatu duzu! Dragqueen dantzaria eta guzti! Utikan logika: atzetik noakizu.

Bibrazioak oihartzun bihurtu dira, astiro-astiro mututzeraino. Trapitxeroek bi morroi dituzte zain. Ezker abertzaleko uniformeak: Txefe!

Ikusi ote nau?

Ez izan kakatia. Esan dizut inork ez gaituela ikusten. Mamuak gara! Adi egon, orain dator-eta jokaldi bikaina.

Negoziazioa azkar jiratu dute. Tratua, bostekoa tinkatze zuhur batez zigilatu eta bururatu dute: di-da.

Honetan ez da adiskidetasunik nahasten; zoriontasuna diru trukez bakarrik oparitzen da. Kasu honetan pilula gorrietan: yaba du izena. Flipatzen ari zara, ezta? Ez zenuen espero? Ba orain badakizu: zure anaia kolokatu egiten zen!

Ez dut uste. Txefe ez da horietakoa. Gehien jota maria pixka bat erreko du, baina besterik ez.

Besterik ez? Ez ibili nirekin zurikeriatan! Froga ikusi duzu: pilulak erosi zizkidan. Eta ez edonolako pilulak; esan dizut: yaba! Ez duzu ezagutzen? Ideia putarik ez, jakina. Thailandiarren botika eroa. Europan,

yaba hartzen duena drogan aditua da, benetan. Estasia baino mila aldiz hobea da.

Ez, Txefek ez...

Inuzentea, babalorea; ez, Txefek ez du drogarik hartzen; ez, nire anaia kabroia ez da kolokatzen; ez, Txefe ez da hiltzaile bat! Ba bai: hiltzaile bat... zure gurasoen seme ere badena, hara ze kasualitatea! Ez, Txefe gaixoak ez du denborarik trapitxero errugabe bat garbitzeko.

Errugabea zu? Zerbait egingo zenuen, seguru!

Ez, Txefe ez... Ongi etorri mundura! Azken aste haietan ez al zenuen ba zeuk ere hartu! Ostia, motel, mojek ere bai! Bide batez: zure neska-lagunak ere kontsumitzen zuen, bai, Maddi maiteak ere bai.

Ez da posible.

Jakingo ez dut ba! Baita zurekin zegoenean ere. Nik neuk saltzen nion-eta. Lagunen urtebetetzeetan, *neskak-bakarrik* afari eta festetan... Zergatik uste duzu, ba, hitzordua zenuten ostiral hartan ez zitzaiola inporta izan zu berandu agertzea? Ez zitzaizun burutik pasatu ere egin, ezta? Inuzentea: bere lagunen berdin-berdina zen. Ederrak dira gero! Herri xumeak dirua du muga; horiek ez, batere ez. Eta ez pentsa zikinkeriekin edo erdipurdiko gauzekin ibiltzen direnik,

bai zera! Garbi-garbia eskatzen dute, lehen mailakoa. Sosa lagun, ez dago gorotz arriskurik!

Horrelakoa da bizitza, galtzaile! Ziniko halakoa zure azukre koxkorra, e? Ez zizun ezer esan baina ezagutzen ninduen. Baietz ba! Neure esku bekatari hauekin saltzen nion. Eta, egia esan, egunen batean berarekin larrutan egitea ere espero nuen; fabore baten truke, bere lagunekin bezala. Ez da horrelako zerbait gertatzen zaidan lehen aldia. Uste ez bazenuen ere, pija itxurakoak dira gaiztoenak.

Nola esan zizun niri buruz hitz egin zenutenean? «Borja Iriartek eta Garmendiak, gelakoek» ezagutzen nindutela. Gezur puta! *Beste* gezur bat, itxurakeriazko orgasmoekin hasi eta drogekin amaitu, tartean tartekoak kontuan hartu gabe.

Aurrean, ispilu batean bezala, neure burua: airean jarraitzen dut baina baten batek ikusiko banindu, banku batean eserita nagoela esango luke. Pentsakor. Dezepzioa isurkari lirdingatsua da burmuinean. Ez haserrea; dezepzioa.

Kaka zaharra. Sumina sentitu nahi dut, baina sumina, ur orbanen gisara, lurrundu egiten da arrastorik utzi gabe. Dezepzioa, aldiz, ardo orbana da.

Maddik ere hartzen zuen.

Eta Txefek ere bai.

Hil egin naute.

Isurkari lirdingatsuaren aipu hori nondik atera duzu, Xekspir? Lasai, motel, horrela hasi ziren-eta neska guztiak.

Mekaguendios...

Ongi etorri linbora, pittin.

Egoera normal batean zurbil-zurbil egongo nintzateke. A ze ironia! Nire gaztelu txikitxoa, segurtasunez, mitoz eta auto-justifikazioz eraikia, egiatan kartoi merkez egina zegoen. Edo, askoz okerrago, musuzapi zikinez. Ostia, txikitatik poliki-poliki altxatu nuena, marfilezko gotorlekua zirudiena: enperadorearen jantziaren material berekoa besterik ez zen. Lautada bat. Hondartza marea goran.

Kitina gabeko labezomorroa naiz. Adam paradisutik bota berria, biluzik, bizitza zeneko muturrekoak jasotzeko gertu. Kain, odol orbanak kendu ezinik. Ardoa baino zailagoa da odola kentzea.

«Horrelakoa da bizitza, egin ezazu behar duzuna!». Gora Radio Rahim!

Eta orain?

Orain? Funtzioa bukatu da gaurkoz, adiskidea. Agian esnatuko zara edo agian ez. Amets batetik es-

natzea nahiago ala? Benetan? Pentsa errealitateari aurre egin beharko zeniokeela berriz ere. Baina... ze errealitateri? Ez dakizu benetan ametsetan zauden edo ni bezain seko. Bizitzan ez dago ezer ziurrik, hainbat gutxiago ametsetan.

Zer egingo dut orduan? Zer gertatuko zait?

Itxarotea beste aukerarik ez daukazu. Itxarotea: filosofo batzuen arabera, heriotzaren esperoa da bizitza. Hasiera eta bukaera erakutsi dizkizut: bietan odolez blai.

Baina ez dut ezer gogoratzen heriotzako orduan gertatu zitzaidanaz eta...

Lasai, horretarako naukazu-eta. Denbora sobera dugu, ez kezkatu. Nik lagunduko dizut. Patxadaz hartu, eta hurrengoa arretaz entzun:

Imajinatu Donostia. Imajinatu Donostia baina ez postaleko glamourra: Zinemaldia, Laconcha, Kursaala. Badakizu, bidaia-telebistetako maskor argitsua. Ez, ez, ez; eguneroko asfaltoa irudikatu: beltzak orgatxoekin, hipoteka kitaezinak, txiza espaloietan, agureak tope-luxuzko haur-kotxeei bultzatzen eta adingabeko suizidak motorretan.

Benetako Donostia diotsut, maskorrak ezkutatzen duena: bihotz txuri-urdina kartera hori-gorrian, pinta-

dak, putak, txikiteroak, atso bakartiak, seiehun euroko lanak eta Peruko zaindariak umerik gabeko parkeetan. Michelin hiriburuaz ari naiz, bere larunbateko menuaz: txirri belarra entsaladan, botelloia edateko, plater nagusia nahi adina haragi gazte mikro-gonetan bilduta eta, postrerako, azukre-hautsa lerroetan; sukaldaritza?, hemen bezalakoa inon ez! Kantauri itsasoaren diadema hau gogoan hartu, plastiko arrosazkoa eta dena-merke txinatar batean lapurtua: zure Donostia.

Hortxe, Alde Zaharreko kale meharrak gogoratu; eta orain, ihesi doan gazte bat, erotuta. Izutua: zeu. Naturalki arnasa hartu nahi zenuke, hankek eta besoek inposatzen dizuten erritmotik askatu. Hamasei urte dituzu. Gudari Egun hartan Jontxu Preziado zara, zure deitura maketoa txapelaz mozorrotuta: subkontzientean nazionalismo arrazistak urratzen zaitu taupadaka. Sabintxo Arana, bere garaiko seme fidela.

Bizitza salbatzearren zoaz ihesi. Argazkietan ezagutzea galarazteko jantzi duzun palestinoak ito egiten zaitu; sinboloek, uf, pisu handiegia daukate. Eta Txeferi *maileguan* hartutako bota militarrek hamarna kilo gehiago kateatzen dizkizute hanketara: zureak egin du!

Galduta zaude. Hiru beltz ikusi berri dituzu aldameneko bidegurutze batetik agertzen: kaskoekin, borrekin, egurtzeko baimenarekin. Max Weberrek dixit: poliziak *erabiltzen* duena indarra da, besteona bortizkeria. Estatua: hitzen definizio eta gauzen legitimitatearen gordeleku. *Choose life.* Estitxu: hamazazpi urte. Che baino erradikalagoa, feminista, libertarioa, abertzalea. *Ez dakit zer pasatzen den azken aldi hontan, jendea hasi dela dantzatzen sarritan.* Zarauzko Putzuzulo gaztetxean zeunden kasualitatez, institutuan egindako azken lagun min berriarekin. «Amets fabrika» esaten diote, eta benetan hala izan zen zuretzat: Kortaturen gitarrek lehenengo garagardoa lehertu zizuten buruan eta ska lotsati bati ekin zenion. Norbaitek atzetik bultza eta nor zen begiratzera bueltatutakoan titi pare eder batekin topo egin zenuen: ai, ama!; gora eta behera kamiseta marradunaren azpian, gora eta behera, gogor eta borobil. Ile hori motz errebeldez, on-ona zegoen.

Hortxe erdian liluratuta geratzeak berehalako ondorioak ekarri zizkizun: morrosko batek kristoren bulkadaz erraztatu zintuen, mahai baten kontra lurrera arazi ere. Barreak ska-gerlarien artean, hori ostia! Estitxuk aurpegi txarra jarri eta kontra egin zion zatar

piztiari sorbaldarekin. Horrelako laguntza ikusita, altxatu eta biek batera talka egin zenioten. Bi metroko bikingoa, eltxoei erreparatu ere egin gabe, etsai handiagoen bila desagertu zen. Erabateko garaipena: neska-katxarroak irribarre egin zizun eta dantzatzen hurreratu zitzaizun; talde bat *gara*.

Esana dizut zortea zuen kabroi bat zinela, ezta? Gaztetxeko errebelazioa zen neska hura, diva berria. Agertu eta hilabete gutxiren bueltan kanpai guztiak bere ohorez dilin-dalan, amorruz, desespero batean. Mimatzen zuten, miresten zuten eta, batez ere, ohera eraman nahi zuten. Eskualdeko Rosa Luxemburg izan zitekeen, baina inork ez zekien Rosa Luxemburg nor zen. Estitxu Arregi: idealismo gaztearen indar geldiezina, mundua aldatzeko grina. Gau horretan zurekin liatzen da eta... adi hemen esaldiaren egiturarekin: bera da subjektu aktiboa eta zeu pasiboa. Molde horri eutsi zenion zuen istorio labur osoan: Estitxu aurretik, atzetik zu. Korrika.

Oroitzen zara? Karteladak, asanbladak, manifak, txangoak, jaiak, mozkorraldiak, zalantzak egunero: deituko ote dizu? Berriz nahi izango al du zurekin? Ez zenuen potrorik aurrea hartzeko; bazenekien nolakoa zen. *Choose a job. Choose a career.* Itotzen ari zara;

axubetek birikak zulatzen dizkizute eta, haizeak jota, esku bat sabelean duzula egiten duzu korrika, flakiaren mehatxua buruan.

Bakarrik geratu zara: kalean ez dago inor, euria hasi du, ilunabarra. Fermin Calbeton hartu duzu; pertsiana jaitsita daukate taberna guztiek. Zeinen bakartia den hiri bat kaleak hutsik daudenean. Eta zeinen luzeak diruditen ikaratuta eskapuan zoazenean. Edonoren bila, berdin du: lagunak, lekukoak.

Bakarrik zaude, bai, eta jakin badakizu setioa metodikoki ixten ari direla. Laster izango zaituzte beren atzaparretan atxilotuta. Helduta, kolpatuta. Segituan.

Hiru beltzek pertsiana bat altxatu dute eta taberna barrura sartu dira, western pelikuletan bezala. Zientzialari txit gorenak dira: aipatutako Weberren hipotesi famatua baieztatzeko beste esperimentu bat hastera doa. Egur zozketa: jendea kalera arrapaladan, eskuez buruak babesten, garrasiak, beldurra, mina. Beldurrari usaina dario. Ez kiratsa: usaina. Xelebrea, goxoa. Txakurrek igartzen dute; pertsona batzuek ere bai. *Borroka ezazu gurekin batera, gu garela EH sukarra.* Arnasa hartzeko gelditu zara. Beltzen beste bikote bat agertu da zugandik ehun metrotara. Zu seinalatu eta galopan abiatu dira: trailerrak, petrolio-on-

tziak. Airerik gabe, zu ihesean berriz ere. Itsumustuan zoaz, berehala atzemango zaituztela jakinda ere. Txerria hiltegiaren ate aurrean. Badator Mari-harakina! Festa hastear dago.

Hurbiltzen ari dira; gelditzeko oihukatzen dizu batek. Hirurogei metro. *Choose a family. Choose a fucking big television.* Independentzia zioen zure kamiseta kuttuna, anarkiaren lepokoa, Txeferenak ziren bota militar zaharrak, mozorroa ezin hobea: labeleko Jarraitxu baten planta duzu. Estitxu eta beste hirurekin hitzartutako izkinan batu zara, denak antzeko uniformez. Bulebarrera heltzean masa izatearen indarra sentitu duzue: tankerako jende asko dabil han, Alde Zaharreko saltsara sartzen. Jai giro nabarmena. *Kolore bizia, arrazakeriaren kontra; kolore guztiak faxismoaren kontra.* Flekilloen printzesak bereziki zoriontsu dirudi; zu bere ondoan ere bai.

– Euskal gazteriaren boterea erakutsiko zieagu putakume horiei –diotsu–. Ez gaitiztek geratuko!

– Gora ETA militarra! –zeuk, ukabila altxatuta.

Begiratuarekin sariztatu zaitu. Batzuetan ez dakizu zer nahiago duzun: gorputz puska hori edo bere pertsonalitate geldiezina. Beti gorputza!, ez izan ergela. *Choose a washing machine, cars, compact disc pla-*

yers, and electrical tin openers. Urrutitik ikusten dituzu sei morroi, ikurrinak eta «Presoak etxera!» pankartekin. Bat besterik ez duzu ezagutzen, baina oraintxe aurkeztuko dizkizut neronek, plazer handiz gainera: Txiki, Otaegi, Muguruza, Lasa eta Zabala. Ez da txantxa bat, ez. Artaldearen buru Txefe duzu. Edo Argala, ez bazaizu inporta. Bai, bai, Argala, ez egin barre. Beraiek hautatu zituzten izen horiek omenaldi moduan; nerabezaroko tontakeria bat, denboraren poderioz xarma irabazi duen jolas pribatua. Erradikal nostalgikoak: anaia eta bost adiskide; apokalipsiaren sei zaldun, gizajoak garbitzen hasi aurretik.

Adi: ez dituzu-eta denak batera berriz ikusiko; akaso bost, Alde Zaharreko bazter batean, mendekua gauzatzen.

Agurtu dituzu eta anaiak flipatuta behatu dizu. Buruarekin seinalatu eta adiskideei zerbait esan die. Egia aitortuko dizut: anaia lotsatu egiten da zutaz. Ez hartu kontu *pertsonal* baten moduan: «zutaz» horrek bere familia osoa esan nahi du. Badakizu, Estitxurekin gauza bera sentitu zenuen: maketoak, erdaldun kaikuak. Ikastolak mirari linguistikoak burutuko ditu batzuetan; odola eta konplexuak, ordea, ezin ditu garbitu. Eta eskerrak ez *zinetela* extremeñoak; asturiarrek

behintzat baduzue meatzariak izatearen harrotasun aire bat.

Zuen aurretik pasatzen ari direnez, gelditu egin zara, harro, inbidia emateko: bular mardul horiek aurkeztu nahi dizkiozu, *putoamo* hutsa zarela erakustearren. Abelek egun osoa ematen omen zuen Kaini bere ardiak lodiak zirela erakusten, zokor-mazo galtzaile bat zela errepikatzen. Izorratzeko, besterik gabe; horretaz aparte, ez omen zegoen egiteko gauza hoberik Eden mendebaldean.

– Hau nire anaia dun: Txefe.

Morroi gogorrak buru keinu xume batez aztertu zaituzte.

– Estitxu, nire neska-laguna.

Hirugarren hitz hori airean flotatzen geratu da, disolbatu ezinik, lixiba odol putzuan. *Libre izateko haiz jaioa, Mari, ez zara izango niretzat.* Estitxuk alde batera egin du eta espainola deitu izan bazenio baino okerrago begiratu dizu.

– Hire *zer*? Ni ez nauk inoren neska-laguna, aditu al duk! Matxista zerria. Hire neska-laguna: baita zera ere! Joan hadi porkulo hartzera –eta ospa egin du sutan.

Barreka lehertu dira Txefe eta boskote miragarria. Badakizu hanka sartu duzula. Berdin da nola zurituko duzun zeure burua, berdin da ze hitzez goxatzen saiatuko zaren: betiko galduko dituzu miretsitako bular gogor eta borobil horiek. Gargantua bezain ahohandia zara zu. Estitxuk ez entzunarena egin du. Zutaz paso. *Agur nere maite politari; ez egin negar etorriko naiz egunen baten pozez kantari*. Aise iritsi da lehenengo pankartara; zuk nahikoa duzu jende artean bultza gabe pasatzearekin. Asko dira eta denek batera oihu egiteak amorrua handitzen die. Zuzen dabiltza eta ziur daude. Ez dira beren kontra ausartuko. Mundua salbatu beharra dago. Puzzle hartako alderantzizko pieza bakarra sentitzen zara: ametsak lokatzetan hondoratu zaizkizu.

Gaur egungo gerretan, kantitateak ezer gutxi du esateko. Hutsaren hurrengoa zarete. Zarete, bai, erdierdian baitzaude. Furgonetak agertu dira: txorrotak irekita, uholde beltza. Kasko gorri, istiluen kontrako ezkutu, borra zorroztuak, txikitzeko gogoa.

Ikara uhin bat zabaldu da manifaren barruan: irabazi egin dizuete. Baina berehala, deiadarka irain egin die ausart batek, beste batzuek balentriari eutsi; kontrola berreskuratu duzuela ematen du momentu

batez. Inozoak: zuekin jolasean ari dira: tigreak eta Bambi galdua. Horrekin gozatzen dute. Kondaira ezagutzen duzu, ezta? Droga eta egurra ematearena. Agindua heldu aurretik pitbull-saldo basati baten gisara eraso diezue. Astinaldia hasi da: gomazko pilotak, gas negar-eragileak, kea, orroak, tiro hotsak, dinbadanba, borra kolpeak, ukabilkadak, ostikoak, zauriak, atxiloketak, izua. Odola, malkoak.

Bai, usaindu egin liteke izua, eta entzun, eta uki. Eta zuk egundoko beldurra diozu piztia bat zure gainera etortzeari. Zer esango dizut ba: naturala da.

Denek jipoietatik ihes egin duten bitartean, han Estitxu, geldi-geldi: Amaiur behar zuen izena. Harro egiten die aurka, itsaslabarra marearen kontra. Harri bat hartu eta parabola eginez jaurti die. Pauso batzuk aurrera eta beste harri bat. Baina zuk ezin dituzu oinak lurretik mugitu. Adrenalinak korrika eskapatzera bultzatzen zaitu. Kakati hutsa zara, beti izan zara. Hortxe bukatu da zure antzezlana. Akabo behoka horrekin larrua jotzea: *dream is over, Yoko*. Lehenengo urratsa atzera ematea, betiko galdu duzula onartzea da. Agur eta ohore, laztana; gehiegi zara niretzat.

Gomazko pilotek txistuka hegan egiten dute inguruan. Liztor hiltzaileak: ihes! Beldurra izu bihurtu eta

burmuina ikaratan ito zaizu. *Choose good health, low cholesterol and dental insurance.* Pauso bat eta gero beste bat ematean kontzentratzen zara; ziur zaude laster galduko duzula konortea. Hogeita hamar metro. Saihetsek labanak balira bezala mintzen zaituzte. Birikak eztanda egiteko zorian dauzkazu. Minutu gutxiko esprinta eta beltzak orpoz orpo. Hamabost metro: harrapatuko zaituzte. Beren galoparen oihartzunak tinpanoaren barruan sentitzen dituzu: hamar metro. Atzean doazkizu: dribling bat egin behar zenuke, baina nora? Zortzi metro: eta bertan kieto gelditzen bazara ezer ez duzula egin azaltzeko? Sei metro: negar egiteko gogoa; zergatik sartu zara kontu hauetan? Ozta-ozta zu plakatzeko moduan daude. Lau metro: burua jiratu duzu. Batek eskua luzatu du zugana. Atzera begiratzeagatik estropezu egin eta lurrera joan zara zilipurdika. *Haika mutil, jeiki hadi, argia den mira hadi.* Aurrenekoak ez du zu saihesteko ahaleginik egin: belaunaz jo dizu buruan, bete-betean. Bigarrenak borraz besoan. Besteak ostikoka ari dira, horrenbeste korrika egitera behartu izanagatik. Bizkarrean egurtu zaituzte, izterretan, bikietan... espasmoka mugitzen zara, narras, burua babestu nahian. Kolpe zaparrada: ez dituzu zartako berriak sentitzen. Bertan

hilko zaituzte, kaleko txakur bat bezala. Sinetsi egidazu: ondo baino hobeto ezagutzen dut izu hori. *Choose fixed-interest mortgage repayments. Choose a starter home.* Orro bat entzun da eta itzal bat oldartu zaie. Zipaio bat lurrera, beste batek ostikada basati bat jaso du kaskoan, oreka galduz. Gainontzekoak, eroriak hartu eta laguntza bila aldendu dira. *Gazte bat lurrean aurkitu dugu, lore gorriz beterik kolkoa.* Txefek kamisetatik tira dizu zutitzeko. Kordea galtzeko mugan, txiza egin duzu galtzetan.

– Goazen, joder, laster itzuliko dira –estutu zaitu.

Haren lagunak atzean daude, amarru bat prestatzen, ihes egiteko denbora izan dezazuen: partisanoen gerrillak. Aurpegi eta ukondoak odoletan, besapetik helduta zaramatza Txefek.

Inguratuta zaudete. Alde Zaharreko irteera guztiak blokatu dituzte: ehizatuko zaituztete, zuek eta gainerako guztiak. Izorra zaitezte, ea horrela ikasten duzuen.

Txefek ezker eta eskuin begiratu du. Otsoak gertu sumatu ditu eskopetak: irtenbiderik ez. Erne: gogoan hartu begirada desesperatu bezain gogor hori, berriz ikusiko duzu-eta. Azkenean, beti zure besotik tiraka, moda-denda baten pertsiana igo du eta bat-batean

beste dimentsio batera sartu zarete: andere batzuk erosketak egiten kanpoan mundua erretzen ariko ez balitz bezala. Denak harrituta, beldurtuta gero. Zergatik ordaindu behar ditugu denok zuen guda jokoak eta astakeriak? Lasaitasuna nahi dugu, bakea behar dugu!

Txefek pertsiana jaitsi, mahai batetik hiru kamiseta hartu eta dendaren atzealdera eraman zaitu arrastaka eta herrenka. Emakumezko jantziak dira baina jada ezer ez zaizu arraroa egiten. Anaiak begirada bortitz bat bota die dendariei eta hiru aldagela dauden pasilloan erdiko atea trangatu du. Aulkian eseri zaitu; negarrez hasi zara, urratuta dituzu atal guztiak, sudurreko jarioa gelditu da behintzat. Txefek ahoa estali dizu eskuaz. Pertsiana igotzen entzun duzue, bota batzuk sartzen.

– Dena ondo? –gizon ahotsa.

– Bai –dendariak.

Kanpoan gutxienez hamabost doberman izango dira, borrak zorrotik aterata. Berriro ere atzematen bazaituzte, kito. Ez duzu beste jipoirik aguantatuko; akabatuko zaituzte eta gero esango dute ihes egiten hil zarela, edo zeure buruaz beste egin duzula. Bada-

kizu: nazien kontzentrazio esparruetan bezala, alanbre-hesi elektrikoaren kontra.

Txeferen eskuak zure ahoa sakatzen du; haserre behatzen dizu. Masaileko muskulu tenkatuei jartzen diezu arreta; ezin duzu bere begien mespretxua jasan. Orduan konturatu zara ez duzula ezagutzen. Haurtzarotik norgehiagoka estu batean borrokatu duzu anaia nagusia, metodikoki eremu guztietan gainditu ere bai: eskolan, etxean, kiroletan, bizitzan. Zure akuilua izan da: umiliatzea, atzean lagatzea, bere lorpen xumeak birrintzea. Txefek, baina, ez du lehia horretan inoiz parte hartu.

Gogoratu: auzoko futbol taldeko kapitaina zinen, etorkizun oparoko erdilaria. Reala eta Athletic zure atzetik, behin Bartzelonako begirale bat ere etorri omen zen. Fina, teknikoa, dotorea, karismatikoa: dena zenuen goraino heltzeko. Txefek eramaten zintuen partiduetara gidabaimena atera berritan, Txefe zen zure zalerik beroena, Txefe zure sostengua, bermea, animoa. Astapotro baten sarrerak errotik moztu zizun ametsa: belauna txikituta.

Eta urte erdi hartan, zer egin zuen anaiak? Ez zen zure aldetik mugitu. Lehen Mailan zurearen antzeko lesioa izan zuten jokalari guztien historiala ekarri

zizun. Noiz itzuli ziren, zer erdietsi zuten gero, nola helduko eta hobetuko zintuen sufritzeak. Zuk, ordea, ez itzultzea hautatu zenuen. Doi-doi errekuperatu zinen: promesa galduak zirrara eragiten zizun sabelean, pena. Ez zinen zure burua frogatzen ausartu: galtzeari beldur. Alferrik saiatu zen Txefe zu konbentzitzen, nazkatzeraino saiatu ere. Baina, ez ahaztu, azken mesede bat egingo zizun: ez zuen inoiz bere mespretxua aditzera eman, zeuk sumatu ere ez. Eta hoztasunak dena estali zuen, elurrak bezala.

Doberman botak dendan paseatzen aditzen dituzue. Pixka bat geroago, irteten ari direla ematen du. *Choose your friends.*

Kabenzotz: utziko al diozu behingoz abesti zatiekin kontaketa mozteari? Haria galduko dut! Ederki iruditzen zait *Trainspotting* filma ikusi izana eta euskal musikan aditua izatea, baina dena neurrian, motel.

Oroitzapenak erabat berreskuratzen laguntzen didate.

Ea argi geratzen zaizun: nobela honen narratzailea *neu* naiz! Nik lagunduko dizut oroitzapenak argitzen!

Norbaitek atean emeki jo du eskuarekin:

– Joan dira. Irten hortik, mesedez.

Sinetsi ala ez? Txefek badaki egia edo gezurra, beste erremediorik ez duzuela. Zirrikitu bat ireki du kontu handiz, dendariaren aurpegi kezkatua ageri da. Beste inor ez. Ninjen antzera atera da pasillora: sorbalda beti hormari itsatsita, mugimendu guztiak kalkulatuz, mesfidati. Dendaria izerditan dago: zuen beldur da.

Piloten zarata iraungi da: poliki-poliki normaltasuna bueltatzen ari da Alde Zaharrera. Hainbat zaborrontzi sutan edota kiskalita, beste frogarik ez. Larunbat gaueko ohikoek mozkortu egin nahi dute beren arazoak ahazteko; horien artean nahasita, gune epelagoetara abiatu zarete.

Txefek bus geltoki ondoan utzi zaitu:

– Horrelako beste batean harrapatzen bazaitut, hortxe utziko zaitut, ulertzen? Zin degizut. Hau ez da jolas bat.

Zure burmuinak deskonektatu egin du: pasadizo honen lotsa eta izua memoriaren ate txiki baten atzean giltzapetuko duzu, gustatzen ez zaizkizun gertakari guztiekin batera. Ez-naizenaren gela.

Anaiak ipurdia salbatu zizun berriro. Egia esan, berak beti ematen zuen dena zuengatik. Zertan lagundu zenion zuk? Ezertan ez. Hegazkinlariari ere ez, bide

batez esanda. Zu beti zureari eusten: zure etorkizun joriari, zure ikasteari, zure mutil onaren plantak egiteari... Ez esan gezurra denik: dagoeneko ahaztu duzu zergatik utzi zion Txefek *ElPueblo*ra joateari?

Pista bat: hamahiru urte estreinatu berriak zenituen, Neil Armstrongek zortzi eta Txefek hamazortzi luze. Orain bai?

ElPuebloko udarak. Auto bidaia luzeak gogoratzen ditut: Gipuzkoa, Bizkaia, Santander, Asturias. Errepidea pasako zen hurrengo herriaren izena oroitzera jolasten ginen: Cabezón de la Sal, Treceño, San Vicente de la Barquera.

Harritzekoa bada ere, bidaietan gehien gozatzen zuena Astronauta zen. Mugikortasun eza, estura eta zorabioaren gorabehera, haizea aurpegian eta gauzen igarotze frenetikoak liluratzen zuten. Aho irekita zihoan bere barruko mintzairan zezelduz eta barreka, zoriontsu. Behin ere ez zuen bere burua jipoitzeko krisi latz horietako bat pairatu.

San Roque, Llanes, Poo. «Asturias» zioen kartela igarotzean, aitak, eserlekuan ezin kabituz, beti gauza bera botatzen zuen:

– *Bagaude en casina.*

Bai: tradizioz, bere lehenengo hitzak ibilbide osoan. Bestela, Radio Nacional de Españaren bolumena igo, bolantea heldu eta Ducadosak irentsi, besterik ez zuen egiten. Eta Txefe atzealdean amorratuta berak hor erretzerik ez zeukalako. Salomonen epai mitiko bat erabili ohi zuen Amadeok bidegabekeria justifikatzeko.

Hala da: «Cuando seas padre comerás huevos». Alegia, familia-buru izateak pribilegio hura eskaintzen ziola.

Hori eta beste batzuk gehiago! Bitxi-bitxia, gero; nago ez ote zuen alderantziz izan beharko. Enpin.

Gizon ezberdina zirudien ElPueblon. Aurpegia argitzen zitzaion, denekin hitz egiten zuen: erlaxatu egiten zen gizona.

Erlaxatuko ez zen, ba! Autoa aparkatu eta zuzenean jotzen zuen... nola esaten diete han tabernei?

Chigre.

Horixe. Maleta eta poltsa guztiak kapotik lurrera, ate guztiak metodikoki itxi, eta agur lakoniko batez desagertu: gauerdira arte Bonaparte!

Tira, ordurako Txefe eta biok nahikoa heldu baginen traste guztiak etxera eramateko.

Lau solairu igogailurik gabe eta eraikuntza zaharren eskailera koska handiekin: ez da hutsaren hurrengoa. Ez ahaztu meatzarientzat bereziki eraikia zutela auzo hura: kale estuak asfaltatu gabe, leiho txikiak eta ikatzaren belztura zirrikituetan jauntxoen eskuzabaltasuna loriatuz. Herri ziztrina izan arren, aspalditik kutsatua zen hirien *xarmaz*. Ondorioz, erle migratzaileak zineten: erlauntz batetik beste batera!

Eta erle erregea, barkatu honekin tematzea, ederki baliatzen zen bere eskubideaz.

Oporretan zegoen.

Zuen ama ere bai! Baina Manolik ez zuen arnasa hartzeko astirik ere. Lita Julianaren eremuan zeundeten: bere etxea, bere agintea, bere menpean. Amaginarreba jeloskor eta amaorde gaiztoaren nahaste korrosibo eta garratza zenuten atso txiki hura. Beti beltzez jantzia, uzkurra, hitzen bidez baino, begirada zorrotzez komunikatzen zen. Hara: Amadeo bere semea datorkit burura!

Bere alde eginez, ezin zaio ukatu bilobagatik edozein akabatzeko gai zela. Zeu biloben artean kuttuna zinen baina Supernova, nola azalduko dizut: bere haragia zen, gorputzaren zati bat. *ElPueblo*n Lita Juliana arduratzen zen umeaz, zuen ama baztertuz... eta

beren arteko lehia, isilpekoa eta errukigabea, irabazteko.

Adibidez: auto-erasoen kontrako onena bainatzea zen. Txorrotari begira lasaitu egiten zen, plisti-plastek segituan isildu balute bezala bere burua mintzera bultzatzen zuen barneko ahotsa. Zuen amak Donostian bizpahiru bainu egunean prestatzen zituen gehienez jota. Pentsa beste hiru basajaun ere bere bizkar zituela: otorduak prestatu, etxea txukundu, erosketak egin, arropa garbitu eta lisatu... batzuetan nahiago gatibu-lanak! Ba Covadongako *santina*k mirariak ematen omen dizkio bere fidelei eta zuen amonak bainuontzia edozein ordutan zeukan ur epelez bete, gatz aromatikoak eskura.

Gutxi balitz, bere gelan pasatzen zuen gaua, lo hartu arte abestu, bazkaria prestatu eta ahoan sartu, arropa eskuz garbitu eta Spock kapitainaren orbitazioa gelaz gela jarraitzen zuen herren bezain egoskor. Manoliri etengabe aurpegiratzen zion *behar* hura: «Auskalo nola artatuko duzun haurtxoa ni ez nagoenean».

Gatozen, ordea, berriz ere *abentura* gogoangarri hartara. Zuen amari etxetik irtetea baimendu zioten aldi bakanetakoa izan zen: aldameneko herrian bizi

ziren lehengusinei bisita egiteko. Eta tragedia sustatzeko, bigarren kasualitate bat: Ama Birjina egunean, Lita Julianak meza santura joan beharra zeukala sentitu zuen.

Kontua da, etxean utzi zintuztela Inurri Atomikoaren zaindari. Boxeolariek erabiltzen dituzten horietako kasko bat jantzarazi zenioten bolada batez anaiari.

Txeferen ideia izan zen. Kick-boxing-eko klase batean ikusi eta erosi egin zion. Horrela, kopetaz paretaren kontra etengabe jotzen zuenean babestu samar egoten zen. Edo mekanikoki izugarrizko ukabilkadak ematen zizkionean bere buruari masailean. Ez zegoen aurreikusteko modurik: bat-batean hasten zen oihuka eta ostiaka eta di-da batean zisko eginda geratuko zen, odoletan. Batzuetan hiru, lau edo bost bider egun berean. Gutxitan igarotzen zuen astebete bare.

Eta kaskoarekin eramaten zenuten kalera?

Ez, kaskorik gabe. Jendeak ez luke ulertuko.

Jakina: kasko eta guzti, eta jira-biraka, satelite bat emango luke!

Siesta bota ondoren ez zen asko mugitzen, erdi sorgortuta geratzen zen. Eta ni asper eginda nengoen. Txefe hango lagunekin alferkerian, eta nik Hodeirekin etxean egon behar!

Egun hartan eguraldi zoragarria egiten zuen, abuztuko egun eguzkitsu bat.

Abuztua, bai, baina zuretzat udaberri gisako bat: nerabezaroan sartu berria zinen, jakinguraz begiratzen hasia neskatxo lotsatiak ezkutatzen saiatzen ziren titiei. Nola zuen izena kasurik egiten ez zizun hark?

Sonia. *Hamalau urte zituen. Bilbotarra zen, eta hura ere urtero joaten zen familiarekin ElPueblora.*

Arratsalde osoan entzuten ari nintzen nesken ahotsak eta irriak, gure atarian eserita. Ispilu batekin begiratzen saiatu nintzen leihotik, baina ez nuen gauza handirik ikusi. Jaisteko desio geldiezina sentitu nuen.

Geldiezina: marka da gero!

Arazoa Hodei zen.

Seietako mezak hiru ordu laurden uzten zizkizun; eternitate bat, azkar iraungitzen ari zena. Baina goseak begiak argi: estrategia bikaina bururatu zitzaizun.

Hodeirekin jaitsi... Hodei gabe. Atariak bi ate zituen: bata kalekoa eta beste bat barrurago, gardena ez zena. Bigarren horren atzean utzi nuen eserita anaia eta neskekin eseri nintzen eguzkitan. Ez zen plan txarra: bizikide guztiak lanean edo elizan izango

ziren, ez zegoen Hodei jantzi beharrik ere. Etxean zebilen moduan eraman nuen.

Eskaileren ondoan zegoen leihoa ireki zenuen, txakurra auto barruan uzten denean bezala: anaia errukitsua zinen! Hala ere, ez zenituen E.T.ren jakinmina eta trebetasuna kontuan hartu edo ez zenizkion suposatu.

Baina, aurrera jarraitu aurretik, galdera bat: ba al dakizu ze hegazti den kukua? Besteen habietan haz-ten dena, gurasoek arrautzak sakabanatu egin dituztelako. Zuen artean zein ote zen txori arrotzen semea? Ba horrek jo zizun, kukuak! Erne: kristalaren zikinkeriari begiratzeaz nazkatu zenean, Straussen *Honela mintzatu zen Zaratustra* musikaz lagunduta bezala, belaun bat, gero bestea, heldulekuan eskua eta hara!... Platonen leizetik ideien mundurat jalgi zen Gizakumea. Eta, sinetsi egidazu, metafora ederra izango zen, juxtu ondoan mutil gazte koadrila bat egon izan ez balitz txorimalo argal haren agerpenak txundituta, galtzontzilo hutsean eta kasko urdina buruan lotuta.

Hodeik, nonbait, nabaritu egin zituen barreak eta urduri jarri zen.

Eta beti berdin, zapla: ukabilak itxi eta jo eta ke bere buruaren kontra.

Hasieran horrek gehiago harritu zituen, baten bat beldurtu ere bai.

Beldurtu? Bai zera! Haietako putakumeenak baloiaz bete-betean jo zuen aurpegian. Lurrera bota zuen.

Baloia etorri zen lekura begira geratu zen, hipnotizatuta. Ihes egin ordez zutitu egin zen. Horrelakoa zen Hodei.

Mundua ez dago autistentzat egina. Beste kabroi batek ondo apuntatu eta bularraldean asmatu zion berriz ere erorarazi. Gainontzekoei ere jolasa atsegin eta txuteka hasi ziren denak: fusilamendua, Bagdadeko obus euri-erauntsia.

Eta zu bitartean neskekin txoratuta, gertatzen ari zenaz ohartu gabe.

Hodeik ez zuen oihurik egin! Altxatzen zen bakoitzean bere burua astindu besterik ez zuen egiten.

Aitzakiarik ez, mesedez: Jainkoak meza motza agindu zion bere morroiari eta espero baino lehenago jarri zuen duintasunaren zaindaria etxeko bidean. Eta panorama izugarri harekin topo egin zuen. Superamona, hori furfuria! Inork ez zekien Lita Julianak nondik

atera zuen erratza, baina antzinako zaldunen antzera azaldu zen ezker eta eskuin kolpeka, bera bakarrik arerioen armadaren aurka.

Hodeik ez zuen zauririk: sustoa baino ez. Afalordura arte ez nintzen etxera igotzen ausartu. Lita Julianak ez zion inori azaldu Hodeiren urduritasunaren arrazoia. Ohi baino luzeago mantendu zuen bainugelan, lasaitzearren. Baina hala ere argi zegoen zerbait igarri zutela: afariak ehorzketa zirudien.

Amonak esan zuen arte:

– Pegaron al fillín.

Plateren gainean erori ziren mahai-tresnak.

Eta Lita Julianak izenak aletu zituen: heriotza kondenak.

Aulkia atzera bota zuen Txefek eta, amaren erreguei kasurik egin gabe, mendeku gosez irten zen etxetik. Han doa Batman, katamalorik gabe, maltzurren bila. Lita Julianaren gisara eraso zion banku batean eserita zegoen taldeari: isilik, zuzen, bera bakarrik etsaien erdian. Lehenengo mutila konorterik gabe utzi zuen kaskarreko itzel batez, bigarrenari bi ebakortzak erauzi zizkion, eta besteak ederki berotu. Kostata ezagutu zuen Amadeok seme nagusia, melee hartan ez baitzegoen bereizterik, esku, hanka, oin eta

beso nahaste zoroan. Mingaina lodi-lodi eginda bazihoan ere, belarritik tiraka eraman zuen Rocky bere gelaraino.

– Maletak prestatu. Bihar bagoaz.

Ez zenuen inoiz ulertu zergatik ez zintuzten zigortu. Funtsean zurea zen errua. Nolatan familiako inork ez zuen sekula santan kontua berriz aipatu?

Baga: Lita Juliana ez zenutelako berriz bizirik ikusi; negu hartan hil zen «mi fillín, mi fillín» errepikatzen zuela. Biga: Txefek ez zuelako arrazoirik bere barruan erein zuen gaizkiaren hazia hizpide hartzeko. Higa: zure gurasoek, harkaitzak baino mutuagoak, gertakari hura lurpean ezkutatu nahi zutelako.

Laga, boga, sega: logelan Manolik dena kontatu zion Amadeori, eta honek tinko ebatzi zuen:

– Hemendik aurrera giltzapean!, eta akabo arazoa.

Jendeak Hodeiren gaixotasuna antzematea ez zuen inoiz gustuko izan, baina hura izan zen, ingelesek dioten moduan, gameluaren bizkarra hautsi zuen azken lasto-izpia.

Zai, zoi, bele: emaztea intzirika hasi zen eta aurka egin zion suminez, lehoi-emea kumea babesten:

– Halakorik egiten saiatzen bazara dibortzioa eskatuko dut!

Patriarkak belarrondoko zakar batez erantzun zion: arma, tiro, PUN!

– Ezta brometan ere.

Manolik bazekien bizitza ez zela gaztetan amestu bezalakoa, ezkonberritan pentsatu modukoa. Aurreneko eta azkeneko belarrondoko hark, ordea, aurpegia birarazi zion, bere bizimoduaren benetako izaera erakutsiz. Ez zeukan aldatzerik.

Senarra oheratu eta gutxira nabarituko zuen bizkarrean ohiko ukitu grinatsua. Barkamena eskatu eta damua agertzeko zuen aitaren era, koreografia erraza eta xumea inposatzen ziona: ahoz gora jarri, kuleroak baldarki eranzten laga, senarraren mugimenduak jasan, arnasketa beroa, azkeneko geldiune laburra, zizpurua. Bero likatsua hankartean irrist, nazka; komuneko ispilua eta ezagutzen ez zuen aurpegia.

Baina aldi horretan Manoli ez zen mugitu ere egin. Amadeo berriz ere saiatu, baina bera, izututa, berriz ere irmo. Zuen aita nahastuta sentitu zuen eta harrotasuna zabaldu zitzaion barnean, aspaldiko partez garaipenaren eztia.

Biharamunean, Donostiarako bueltako bidaia bera izan zen benetako zigorra: nor bere penitentzia partikularrean murgilduta.

Ikusten al duzu zure txoriburu apetak nolako iskanbila sortu zuen? Dena Star Trek ez babesteagatik. Eta, aldiz, Txefe edozer egiteko prest Galaktikoa defendatzearren.

Ez esan lelokeriarik. Zer nahi duzu, Hodeirekin sartzen zen bakoitza jipoitzea? Ezagutzen ez zuenarentzat arraroa zen, eta nik hori ulertzen dut.

Itxaron: *arraroa* esan duzu? Salatu egin zaitu subkontzienteak. Maite izango bazenu, «xelebrea» edo «berezia» esango zenuke. «Arraroa» beti da ezkorra. Eta horrek nire hipotesia baieztatzen du, alegia, Txefek beti maitasun handiagoa erakutsi zuela Buzz Aldrinenganako zuk baino. Hori argi dago.

Guztiz deskuidatuta zaude! Txeferen arazoa –eta bide batez amarena– Hodei normal tratatu nahi izatea zen. Hodei ez da normala ezta anormala ere, autista baizik. Au-tis-ta.

Ezin diozu bere mailako autista bati normal hitz egin; bere munduan dago eta ez du gurearekin zer ikustekorik, ulertzen? Haurtxo bat bezalakoa da: jan egin nahi du, edan, korrika egin... atseginak zaizkion

gauza guztiak eskatzen ditu. Gainontzekoarekin ezer ez. Ama eta Txefe, jo eta ke, egunero berarekin hizketan, edozein aitzakiarekin sekulako jaiak egiten. Esaterako, Realaren golekin batera saltoka hasten zenean ematen zuen... ez dakit nik... lehenengo hitza esan berri zuela! Ez ziren konturatzen gaizki hezten ari zirela.

Eta zer egin behar zuten ba? Katez lotu? Eroetxean atxilotu? Suizidatu?

Autista bezala tratatu, hain zaila eta hain erraza: gaixo bat zela onartu eta ez kontra egin errealitateari. Hodei gaixo zegoen. Baina haiek normal tratatzen tematzen ziren, autismoa gaixotasuna dela aintzat hartu gabe. Nik maite nuen; maite izango ez nuen ba! Baita gure aitak ere, baina ezin genuen normal tratatu, besterik gabe. Ez dakizu zer den horrelako pertsona batekin bizitzea.

Ba ez, ez dut imajinatzen. Baina denborak, Jon Preciado jauna, demostratuko du zu ere oker zenbiltzala.

Ez etorri orain ikasgaiak ematen!

Egoskorra zara gero! Beste gertakari batzuk gogoraraziko dizkizut, urte batzuk geroxeagokoak: zuen Concorde sukaldean infinituko zerbaiti begira gelditu

da bat-batean; barre algara bota, salto txiki bat egin eta eskuak astintzen hasi da korrika. Amak eztul egin du eta mahaira itzuli da. Inor ez da ezer ere esaten ausartzen. Familia-bilera: aita, ama, anaia, Son Goku eta zu.

Maddi alde egin berria da.

Txefek ireki du meloia:

– Ze iruditu zaizue?

Bizkarra harrotuz, patriarkak zerbait bilatu du poltsikoan; Ducados bat atera eta bizpahiru aldiz jo du esku ahurraren kontra. Terroristak sua eman dio. Jaungoikoaren epaiaren zain daude denak. Lanpararen argiak dirdira egiten du Txeferen belarritakoetan.

– Beno –horrat Abrahamen hondar elea.

Lau letrekin pikutara bidali ditu zure amodio ametsak. Heriotza zigorra ebatzi du zuen harremanarentzat.

Amak aspaldi ziharduen estrategia egoki baten bila. Hori zen maitasuna!: zuretzat egokia baldin bazen, Manolirentzat ere bai.

– Neska ona dirudi –bitartekari lanak egin nahi ditu oraindik.

– Ergel hutsa da –esan dizu Txefek–. Eta zu beste bat.

– Zoaz popatik!

– Txefe, mesedez. Ezin duzu jendea horrela epaitu. Oraintxe ezagutu duzu...

Pokerreko tinba sekretu bateko giroa hartu du sukaldeak: aurpegi luzeak, tirabira, mesfidantza, ke zurrunbiloak. Amadeok zerbait bilatu du aho barruan mingainarekin, gero eskuarekin. Zigarroaren muturrak hiru zentimetroko hautsa pilatu du, baina ez da eroriko.

– *Andereño* bat da –epaile progresista, zuen ama. Hitz okerra erabili du, zentzu onean izan arren.

– Berdin dio – Txefek–. Zer espero zuen, eskuan musu ematea? Ez diozue nazka aurpegia nabaritu?

Bitxia da gero: zure etxekoak jatorrak direla pentsatuz joan da Maddi. Eta zure familian, aldiz, inor ez da amua irensteko bezain inozoa izan, ezta Alf bera ere.

Gauzak diren bezala esan behar dira: zortea izan zenuen. Bai, badakizu zertaz ari naizen: ia-ia ez zenuen astirik izan jostailu kuttunaren estatus hartaz gozatzeko. Gertatu zenagatik, diotsut. Eta bestela ere, zenbat iraungo zenuketen? Urtebete; apustu egitekotan: urte eta erdi, asko jota. Gizonak ezberdinak gara: prezio bat ordaintzen dugu denok, fideltasuna aukera-

ren falta besterik ez da. Emakumeek serioago hartzen dute jokoa: argi distiratsu eta zabalagoa eskaintzen duen farola aurkitzen dutenean, zaborretara zaharra, eta kito. Ados, bale, denok ez gara berdin-berdinak, baina gehienak bai. Bo... a ze lelokeriak!: ebasleak bakarrik uste du denak lapurrak direla, denok ez gara zu bezalakoak, denetarik dago munduan, eta abar. Badakit, matxista nazkagarri bat naizela esango didazu. Baina nik gaztigatzen ahal dizut: egoera zailetan zein komenentziazkoetan beti igual jokatzen dugu. Horregatik sinesten dut nik berdintasunean! Zer egingo dugu ba.

Edonola ere: zuen ama berehala altxatu da mahaia batzen jarraitzeko. Txefek ere zigarro bat piztu du. Juxtu momentu horretan, handik pasatu da Buzz Lightyear espazio-ontziarena egiten, infiniturantz baino haratago. Bi txingar laranjen iraungitzeak geldi-tu du.

– Ez erre hemen, umea dago-eta.

– Utziozu bakean. Ke pixka batek ez dio kalterik egingo.

– Erreko duzue kalean.

– Gure aitak ere gure aurrean erretzen zuen, eta denok berdin-berdin joan ginen meategira.

Amadeok ez dio Nasa koheteari begiratzen. Txefek bai: buruan laztandu, esertzen lagundu eta coca-cola botila jarri dio aurrean.

– Bi hilabete, ez dute gehiago iraungo. Printzesa laster aspertuko da eta akabo, ikusiko duzue.

– Ba niri gustura daudela iruditu zait. Jonek neska bat etxera ekartzen duen lehenengo aldia izan da. Ea zuk noiz ekartzen diguzun...

– Et-et, ez gaia aldatu.

– ...baina horretarako txima horiek kendu beharko dituzu.

– Ez hasi tontakeriekin...

– Ez horrela hitz egin zure amari!

Mahai gainean ukabil kolpea eman du aitak. Son Gohanek barre egin du, coca-colak burbuila gehiago lehertu dituelako botila barruan.

Maddi deseroso zegoen. Antzeman egin nion, baita nire gurasoei ere. Bost minutu besterik ez ziren izan; nahikoa nire familia bere mailan ez zegoela sentitzeko. Ez gaizki ulertu: nire familia, nire familia zen; baina, ez dakit, nahiago nuen berearen antzeko etxe handi bat izatea, bazkaria zerbitzatzeko neskame bat, Maddiri hori guztia ere eskaini ahal izateko.

Akaso lotsa pixka bat sentitu nuen ama amantalarekin ikusita, isilik egon ezin eta hortaz eta hartaz galdetzen. Ez zenuen Maddiren ama ezagutu, ezta? Koadrilako batek esaten duen moduan, TXEMA bat zen: Txortan Egiteko Moduko Ama. Polita, elegantea, karrerarekin, modernoa, sasoikoa... web porno bateko istorioetatik ateratakoa zirudien. Egunen batean horrelakoa izango zen Maddi: zoragarria. Harekin alderatuta, nire amak, zera... emakume zahar, lodi eta on bat zirudien. Ez nintzen lotsa, baina nolabait esatearren, ez nuen inolaz ere nahi Maddik nire amaren edo aitaren antzeko bihurtuko nintzela pentsatzea. Edo Txefe bezalakoa.

Txefek ez zuen ahoa ireki. Denbora osoa mutur luzez. Aita ere mutu, ohi baino serioago. Hodeiri behintzat gustatu zitzaion, hala uste dut.

Maddiren kotxerainoko bidea arraroa izan zen, magia zati bat galdu berri izan bagenu bezala. Ziur aski, orduantxe konturatu ginen mundu zeharo ezberdinetatik gentozela: puntu batean elkar topo egin dezakete bi pertsonak, baita maitemindu ere, baina denok gure zirkunstantziara lotuta gaudenez... Momentu hartan zerbaitek krak egin zuen gu bion artean, ez dakit argi esplikatzen naizen.

Primeran. Zuen aitak mutxikina hautsontzian zapaldu eta honelako zerbait bota zuen arnasots zakar horrekin:

– Suarekin jolasean ibiltzen dena erre egiten da beti. Jauntxoen mundua jauntxoentzat da, eta hala bedi.

– Bi hilabete, ez dute gehiago iraungo.

– Jon unibertsitatean dabil, Enpresa ikasten... Bizitzan gorantz egingo du. Zergatik ezin du neska horrekin egon?

– Unibertsitatera joan ez garenok tontolapikoak gara, ezta? Begira, ama: Jonek langile familia batekoa dela onartu behar du. Eta ez da ezer gertatzen. Ematen du gutaz lotsa dela, kabenzotz!

Txefek ospa egin du sukaldetik, solasaldi txepelaz gogaituta. Manoli suak igurzten ari da, marmar artean kantari; dena ongi doan plantak egitea egokitzen zaio beti. Zuen aitari, aldiz, esfingearena; beste Ducados bat erretzen hasi da, azpimarratuz bezala bera ere joan egingo dela gogoa etortzen zaion bezain pronto, eta segituan izan da, egongelako bere besaulkira alde egin baitu, telebistan zer dagoen ere asko inporta ez zaiola. Sateliteak, jakina, kasu putarik ez. Familia ere-

dugarria, benetan: aita matxista, ama sado-zalea, martin-jakintsu bat eta... natural-born killer bi.

Ez dakit zertan ari zaren nire familiaren kontura gaizki esaka. Begira egiozu zeure buruari: drogazalea zinen zu.

Ni drogazalea... ez dakizu zertaz ari zaren.

Ez bakarrik drogazalea: trafikantea!

Benefizentzian egiten nuen lan, babo arraioa. Droga prostituzioa baino zaharragoa da: animaliek hartzen ez dute ba! Sokrates eta enparauek duela bi mila urte ekin zioten bizitzari zentzua bilatzeari. Ez ziren ohartu kimikak ematen dizkigula erantzunak.

Aitzakiak.

Joder, beti beharko dugu zerbait: pilulak haurdun ez geratzeko, pilulak buruko mina kentzeko, pilulak argaltzeko, pilulak odola arintzeko, pilulak oroimena ez galtzeko, pilulak adinari aurre egiteko... zoriontasunaren pilulak denontzat! Txikiak dira, perfektuak dira, logo polit batekin apainduak: limoizko zoriontasuna, marrubizko zoriontasuna, kontenplaziozko zoriontasuna, orgasmikoa: denok zoriontsuak gure mundu zoriontsuan. Akabo rokanrolaren epika, botila zainak urratzen eta abar. Ez. Hori guzti hori atzean geratu da. Inork ez du xiringarik erabiltzen gaur egun. Zertarako?

Orain, gauza ñimiño bat ahoratu, ur tragoxka bat besterik ez eta kolokoia zuzenean burmuinera: subidoia, paradisua, paradisua, paradisua; eta gero bajoia, ohea, aste osoa narrasean... hurrengo asteburuko dosira iritsi arte. Zeru-mina. Asteburuetan askok eta askok opor-etxera aldatzeko ohitura duten bezala, edo eskiatzera, edo eskalatzera, edo surfera... halaxe guk ere: kimika papur batzuekin zorionera! Filosofo berriak gara!

Drogak berdindu egiten ditu klase sozialak, ezabatu ideologiak, politika, arrazak, interesak. Diru pixka bat osatuz gero, aise lortuko duzu linborako zure bidaia partikularra. Jainkoak ere ezin dizu oztoporik jarri. Halako hacker on batek atzeko ate bat utzi behar izan zuen libre, ezta? Eta ate hori zabaltzeko giltzaren moldea gaur egungo alkimistek deskubritu dute amets laborategietan. Horregatik debekatzen dizkigute drogak, hauxe delako sekretua: kimikak jainkotu egiten gaitu, jadanik ez dago beren aurrean zertan makurtu, ez dago zertan haiek gurtu. Zergatik saiatu zoriontasunaren bila, jo eta ke borrokatu, lortu baldin badaiteke diru eta esfortzu gutxirekin?

Edozein gizarteren logika hausten du drogak, lehen premisa faltsutuz: gezurra da zure bekokiko

izerdia dela bidea; ardatz nagusi horrek absurdora darama dena. Beraz, ez hasi orain aurreiritzi eta ergelkeriekin, nik zoriontasuna besterik ez bainuen saltzen. Besteak beste... zure Txefe maiteari.

Setatu zara nire anaiarekin!

Egia delako. Eta aditzeko falta zaizuna! Beraz, erne: erosketan niregana etorri zirenean, ezin zuten sumatu errusiar erruletan jokatzen ari zirela; bestela ez zuketen hainbeste barre egingo. Ederki egin genuen trukea: tori dirua, emadazu saria. Eta a ze saria, aizu! Yaba, *la chiave*, Firenzeko Santa Maria dei Fiori eliza irekiko zien giltza, *stairway to heaven* bezain *highway to hell* izan zitekeena.

Ez ziren bereziki arraroak zure anaia eta lagunak. Gaztetasunaren adorea pixka bat zimelduta, betiko mozorro abertzalearekin janzten ziren, betiko tabernetan bildu, manifak, ekintzak; baina barrutik, bakoitzak bere bide pertsonala hasia zuen. Eta azkenean, denon antzera, binomio sakratua praktikatzen zuten asteburuetan: bizitza alkoholean ito eta, langa eta lotsa kulturalak lurrera jaitsita, larrua jotzen saiatu.

Lokalera jo zuten seiek, sei koronel matxinoren gisan, arrosa bana baionetan. Sei uniformedun, sei

bota pare, sei putakume doktrinatu, bide okerretik, zerbait berri edo ezberdinaren bila.

Buruzagia Argala zen. Lokalean sartzean, Txefe, Jose Felix edo dena delako izena galdu egiten zuten, izengoitiaren alde: Argala naiz, Argala nauzue. Ez dut uste anaiak buruzagia izateko abilezia berezirik zuenik, baina kasu honetan ere indartsuenak, erotuenak eta fanatikoenak irabazia zuen koroa. Eta, gainera, yabaren berri izan zuen lehena ere bera zen.

– Speed, koka eta zuek nahi duzuena baino hobea da –esan zien lagunei–. Soldaduak erne mantentzeko erabiltzen zuten naziek.

– Bai zera! –Txikik berehala erakutsi zuen interesa eta edabe magikoa lortzeko mugitzen hasi zen. Alemana deitzen zioten auzoan, mutikotan urte batzuk kartoffeln artean emanak zituelako. Teutoiekiko lilura besterik ez zitzaion geratu, eta nazionalsozialismoaren aldarte soziala estalinismoa bezainbeste defenditzen zuen: batere ez! Taldean irakurketa politikoak eginak zituen bakarra zen baina ez pentsa, horrek ez du zertan ona izan, izatekotan alderantziz.

– Badirudi Thailandian, duela hogeita hamar urte, berriz ekoizten hasi zirela. Legala ere bazen!

Ez zuten motibazio gehiago behar. Antenak luzatuta, azkar heldu ziren Erromara, hau da, niregana. Muguruzak aurkitu ninduen: ezagun bat geneukan eta haren bitartez galdetu zidan. Eta nik, jakina, baietz. Nola ez nizkien, ba, aspirina gorri horietako batzuk lortuko? Lan gogorraren ondorioz landu nuen nire ospe bikaina, eta eutsi egin behar nion.

Orduan, irudika ezazu: negoziazio bizkor bat, nigana bisitan etorri eta astebetean erosketa itxi. Hortxe zeuden sei babo haiek antsia batean, poltsatxoko promesei irrikaz begira.

Gorriak. Globulu gorriak, babarrun gorriak, ezpain gorriak. Txikiak, dirdiratsuak, txanponen modukoak, Karonteri emateko-edo.

Eta beldurra airean: ausart horiek, gure heroiak, kikilduta. Zer egin? Baten batek beste nonbait egotea nahiago izango zuen: ez zekiten drogaren ustekabeko faktorearekin gozatzen. Esan beharrik ez dago: drogari bakarka egin behar zaio aurre, baina astazakil hauek taldeka egiten zuten dena.

– Beno, egurra edo zer? –urratsa ematen lehena Zabala izan zen.

Isiltasuna, ezbaia eta mesfidantza.

Poltsatxotik atera eta mahai gainean utzi zituen, ilaran, zer egin ongi ez zekiela. Gero, partxiseko fitxak balira bezala, bakoitzaren aurrean kokatu zuen bana. Ez zegoen atzera egiterik.

Hilabete luzea igaro zen Gizajoak berriz haiekin topo egin arte. Eta, zin degizut, unea ez zen batere atsegina izan. Amua barruraino irentsita, gustatu zitzaizkiela pentsatu nuen, eta gehiagoren bila zetozkidala. Aitortu behar dizut, dirutza irabazi nuela kaka harekin; beraz, zergatik ez pixka bat gehiago? Batzuetan, bai, pixka bat *es mucho*. Gogoan hartu Paracelso handiaren hitzok: dosiak egiten du pozoia.

Baina... beti dago *baina* bat. Ez zetozen tratu asmotan, ezta hurrik eman ere. Mendeku bila zebiltzan bulldog oldarkorrak! Txiki, Otaegi, Lasa, Zabala eta Argala ez ziren negoziatzera itzuli. Jada ez nintzen merkatu beltzeko lortzailerik trebeena, mezu zorrotz baten eramailea baizik, euskarria. Eta laburra zen garraiatzeko zuten mezua, 3 hitz, ume-jolasa: «Muguruza gogoan zaitugu». Izan ere, Muguruza bi metro lurpean zegoen.

Berehala konturatu nintzen hanka sartu nuela. Ez pentsa yabaren kontuagatik damututa nengoela: nire gordezulotik inolako babesik gabe irten nintzelako

baizik. Beraz, han nengoen ni, putakume horiekin aurrez aurre eta bakar-bakarrik, armarik gabe, borrokan hasiz gero, zero aukerarekin. Suizidioa.

– Ze kaka zuan eman higun hura? –Lasa lodiak, garrasika.

– Yaba, ergel hori! Ez zenuten yaba nahi? Ba yaba eman nizuen.

– Gure laguna hil egin duk!

Ze ostia erantzun behar nien ba? Enkargu berezia zen, zabor hori pasatzen nuen lehenengo aldia zen eta, gainera, nire erreferentziak ez ziren batere onak. Buruz ikasia neukan mila eta bostehun orrialdeko Escohotadoren liburukotea, esperientzia zabala ere banuen. Yaba bereziki Asiako hego-ekialdean kontsumitzen zela deskubritu nuen, bigarren mailako efektu latzak zituela: paranoia, suizidio saiakerak, eskizofrenia, hori da hori!

Droga osasunarentzat kaltegarria dela eta antzeko berriketa penagarria baztertuta, nire bezeroak ondo zaintzen nituen, benetan. Zaindu maite duzun hori, ulertzen? Eta nire ogibidea maite nuen. Norbait gauza arraro batekin setatzen bazen, bere arazoa zen, ez nirea. Eta haiek setatu egin ziren! Eskatu nien astakeria ordaindu ez zidaten ba!, fitsik ere esan gabe.

Hortaz, zergatik uko egin? Serio eta profesionaltzat jo nituen. Drogarekin ez da ez argibiderik ez garantiarik ematen. Eta batez ere, inoiz ez da dirurik itzultzen.

Enkargu bereziak onartzeagatik ezaguna zen nire izena Euskal Herri osoan. Munduko diktaduran, merkatu beltzeko Printzea nintzen, theArtist, nire aurreko izenak garrantzirik ez zuelako. Diruaren esku luzea nintzen, bere epaile zuzena: ordainduz gero, eskatzen duzuna eskatzen duzula, emango zaizu. Espainia eta Frantziatik ere etortzen zitzaizkidan!

Hasieran ez nintzen zure anaiaren koadrilaren beldur. Trankilak ziruditen, eta minutu pare baten buruan itzultzen ez banintzen, nire sozioak kontrolatuko zuen ea dena ondo zihoan. Ez nintzen besamotza, baita zera ere! Ohiko lantokia nuen leku hura, bulego baten gisakoa; bezeroak nituen ateko morroskoak ere. Beharrezkoa izanez gero, haiek defendatuko ninduten. Gainera, nire izaera negoziatzaileak estutasunik gabe aterako ninduen trantzetik, beste askotan bezala. Baina dena esaten hasita, aitortu behar dizut: pixka bat kolokatuta nengoen.

– Mutilak, lasai hartu. Benetan, sentitzen diat. Ez zuan nire errua izan. Ez raiatu. Pilula bat besterik ez zian hartu? Erabat ziur zaudete horregatik hil zela?

Orain ongi pentsatuta, badakit nire lelokeriak sinestezinak zirela. Izu-ikara batekin jabetu nintzen, ez zitzaidala aitzakiarik eskaintzeko geratzen. Deus ez. Droga ekarri nien eta, danba, haietako bat zerraldo erori zen zuzen-zuzenean. Ostia, horrelakoa da negozio hau, ezta? Uste nuen argi eta garbi zeudela arauak hastapenetik.

Oldarkorrena, Zabala, hurreratu zait; heldu alkandoratik eta astindu itzela eman dit, astiro esateko:

– Zer egin behar diagu hirekin, putakumea?

– Utz nazak bakean –neuk mehatxari, oraindik uste izanik dena kontrolpean dudala–. Zuek ere hartu zenuten eta ez dizue kalterik egin...!

– Goazemak beste leku erosoago batera –Lasak muki bat banintz bezala altxatu nau–. Han *hitz* egingo diagu patxada handiagoz –armairu handia da kabroi hori!

Zentzumen guztiak sorgortu dizkit drogak, nahiz eta bortitz sentitzen segitzen dudan izu-zirrara. Lasari aurka egiten saiatu naiz; hankei eraginez, ukabilkadez. Alferrik: kartarik gabe nago partida hasi denetik.

Saltsan sartu dira Argala eta Otaegi ere: bultzaka eta ostikoka, egur pixka bat eman didate: azkar eta profesionalki, kolpeak nondik erortzen zaizkidan au-

rreikusteko astirik eman gabe. Curriculum luzea dute halako liskarretan: denak bakar baten kontra.

– Obratara!– Mafiosoen antzera mintzatu da Argala, buruaren keinu batez lagunduz.

Arrastaka bahitu naute. Adio laguntza eskatzeko azken aukerari; inor ez dagoen ezleku batera naramate, lur eremu soil batera. Tokiak berak definitzen ditu haien asmoak. Harrituta gelditu naiz buru-estalkiak janzten ikusi ditudanean, blokeatuta: zer da hau!?

Aurreko eszena bera errepikatuko da, baina kuxkuxeroengandik urrun. Txorimalo apurtu bat naiz, otsoek inguratutako ardia, zulo batean gerriraino hondoratutako emazte desleiala... harrikatua izateko gertu.

Paparretik heldu dit Txikik:

– Hamar segundo dauzkak esan beharrekoak esateko.

– Lasai, mesedez. Ez duk nire errua izan. Nik ez zeukaat honetan zerikusirik... –kalte-ordainak nolabait pagatuko ditudala esan nahi diet, baina ez zait trikimailurik bururatzen, ez dago-eta galera konpontzeko modurik.

Txikik bere ego ñimiñoa puzten dihardu: txorakeria hutsalak botaz, purrustaka jarraitzen du, besterik gabe kolpeka hasteko ez baitauzka ondo jarriak.

– Hamarretik bost xahutu dituk. Ez daukak astirik gezurrak asmatzeko. Hasi hadi fundamentuzko zerbait esaten. Izen bat, leku bat...

Arrazoiak behar ditu berotzeko, hitzak; eta hitzez hitz hauspotzen du bere sumina, gero eta erreago, gorroto txinpart bihurtzeraino. Behin lehenengo muturrekoa emanda, hurrengoak errazak dira: inertziaz irteten dira.

– Izen bat, esango dizuet izen bat –baretzen saiatu naiz, ihes egiteko ditudan aukera urriak kalkulatzen.

Beranduegi: abisurik gabe buruz kolpatu nau ahoan; agortu zaizkit hamar segundoak. Kolokoia puntu gorenean dagoenean heldu zait, ate danbada baten antzera. Jadanik ez naiz hitz egiteko ere gai. Ezpainak odoletan antzeman ditut, hegazkin batetik jaurtita bezalaxe erori naiz lurrera. Handik gertu, pixka bat beherago, berehala dago... infernua.

Ezin diot gertakarien hariari jarraitu: erabat txundituta begiratzen diet, une batetik bestera den-dena hortxe bertan bukatuko dela intuitu ezinik.

Zure anaiak, Argalak, oinazez makurtuta nagoela, mailuz joa dirudien ezkerreko bat eman dit matrail hezurrean. Ulertzen duzu orain, zertara joaten zen kickboxingera? Cocoon-i kaskoa erostera, bai zera!

Lurretik zutitzen saiatu orduko jaso dut belauneko bat sorbaldan, intentzio handiz baina min txikiz. Untxi bat naiz, lau hankatan. Bota militarrak ikusten ditut alde guztietan, berunezko puntadunak. Haietako batek, ez dakit zeinek, atzera egin du, abiada hartu eta ostiko batez kraskatu dit sudurra.

Gauzak astiroegi gertatzen ari diren sentipena daukat, B-serieko filmetako kamera geldoan: izerdi, listu eta odol zipriztinak airean barreiatzen.

Bota-mutur blindatu batek masailean asmatu dit. Klonk batez barrura sartu zait hezurra. Luze-zabal erori naiz lurrera, azkeneko aldiz. Ostiko gehiago; beste batek hortzak erauzi dizkit, hurrengoak tinpanoa hautsi. Gizajo bat naiz! Konortea ere galdua dut dagoeneko.

Zure anaiak, bai, hori da, harroputzenak antolatu zuen akelarre makabroa: diskotekatik kanpora erakartzearena eta obratara eramatearena. Odol hotzean. Hori da zuk ikusi zenuena, hain juxtu ere: nola garbitu

ninduten putakume horiek, puta zikinen zerrikume horiek!

Gogoratu zaitez: kolpe, odol eta herio orgiak isiltasun osoan segitzen du. Ez dute tutik ere esaten. Talka bakoitzaren hotsa, gauaren erregea. Gizaki ahotsik ez, estertorerik ere ez. Norbaitek grabatu izan balu snuff movie hau, harategiko soinu banda izango luke. Honela entzuten da heriotza: txaf, txaf, txaf.

Oraindik ostikoka dabiltza, aspaldi akabatu banaute ere; ez dira jabetu noraino iritsi diren. Azkenean, besteak bezain sadikoa ez den bakarra konturatu da zerbait *handia* egin dutela.

– Aski da! –Otaegik, kikilduta–. Goazen hemendik lehenbailehen.

Zure Txefe, Captain America maitea, azkenean bera ere ohartu da sekulakoa izan dela jipoia. Aktore ona balitz, malkotxoren bat isuriko zukeen, kabroiak, poxpolintxoaren galeragatik! Ziur zaude anaia ez zela gay? *Katemea teilatu gainean* antzezlana gogorarazten dit mendeku premia honek.

Ase da haien kontzientzia. Ondratu dute memoria: hilik dago Muguruza, baina kabroi hau, onik ateratzen bada, betiko oroituko da gutaz.

Begira, begira... bizitza nola badoan.

Beti aurrera baitoa bizitza: lokalera itzuli dira eta kristoren mozkorra harrapatu dute. Oroimen selektiboak lanak izango ditu hurrengo egunetan; azkenean, nolanahi dela ere, errutina gailenduko da erailketaren adrenalina disolbatuz.

Ez dago pelikula berrabiarazteko irudirik, ez dago ez burutazio gaiztorik ez kontzientzia txarrik. Ahulen kontuak dira horiek. Egin egin behar zen eta egin egin dute. Mandatua bete da. Eta hemendik aurrera, beste lagun bati antzeko zerbait gertatuz gero, denak ziur daude *vendetta* izango dela.

Anaidia izanda, erlijio guztietan bezala, heriotzaren ondoko bizitzaz arduratzen dira; badakizu, Biblia, Talmud eta antzeko argibide-liburuetan etorkizuna besterik ez

ZARA

Urriko egun bat. Unibertsitatean geratuta zaudete, gogoratzen? Maddik bi aste besterik ez ditu egin gidabaimenarekin; egun bat gutxiago bere BMW berri eta txikitxoak. Kapitala maneiatzearen abantailak.

Martxan jarri gara, norabiderik gabe. Isilik goaz, isiltasun deseroso eta errudun batean. Ustez, dena aitortu ondoren hobe sentitu behar nuke, baina ez da hala izan. Orain presio bikoitza sentitzen dut, berak ere muturra sartzen baitu: etengabe bere iritzia azaltzen dit, bere logika. Kontzientziaren ahotsa ez da baretu, eta okerragoa dena, orain Maddik bozgorailua jarri dio.

– Pentsatu duzu? –zenbat maite zenituen lehen «z» txistukari eta «ts» dotore haiek.

Ez diot erantzun. Zer pentsatu? Nire anaia da; ezin dut, besterik gabe, Poliziarengana jo. Zer esango luke amak? Zer esango nioke aitari? Familia desegingo nuke.

Donostiako auto-ilara klasikoa. Irratia itzali du bestelako zaratei bidea emanez: klaxonak, motorrak, frenoak.

Maddirentzat askoz errazagoa da: etika, justizia. Aire hutsa diren horietako hitzak, balio abstraktuak,

jateko ematen ez dutenak. Hitzek ez dute ezertarako balio.

Nola ez dutela balio? Barrutik usteltzen ari zarela lehendik antzeman arren, medikuak orain ahoskatutako *minbizia* hitzak seguru zartatuko dizula burua. Beraz, berdin harreman batean: bost axola *benetan* zer egin duzun; saia zaitez besteari adierazten, orein bihurtu duzula. Baina ekintzak kamustua du zure ahoa. Ez ahaztu: hitzek ertzak dituzte, perspektibak; hitzei testuingurua datxekie, denbora zehatz bat. Hitzekin harrapatzen gaituzte goikoek, aire beroarekin azken finean, eta hitzen izenean sakrifikatzen dute bizitza. Dugu.

Bai zera! Hitzek ez nindukete korapilo hartatik askatuko. Begira zer ekarri zuten hitzek: gehiago nahastea! Begira Maddiri eta denetarik duen pertsona baten idealismoari. Esana dizut: hitz hutsez osatutakoa, bizitzatik urrun. Eta nik pentsatzen nuen: zer lortuko nuke Poliziarekin hitz egitera joanez gero? Hildakoa ez dugu berpiztuko. Lurpean jarraituko du, bi metrotara, har artean, mugitu gabe. Poliziara joanez gero, bat izan beharrean bi izorratuko ditugu. Txeferi urte pilo bat eroriko zaizkio. Eta «piloa» asko dira. Telebistan behin eta berriro errepikatzen dute hilketa terrorista bat

izan dela; horrek zigorra osorik betetzea esan nahi du, hirugarren gradua hartzeko aukerarik gabe. Hogeita hamar urte; neuk egingo dizut kalkulua: 10.950 egun. Eta hori bider 24 ordu = 262.800.

Bereak egin du! Hobe zuen beste biktima mota bat hautatzea, ez hain deigarria. Pentsa: pederastek, bortxatzaileek edota serieko hiltzaileek urte batzuk desgrabatzen dituzte. Izorrai! Bazuen lehenago pentsatzea.

Ez dago Zuzenbidea ikasi beharrik, kartzelatik ateratzean zain izango lukeena igartzeko. Gizarteak ez du ahazten, ez. Bat egingo duzu, bai, baina hamaika pagatu... eta bizitza osoan!

Gure Txefe gaixoa. Okindegian imajinatzen dut:

– Ez da hori barruan egon zena?

Supermerkatuan:

– Jexux, ezetz asmatu nor ikusi dudan? Mutil hura akabatu zuena, gogoratzen? Baaai, orain dela... buf, Donostian... ETAkidea zena.

Eta kartzelatik pasatzeak ondorioak uzten ditu betiko.

Ondorio sakonak, zentzu guztietan gainera, karkar. Baina itzul gaitezen zure eszenara, haria eten egin didazu-eta:

Zure Maddi maitea azkenean ohartu da zer esan nahi duen kristaletik kanpora tinko begiratzeak. Indartsu heltzen dio bolanteari. Tentsioko arratsaldea; ez dago jadanik maitasun muxuentzako lekurik; isilean jarraitu duzue luze.

Haizea beti alde izaten ohituegi zegoen...

Hara bestea! Ez zenuen Maddi batere ezagutzen! Oker zabiltza, beti berdin. Errazagoa da jendea karpeta estu eta mehe bakar batean sailkatzea, arantzen artean bilatzea baino. Bai, behin aitortu zizun, loak hartzeko istorio bitxiak asmatzen zituela gauean; esaterako, istripu batean zeuk salbatzen zenuela. Gaztea zen eta momentu hartan maiteminduta zegoen. Momentu hartan esan dizut... ez betiko. Entzun: baliteke Maddik denetarik edukitzea, baina alaitasun eta erraztasun haien azpian gauza asko ezkutatzen ziren. Bere zaharra, Juanmari Jauregizar, artean ez zen bizitzan nahikoa igo seme-alaben gertutasuna botere-jokoekin ordezkatzeko adina. Etxeko-lanak ederki beteta: egoskor moldatuak zituen Maddi eta neba, ume langileak. Ez ahaztu antzinako leinu bateko kideak zirela. Horrek halabeharrez exijitzen die belaunaldiz belaunaldi ardi beltzak detektatzea, bakartzea eta erauztea: gupidarik gabe, medikuek minbizi zelulak bezala. Nola eutsi,

bestela, egitura politikoek baino luzeago? Portaera hori, biziera, genetikoki transmititzen dute.

Argi dago Maddik eta nebak batzuetan arinkeriaz jokatzen zutela, hala ere ederki barneratutako mugak zeharkatu gabe. Ulertzen behingoz nire zalantzak zeuen etorkizunaren inguruan?

Biharamunean eszena errepikatu egingo da. Ezinezkoa zaizue harremana *arazotik* kanpo mantentzea. Siamdar bat daramazue arrastaka: egiten duzuena egiten duzuela, beti daukazue atentzioa eskatzen; pisu astun bat lepotik zintzilik, eta zuek amildegi ertzean oin-puntetan.

Unibertsitatean zaudete, kafetegi atzean dagoen bankuan eguzkitan. Erretzen ari da Maddi. Miretsi ere egin izan zenuen zigarroari eusteko bere estilo zoragarria; maitasunak itsutu egiten gaitu, eta arrazoi berberagatik, biziki gorroto duzu bere ke jarioa oraingoan. Ideia bat besterik ez duzu buruan bueltaka: desagertzeko premia. Hiritik, herrialdetik, bizitzatik.

Zure azukre koxkorraren lagun bat hurbildu zaizue: Alberto Urrutia. Maddiren taldearekin bageunde, aita nor den eta ze enpresa zuzentzen duen zehaztuko nizuke, denok kontakizunean hobe kokatzeko; aberatsek ez dute izen-abizenekin nahikoa. Begi-keinue-

kin mundua biratu nahi duen horietakoa da morroi hau, ez berak uste duen bezain ederra, ezta cool-en tribuaren ale berezia ere: James Dean gurea zeruan zarena, Tommy Hillfucker jertsea lepoan, alkandora irekita, Hard-Rock kamiseta praketatik aterata, galtzontzilo koadrodunak agerian. Iraulpijoek ez dute mutazioz eboluzionatu, diruz baizik.

Kabroi horrek fitxa asko sartu zizkion Maddiri, gu elkarrekin hasi baino lehen; geroago ere bai, ziur nago. Momentu horretan, beste aukerarik ez zuenez, lagun onenaren papera jokatzen ari zen. Haren aholkua, esan gabe doa, beti nire kontra. Sasikumea.

Laguna aldameneratu orduko, Maddik utzi egin dio bakarrizketa hutsalari, deseroso.

Usain txarra hartzen diot.

Albertok zalantzan dirudi, baina azkenean, agurrik egin gabe, Superheroien antzera esan dizu:

– Terrorista. Terroristak, zu eta zure anaia puta hori!

Ez da *j'accuse* bat: iraindu egin nahi zaitu, erronka bota. Gogoratzen hitzen inguruan irakatsi dizudana? Ba, hitz horiek zizta egin diote zuen maitasunaren puxikari eta airea eskapatzen hasi da. Fiuuu...

Maddiri begiratu diot. Ezin dut sinetsi: nire sekretua kontatu al dio? Gure maitasuna hondartzako gaztelu bat balitz, momentu horretan marea heltzen ariko zen, behetik bustitzen hasita. Poliki-poliki desegingo zen, deformatuz, desitxuratuz, itsusiago eginez, azken olatu batek erabat lau utzi arte.

Kabroi horri kontatu dio. Kabroi horri eta auskalo zenbat gehiagori.

– Terrorista –azpimarratu du harrotuta; Maddirentzat antzezten ari da, jakinik lagunak atzean begira dituela. Boteretsua sentitzen da, zilegitasunaren esku zorrotza, John Wayne.

Kalkulu akats larria egin du, ordea. Erabat ahaztu du nongoa zaren, zure auzoan muturra berotuz ematen dizkizuetela lezioak. Lehenengo ikasgaia: aurreneko kolpea beti zeuk eman. Eta halaxe izan da: ez zuen espero eta hondoraino irentsi du zure ukabila. Lurrera erori da. Maddiren garrasiak. Alberto heroi mitikoa zutitzen saiatu da, Rocky odoletan, jaiki ezinik. Karate, tae-kwondo, kick-boxing eta antzeko kakek ez dute kale-katuen babes-instintuaren kontra ezer egiterik.

Ez dago borrokarik, ez du merezi. Bizkarra eman diot: badakit ez duela potrorik atzetik etortzeko. Soberan daki neu naizela galtzailea.

Zimeltzen ari da lorea.

Pott eginda zaude. Kostata heldu zara bus geralekura.

Jadanik ez da nire arazoa bakarrik. Kaiku hori edo Maddi Poliziara joango balira, marroi batean egongo nintzateke neu ere. Konplizea; eta gauzak diren moduan, banda armatuarekin kolaborazioa eta guzti sartuko lidakete, han txalotzen edo laguntzen egon izan banintz bezala, gorpua hozten ari zela ziurtatzen edo. Akabo.

Autobuseko bidaztiei erreparatu diezu; beren bizitzekin jarraituko dute zure arazoen aurrean ezaxola. Lehen eta azken aldiz begiratu diezu.

Munduak ni gabe ere berdin-berdin segituko du. Deprimituta nago. Ez dut haserretzeko indarrik. Are txarrago: haserrealdiak etorri eta joan egiten dira, dezepzioa ez. Herdoildura da dezepzioa: ez dago atzera bueltarik, burdina gogorrena ere urratu egiten du azkenean. Talde bat izateari utzi diogu, agortu dira konfiantza, batasuna, enpatia, koordinazioa. Bakarrik nago. Agian horrela behar nuen hasieratik.

Zortea kontran izan duzu horretan ere: sumin eguna ostirala izan da eta larunbat goizera arte ez du

mugikorrak jotzen. Tonu bat, bi, hamaika; karrankari, erregular, setati.

Ez naiz hartzen ausartzen. Baina ezin dut iheska ibili.

– Bai?

– Kaixo.

Zuri dagokizu solasari ekitea, berak eman du deitzeko pausoa.

– Zer moduz? –kakati, kakati, kakati.

– Uste dut hitz egin behar dugula.

– Ari gara –une okerra ironiaz jarduteko.

– Telefonoz ez, mesedez. Geratuko gara? Orain?

Kabroi horrek bere kartak jokatzen jarraitzen du, anaia eta biok izorratzen. Mugikorra estutu dut eta baietz erantzun diot.

Zer da telefonoz esan nahi ez duen hori? Zirrara sentitu dut. Harremana uzteko ere pija hutsa da.

– Non?

– Uni-ko aldapan, betiko lekuan, lauretan.

– Ados.

Agurtzeko hitz goxoren bat bota dut faltan; ez «muxu bat» ez ezer. Amaitzen ari dela sentitzeak mina egiten dit. Ez dakit beragatik den, nigatik, biongatik.

Autobusa berriz: arratsaldea. Gidaria eta hiruzpalau bidaide. Argi gehiegi leihoetatik barrena.

Kalera begira noa. Beste autobus batekin gurutzatzean, pentsamendu bitxia: zuetako inork ez luke esango morroi bat hiltzen ikusi dudala anaia.

Eszena izugarri ondo ikusten dut orain; zalantza izpirik ere ez: bota zaharrak, Txeferen gorpuzkera, forropolar gorria. Gehien jotzen duena. Ankerkeriaz, besteek gelditu behar izateraino.

Dagokidan aurreko geltokian geratu naiz; oinez joan nahi dut tarte batez, minaren momentua atzeratzeko edo.

Kursaaleko kuboak atzean utzi dituzu; ibiltariz lepo dago paseoa: amatxoak umeekin, korrikalari parea, jubilatuak itsasoari begira, jendea presaka eta turistaren bat: *love is in the air*. Hiri perfektuaren postalak.

Heltzen lehena izan naiz. Urduri nago; ematen du gure aurreneko aldia dela.

Iritsi da Maddi. Minigona beige bat aukeratu du ospakizunerako, alkandora urdin argia, jaka tailatua, zapi fina lepoan, poltsa txikia eskuan, gainontzeko osagarriak urdinez eta sandalia takoidunak, elegante baina polit: *pinpirin*pausa. Urduri dirudi; ez dakar irri-

barrerik. Bizpahiru metrotara geratu da, urrun, oso urrun.

Ez dit muxurik emango. Zutitu egin naiz eta hitzik egin gabe ibilian hasi gara. Ez dakit zer esan. Korapilo bat sentitzen dut eztarrian buxatuta.

Minutua igaro da, eta bi, eta hamar. Isilik jarraitzen duzuela pentsatzen segitzeko seiehun segundo.

Ez naiz inoiz Maddiri eskutik helduta joan. Normalean besarkatuta ibili izan ginen, nik berari lepotik helduta, noizean behin garondoa laztantzen. Gorputz arrotza egiten zait; orain ez dakigu elkarren ondoan ze distantzia mantendu.

Ez du luzatzea merezi. Normandiako hondartzari begira dauden soldaduak dirudizue, lehorreratzeko zain. Tiro hotsak, olatuak odoletan, eta zuek itsasoan kulunkan, itxaroten. Blindatuaren atea ireki egin da, kaporala garrasika.

– Zergatik kontatu diozu?

– Barrenak hustu behar nituen.

– Baina zergatik *berari*?

Ama Birjinak aurpegia estali du eskuekin, negarrez hasi da. Tableroa iraulita: hori da hori xake partida irabazteko modua! Bizkarra eman dizu, dardarka.

Ez dakit besarkatzerik badudan, uki dezakedan, kontsolatu nahi dudan. Bizitza arrotza egiten zait, eszena hau lupa baten bitartez ikusten ari banintz bezala. Bularrean hutsunea antzematen dut eta saiatuta ere ezin dut ezer adierazi.

Malkoz bustitako aurpegi eder horrekin begiratu dizu. Eta segidan esango dizunak oinaze mikatz bat eragingo dizu.

– Jon, ezin dut horrela jarraitu.

Irribarre ergel bat besterik ez zait atera. Utzi egingo nau.

– Ziur al zaude ez duzula Poliziara joan nahi? –atea zirrikitu ñimiño bat irekita itxi dizu mutur aurrean.

Medium bat da eta bere ahotik Alberto hitz egiten ari da. Putasemea.

– Ez dakit benetan bera hiltzaileetako bat izan ote zen. Gainera, Txefe nire anaia da. Salaketarekin inork ez luke ezer irabaziko, dena galdu baizik.

– Mutil bat hil zuen, *Jon*.

– Ez zegoen bakarrik!

Maddik aurrera begiratzen du, serio. Gizateria salbatuko duen sakrifizioa deklamatuko du orain Scarlett O'Harak. Entzun nola gora egiten duten biolinek, momentu gogoangarria nabarmentzeko.

– Orduan geu joango gara.

– Badakizu horrela marroian sartuko nauzula.

– Baina konturatu behar duzu...

Damua da eskaintzen didan aukera bakarra; are gehiago: heretikoei bezala, damutzea eta egiazko fede katoliko barruan hil ahal izatea. Borreroaren aizkorari ahoa ur bihurtu zaio; bost axola infernuan ustel-tzeak!

Maddirentzat bere eta bere familiaren ohoreak du lehentasuna; Corleone klanekoa zara zu ere.

– Justizia, *Jon*.

– Oso hitz polita da, bai. Eta zer gertatuko da nire familiarekin? Eta Hodeirekin?

– Eta zer... mutil gizajo horren gurasoekin?

Kursaaletik Antiguaraino garbi eta ozen zabaldu da harrabotsa: katedraleko beiratea eztandaz milaka zatitan puskatua. Krask.

Planak, promesak, laztanak, denak batera lehertu zaizkigu. Kito.

Maddik badaki ez dagoela esateko besterik.

Muxu bat masailean emateko ezbaia igarri diot.

Eskua ukitu dizu astiro, eta buelta emanda, alde egin du. Azkar urrutiratu da; takoien ziztadak gero eta samurrago txertatzen dira hiriaren algaran. Minutu

bete barru beste neska bat irudituko zaizu urrunean, ez zenuke esango bera denik. Alde egin dizu betiko.

Hilabete atzera begira, dena ondo zegoen. Eta orain, beste batzuen tragedia batek pikutara bidali gaitu. Ez naiz ezeren erruduna, baina bizitzaren zurrunbiloak konturatu gabe etorkizuna eta proiektuak irentsi dizkit.

Justizia hitza okertuta dago; perspektibaren arabera konbexu edo konkabo ikusiko duzu. Amodio hondakinen artean, nerabezaroko olerkari penagarria berpiztu zait: this is the end, my only friend.

AUTO BATEK GAZTE BAT HARRAPATU DU BART GAUEAN DONOSTIAN

Egunkarietan istripu bat gehiago besterik ez zen izan. Kausa arrunta: frenoak gaizki muntatuta zeramatzan. Baina ez zuten garrantzitsuena zena aipatu: kolokoia, gidariarena eta harekin zihoazen lagunen mozkorra. Kazetariek, edo ez zekitelako edo ondo baino hobeto bazekitelako, ez zuten esan nor zen, ze abizen zituen. Ezta biktima haren arrebaren mutil ohia zela ere. Deus ez. Ezin zaio morboa ukatu. Aste batzuk

igaro beharko zuten, kazetari zirikatzaileren bat ausartu arte.

– He-man, hasi SLKrekin. Kolpetxo bat dik txapan. Aprobetxa ezak errebisio osoa egiteko.

– Ados, nire kontu.

Eta Txefek bere kabutan: *Lasak esan duenez, dena lasai dago azkenean... Kristoren ostia txapan... Nola arraio izan ote da? Ez dago hau konpontzerik. Hegala aldatu beharko zaio oso-osorik. Umm... eta ate bat ere bai. Izorra dadila, gehiago kobratuko diogu putaseme horri.*

MIKEL RUIZEN USTEZKO HILTZAILEA
ATXILOTU DUTE

– Hegala da, nagusi. Hegala eta gidariaren atea ere bai. Hori bai, txapa besterik ez. Beno, argi keinukaria ere izorratuta dauka, baina gainerakoan ondo.

– Ba idatz ezak eta hasi berehala, ostia; honek presa zaukak. Bezero inportante baten semea duk; beraz, badakik, sar ezak egurra, atzorako bukatuta nahi diat-eta.

– Ez dut oraindik Copa Turboarekin bukatu.

– Popatik hartzera erlikia hori! Hasi SLKrekin eta gero gerokoak. Argi zagok?

– Bai, bai, nire kontu.

Horrelako atxiloketa batean, Ertzaintzak normalean ez du antolatzen yankiek hain gustuko duten telebistarako ikuskizunik, badakizu: estrak, jaka urdinak atzean FBI letrak horiz, dekoratuak, beisbol kapelak, tiroak eta gidari suizidak autopista kolapsatuetan. Askoz errazagoa da.

TALDE ARMATUAN PARTE HARTZEAZ ERE AKUSATUKO DUTE

Eskerrak Lasak kontaktuak dituen txakurtegian. Kabroi halakoa, ondo baino hobeto mugitzen da hori kalean.

Hori makina! Kabroi honen aitatxok sekulako dirutza izango du! Ez dakit nor izango den, baina polita autoa, dios, Koni horiek izugarriak dira; esekidura gogorra, txasis baxua... ondo tuneatuta dago bonba hau, bai jauna. Pijo higuingarri bat izango da, gidabaimena atera berri duena. Beti berdin. Alonso edo Ayrton Sennaren posterra izango du gelan zintzilik. Mirariak egingo nituzke honekin, mirariak! Aitatxok lasterketako

autoa nahiko zuen, baina, amatxo beldur zenez, erdiko bidea adostuko zuten: deportiboa, segurua eta dotorea. Nazkagarriak!

GIDARIA IHES EGITEN SAIATU ARREN...

Berton ez, berton ez dute lan gehiegi egin nahi: heldu bezain pronto blokeatzen dituzte sarrera guztiak. Ez dago ez estrarik ez jaka urdin atzean FBI letra horirik. Dekoraturik gabe doaz, beisbol kapelen ordez kaskoak. Ez da gidari suizidarik izango autopista kolapsatuetan. Berton folklorikoagoak gara, erregionalistak. Poliziek txapela daramate, euskal labela paparrean; atxiloketak trikiti erritmoan egiten dituzte, eskubideak zortziko handian irakurri, Ertzain-etxeetan aurreskua dantzarazi. Esan gabe doa, albisteetan zuzenean erakutsiko dute zure aurpegia, errugabetasun presuntziorik gabe. Zertarako?, denok ezagutzen dugu elkar.

Txefe auto barruan sartu da: larru beltzezko tapizerian, gidariaren eserlekuan, erredura baten marka. Txirri baten arrastoa. *Nola da posible?*

AZKEN ATENTATUKO ETAKIDEAREN ANAIA ZEN

Operazioa koordinatzen duena sartu da tailerreko bulegoan. Nagusiak harrituta begiratzen dio, ez baitu ezagutzen.

– Kaixo. Hemen al dago Jose Felix Preciado?

Deitura ofiziala arrotza egin zaio nagusiari.

JENDARTEAN EZINEGONA PIZTU ZUEN KASUA ARGITU DA

Zure anaia kartzelan. Anaia barrura bidali duzu eta gorotza baino zikinago sentitzen zara.

Isilik egon izan banintz!

Albistea paperetan argitaratu dute. Alde edo kontra, ez dago inor bere iritzia eman ez duena. Herri honetan denok gara futbol entrenatzaileak eta epaileak; kasu bietan, irakurtzen jakitea ez da derrigorrezkoa, ezta baloi bat edo zuzenbide liburu bat gertutik ikusi izana ere.

– A, begira, hortxe doa kale borroka morroiaren anaia. Bai, ostia, gizajo hura nola garbitu zuten ikusi zuena.

– Ezetz asmatu zein ikusi dudan! Neska-lagunak anaia salatu zion mutila! Bai, ETAkide hura, Mikel Ruiz akabatu zuena... ba, haren anaia. Gogoratzen?

Txefe tailerrean atxilotu arren, berehala zabaldu da auzoan. Vox populi, bolo-bolo... xuxurlan, marmar artean, txutxu-mutxuka. Ibili ahala, begi zorrotzez betetako horma bat altxatu zaizu inguruan, isil baina mehatxagarria, Moisesen uren gisakoa. Bakardadea bakartiagoa da jende artean. Izugarria da bizitza zeinen bizkor alda daitekeen. Behar ez zenuen lekuan egoteagatik, zaborretara.

– Isilik egoteko eskubidea duzu...

Baina ze ostia? Nork esan die?

– ...abokatu baten aurrean...

Kabenzotz!, ez dut ezer ulertzen. Putza!, hanka sartu dut barru-barruraino. Neuk bakarrik jango dut marroi osoa!

POLIZIAREN ARABERA KOMANDO LEGAL BATEKO KIDEA ZEN

Derrepente immobilizatu dute: begiak kliskatzeko astirik ere ez. Pistolak erabiltzeko irrikaz, hatz urduriak katuak laztantzen. Agenteak tiro egiteko gogotsu

daude buru-estalkien azpian. Prest, tenk. Komisarioa bulegoan sartu eta aurpegi serioa duen gizon batekin mintzo da.

LITEKEENA DA ZELULA TERRORISTA ISOLATU BAT IZATEA

Ostiral gaua deskonektatzeko: lagunak, nesken ametsak, alkohola; ohikoa. Bai zera: ez duzu umorerik, mozkortzeko gogorik ere ez. Jende-fobia. Eta barne ahots madarikatu hori, bizitza normalera itzuli behar duzula gogoratzen. Ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Agian mutur luze horregatik lortu duzu mando-artaldea Alde Zaharretik ateratzea. Hondartzako diskotekak, Loliten ehiza!

Donostitiak: bular handiak, txikiak, kolore biziko jantziak, takoiak, lepokoak, sabel eta sorbalda biluziak. Lehoia zara antilopez betetako sabanaren erdian. Biktima hautatzea da konplikatua, azkarregi igarotzen zaizkizu-eta aurretik, edo urrunegi: aurora borealak.

Bat aukeratu! Eskolan ez da ligatzen ikasten. Zer esan? Begiratu eta desiratu, ez dakizu besterik egiten.

Azkenean hurbildu zara. Nola esan ohera eramateko amorratzen zaudela?, bahitu egingo zenukeela?, kamiseta erauzi nahi diozula, minigona urratu, gorputz osoa zupatu, laztandu, zureganatu?

Ze bakarrik gauden bizitzan eta ze zaila den onartzea.

Maddi ligatzen ariko da non edo non. Eta zuk, zuk ezin duzu neskato gazte bat bera ere liluratu. Euforia samin bilakatzen zaizu; eusten zizun gezurra aire hutsa besterik ez da: zuretzat porrota da askatasuna. Maddiren ondoren, dena doa maldan behera.

Etxerako bidea: galtzaileen bidea. Zure estropezuen hotsak erritmo aproposa markatzen dizu errealitatetik aldentzeko: tak, tak, tak. Eta azken aldiko pentsamendu beti berak etortzen zaizkizu gogora:

Zer egin behar nuen?, zer ez da egin behar sekulan?, ba al neukan beste aukerarik?, zer gertatuko zen ez banu...?

Ume mokoa ematen duzu zergatika, aseko ez zaituen erantzun alferrikakoaren bila.

Simaurra naiz. Bizitzari tinko eta setati oratzen kaiku patetikoa. Droga dosia etengabe eskatzen duen mozoloa. Sexua, adrenalina eta ahanztura.

PRENTSAURREKOA EGINGO DU BARNE MINISTROAK

Noiz konturatzen da bat atxilotu egingo dutela?

Txefek gutxi behar izan zuen. Lanpeturik zebilen motorrarekin eta ez zituen sartzen sumatu. Morrosko bat hurbiltzen ikusi zuenerako, hutsaren hurrengoa zen ihes egiteko aukera: jokoz kanpo zegoen. Kexuka hasi aurretik bilurtu zuten, salataria nor izan zitekeen pentsatzeko astirik gabe.

Otu zitzaion aurreneko gauza bizitzaren ironia izan zen: lehen nire koadrilakoak ziren buru-estalkidunak. Bigarrena: tortura benetan zer den berehala konprobatuko dut. Inkomunikaturik, mundutik kanpo, argi garratz baten azpian, ezezagunen mende, lege arrotzen gatibu.

KOLOKAN JARRIKO OMEN DU JARDUERA ARMATUAREN AMAIERA

Bum-bum-bum.

Han doaz, mihia lodi-lodi eginda. Elkarri entzun gabe mintzo dira, zarataka. Pasatu dioten txirria erretzen ari da gidaria. Ez edozein kalamu: onenetik

onena. Umekeria bati egundoko zukua atera dio: bi partiduko zigorra, bi asteko oporraldia. Baikorra da: zertarako damutzen etxean gelditu? Bizitzak hauspotu egiten du: Realeko harrobikoa, etorkizun oparoa, familia ezaguna, lerdena, dirua barra-barra. Aurkezpenik behar ez duen horietakoa: mutilek inbidia diote, neskek desira.

Bum-bum-bum.

Odol taupada frenetikoak lokietan. Presarik ezean, heltzeko antsiak behartzen du lasterketan bezala pilotatzera. Erabat disfrutatu ez den segundo bakoitza galdu egiten da. Topera, gauari zukua zurrustan atera nahian, carpe noctem for ever.

Aldamenekoak zerbait oihukatu du; berak baietz buruarekin, txirriari musuka. Irribarre perfektuak burua inguratzen du kremailera baten gisara: edan, erre eta hartu duen guztiaren deskribapen xehea. Mundial doa gaurkoa!

Zebra-bidera heltzean bururatu zait, bizitzaren metafora bat dela: une zuri eta beltzen segida. Zergatik da beltza baino zikinagoa zuria? Ideia hori gogoan eman dut heriotzarako nire azken urratsa. Beste bat, aurretik emandako milioiak bezalakoa.

Metro inguru galtzada barruan, semaforo berdea oinezkoentzat, eta ni buruaren labirintoan pareten kontra kolpeka. Azkarregi hurbiltzen ari den musikaren bibrazioa heldu zait: bum-bum-bum.

Berandu erreakzionatu du: frenoen kirrinka, autoa irristaka niregana, errepidea, zebra-bidea, DANBA! Kolpe lehorra, burrunbatze xume bat harrabotsaren magalean. Bafleen eromena besterik ez da entzuten.

Bum-bum-bum.

Entzun dezaket.

Ez dezaket ezer ikusi.

Iluntasuna.

GOIZALDEKO 3:45ean GERTATU DA

– Ez dut ulertzen, mutil zintzoa da.

– Ba morroi bat akabatu du.

– Hil?

– Orain ez dugu hitz egiteko betarik. Geldi zaitez hemen, mesedez.

Lan-jantzi urdinez, SLK beltz batean lanean ari da. Bere izena esan diotenean, kapoteko txaparen kontra kolpatu du burua. Harrituta dago atxiloketarengatik.

Bilurrak itxita daudela frogatutakoan komisarioak aurrera egin du mentalki. Beste bat gehiago.

Aferek, bukatu ondoren, estatistiketarako baino ez dute balio.

BERMEA ORDAINDUTA
ASKE GERATUKO DA GIDARIA

Bum-bum-bum.

Penagarria da irratia kasu hauetan automatikoki ez itzaltzea. Fabrikatzaileek soluzioren bat asmatu beharko lukete.

Bum-bum-bum.

Autoarekin harrapatu naute eta ate irekiek erritmo-botaka jarraitzen dute. Errepideak gogorragoa zirudien. Epel dago.

Bum-bum-bum.

Hirurak izuturik kanporatu dira.

– Hilda zagok?

Negarrez hasi da bat. Gaixoa: bizitzak ez gaitu egoera barregarrietarako prestatzen! Edonork, pelikula objektiboki ikusiz gero, komikotzat hartuko luke, bai. Korazaren barruan zihoazenak onik; babes gabe-

koa lurrean txikituta. Noizko oinezkoentzako airbag-ak?

– Gureak egin dik.

– Deitu anbulantzia bati!

ZUHURTZIGABEKERIAZ AKUSATUKO DUTE

Kolpeak kristala apurtu eta batera sentitu zuten, oihartzun baten modukoa. Mila pitzadura, zirrikituetan odola, tanta gorrixkak behera irristatzen.

Pertsona bat autoz harrapatuz gero, badirudi hantxe bertan geratuko dela: edo zaurituta edo ziplo hilda; bai zera: metro batzuk egiten ditu, zilipurdi eta aztalka.

Hiru bizidunek amets bat izatea nahi lukete. Zerraldo lehertuta dagoenak hasi besterik ez du egin ametsa: betiko loa.

¿Padre, por qué me trajiste a la ciudad?

...

Bukatu duzu? Txalo bero bat! Ez, are gehiago: txalo zaparrada, mesedez! Bravo! Bravissimo! Hori antzezlana! Izugarria! Sekulakoa! Rafael Alberti eta guzti: hi haiz hi!

Jaun-andre maiteok, hau izan da dena gaurkoz. Aurkezle Mikel Ruiz *Gizajoa* izan duzue; laguntzaile: Jon Preciado; eta teknikari: Yoseba Peña. Eskerrik asko entzuteagatik. Hurrengora arte, ongi bizi!

Ene, ene! Ba ez duzu froga gainditu, adiskidea. Irudimen eta asmamen joriak aitortu behar dizkizut, baina ez da nahikoa.

Esnatu, Loti Ederra...

Benetan uste al duzu horrela gertatu zela? Liriko eta tragiko geratu zaizu, bai jauna, eta dena oharkabean, literaturarako daukazun berezko sen horri esker. Poesia eta guzti, egunkari titularrak *Ehun metro* nobelari omenaldia eginez; hemerotekako lan aparta! Marka da: *horretan* ez zara asko okertu.

Maddiren nebak kotxez harrapatuta hil nintzen.

Hil egin *nintzen*. Istripu batean, zerk eta auto batek harrapatuta, gaixoa. Ez zara makala gero!: heroiak anaiari eusten dio; senidea delako, ezta? Zu hor tinko, elezaharretako pertsonaien antzera: setatsu, bakarrik arriskuaren aurrean. Bi hitzetan: Clint Preciado.

Gero, Maddi andereñoak zipaio maltzurrengana joz hanka eta muturra sartu dituenean, patu petralak gillotina abiarazi du: Txefek konpondu beharko zu-

keen autoak nebaren eskuetan huts egin du... zu garbituz.

Hunkigarria, zinez, zure tragedia greziarraren bukaera: Pathos-en lokarri ikusezinak txotxongilo antzerkian. Zer esango dizut ba: oraindik zirrara sentitzen dut! Akaso, kritika ñimiño bat egitea zilegi balekit, borobiltzeko Poliziaren ustelkeriaz zerbait aipatzea falta zaizu. Horrek askoz ere garaikideago bihurtuko luke kontakizuna.

Baina... zuk...

Utzidazu bukatzen, zozoa! Nahiago duzu auto istripuaren bertsioa, *beste norbaitek* hil izana baino? Ai, Jontxu, ongi dakizu ez zela horrela izan. Ez horren polita, ustekabekoa, inuzentea eta, batik bat, ez horren heroikoa. Askoz gehiago dago, ezta?

Onartu ezazu behingoz: zipaioengana joan zinen eta Maddiren nebak ez zintuen Mercedes SLK eder harekin nahi gabe hil. Istorioaren hasiera eta bukaera erakutsi dizkizut. Oroi zaitez, familiarekin zerikusia baitu.

Itxaron, itxaron eta segi entzuten:

Urriko egun bat eta unibertsitatean geratuta zaudete. Maddik bi aste besterik ez ditu egin gidabaime-

narekin; egun bat gutxiago bere BMW berri eta txikitxoak. Kapitala maneiatzearen abantailak.

– Kaixo, guapo –arretaz makillatuta daramatza orain dela oso gutxi arte erotzen zintuzten begi urdin horiek.

– ...

– Zenbat ikusi zenituen? –poliziak gogor ziharduen aulki zurian eserita; aldamenean, buruan hazka egiten zuen komisarioak.

– ...

– Zerbait hartzera joango gara? –Lolitaren ezpain gorriak hurbildu dizkizu Maddik–, baina lehenago muxutxo bat eman behar didazu, maitea.

– ...

– Hasieratik berriz ere. Zu handik pasatu zinen, ezta?

– Bai.

– Eta zarata entzutean hara hurbildu zinen?

Buruarekin baietz adierazi zenion, lur jota. Noiz bukatu behar zuten galdeketa anker hura?

– Bost *borroka* ikusi zenituen Mikel Ruiz jipoitzen. Hala da?

– ...

– Zelako klase astuna gaur. Ez dut uste horrelako asko aguantatuko dudanik! Zer moduz zu?

– Ondo. Baina ekonometria... buf, ez dut ezer ulertzen. Azkarregi doa eta esan didate inork ez duela aprobatzen.

Goiz hartan erabakia hartuta esnatu zinen: Polizia-rengana joko zenuen. Ezin izan zenuen gosaldu: «zenbat eta lehenago hainbat hobe», pentsatu zenuen esneari begira. Dena azkar igaro zen. Komisarioarekin hitz egitea eskatu zenuen eta berehala eraman zintuzten beste gela hartara. Zutaz gogoratzen zenez, abegikor egin zizun harrera. Segituan igarri zizun Britney Spearsen aurpegia, gozakaizteko irrika asegaitza. Hogeita hamasei urte luzez ziharduen lanean: une txarrenean hasi zen, polizia lana harro izateko modukoa ez zenean. Orduan egurra ematea zuten eguneroko eginkizuna, badakizu, *comunistas, vascos y maleantes*. Ez pentsa beraientzat goxoa zenik; latza egiten zitzaien telebistan manifestariak astintzen ateratzea edota sasoian mantentzea, korrika arin egin ahal izateko borra, ezkutu eta kaskoarekin. Gutxi baloratutako beharra. Baina hori guzti hori iragana zen. Bere kartak ederki jokatu eta euskal labela irabazia zuen. Handik bi hamarkadatara alabek arazorik gabe esan

zezaketen ertzaina zela aita. Legearen zerbitzuan bizi oso bat.

– Cristina Enea parkera joango gara? Joango gara geroago terraza batera, eguraldi ona aprobetxatzera –umore oneko zikloi bat da Maddi, alaitu egin nahi zaitu kosta ala kosta.

– ...

– Eta orduan konturatu zinen haietako bat ezagutzen zenuela.

– Ez, momentu hartan ez; geroago.

GIZARTE GAIXO HURA
SENDATZEKO ESPERANTZA

Ertzain batek kafe beltza ekarri zizun; ez zenuen dastatu ere egin. Beldurra, artean: auskalo zer bota zioten.

– Ondo, geroago ezagutu zenuen. Baina zein?

– A... –eztarria garbitu zenuen tua irentsiz, eta ahapetik aitortu zenuen, ez ulertzeko moduan–: Anaia.

– Nor?

– Anaia.

Zapla, muturreko itzela. Hogeita hamasei urtetan ez zuen antzekorik ikusi. Morroi gogorraren katamaloak, baina, funtzionatzen du: aurpegian ez du txintik ere mugitzen, bibote grisaren ile bat bera ere ez.

– Anaia ezagutu zenuen. Eta ondoren?

– ...

– Zer moduz? –xuxurlatu dizu Maddik, maitekor.

Cristina Enea parketik pasieran zoazte. Isilune luze baten ondoren etorri da galdera:

– Badakit hau oso zaila izaten ari dela zuretzat...

Haur potolo bati erreparatzen diozu, pozik pilota batekin jolasean. Eskapatu eta urrundu zaionean, aitatxori begiratu dio mainati. Aita pilota bila joango dela konturatzeak keinua argitu dio.

– ...eta zera nahi dut, zuk jakitea zurekin nagoela. Maite zaitut. Egin beharrekoa besterik ez dugu egin. Erabaki zuzena hartu dugu, benetan, maitea. Aukera bakarra genuen. Ez sufritu gehiago, bihotza; ezin zaitut-eta horrela ikusi.

LEGEAK BEHARTU EZ ARREN SALATU EGIN ZUEN

Zu musukatzeko gelditu egin da Maddi. Haren ezpainek zaporea galdua dute zuretzat. Deseroso sentitzen zara, zurrun. Ez duzu konpainiarik nahi, eta antzeman egiten zaizu.

– Elkarrekin gaindituko dugu hau, bale? Oso ausarta izan zarela dio amak, eta egia da. Begira iezadazu, maitea: elkarrekin gaindituko dugu hau, bale? Elkarrekin. Maite zaitut.

Ezin diozu gauza bera esan. Ez zaude batere ziur. Zenbat eta gehiago behartu, orduan eta meheagoa da maitasunaren iturriko haria. Ia tantarik ez: putzu lehorra zara basamortuan.

– ...

– Ziur al zaude anaia zela?

– Gau hartan zeraman forropolarra aurkitu nuen... odol arrastoekin.

Zuri tinko behatzeari utzi gabe, kriskitin eginez erregistroko agindua lortzeko manatu zion zipaio bati. Paper zirtzil hori eskuratu orduko atxilotuko zuten. Aho zabalik gelditu zinen. Ze espero zenuen ba, salatzea eta anaia preso ez hartzea? Are gehiago, habia

hura txori askorentzako amua izango zen, beti gertatzen den moduan.

– Maitea, aitarekin ja hobeto?

Amadeok hitza kendu dizu. Agertzen zarenean gelaz aldatzen da, bizkarra emanda. Alferrik saiatu zara gertatutakoa hamaika bider azaltzen. Amarekin ere ez du hitz egiten; ez dakizu nor jotzen duen erruduntzat. Manolik egunak igaro ditu negar batean. Balirudike goiz batean ez zaizkiola semeetako bi ohetik altxatu. Latzena, ordea, Hubble teleskopioaren erreakzioa da: izugarri botatzen du faltan Txefe. Kopetilun eta orbitatik kanpo dabil etxean barrena, Txeferen bila. Askotan topatu izan duzue anaia nagusiaren ohean eserita, geldi-geldi. Ez du sukaldeko bere aulki berezira hurbildu nahi. Muzin egiten dio jateari. Barre, oihu edo txaloen ordez, negar egiten du, barruko mundua beltzez tindaturik. Eta zuen amak bainuontzian sartzen duenean lasaitzeko asmoz, geldi-geldirik geratzen da, urarekin bat egiteko asmotan-edo. Zerbaitek adierazten dio maite duen norbait falta zaiola. Erne ibili behar duzue, behin eta berriro horma kolpatzen baitu buruarekin.

Gurasoena egunen batean birbideratuko duzula espero duzu; luze hitz eginez lor daiteke. Baina Apo-

llo13ak... ez du inoiz ulertuko anaia nagusia hiltzaile putaseme hutsa dela; errealitateko kontzeptuak dira horiek, eta friki honek, barkatu, ez du kontzeptuak aintzat hartzeko dohainik. Gabezia eta hutsunea, hori besterik ez du sentitzen. Mutikoa negar batean ikusteak eta Txefe faltan botatzeak bihotzak urratzen dizute. Zeu zara oinazea ekarri duzuna; zeurea da errua.

GOBERNUKO BOZERAMAILEAK ESKERTU EGIN DIO

– Non aurkitu zenuen... forro hori?

– Ganbaran.

– Jipoitzaileen artean besteren bat ezagutu zenuen?

Zu besarkatzen saiatzen da berriro Maddi, eta etengabeko esfortzu setati horrek zure azken defentsa gainditu du: hondoa jota, negarrez hasi zara. Metatutako min guztia kanporatu nahi duzu lantuaz. Zure barruko urtegiko horma erraldoian arrakala bat egin da: handituz doana, urari ihes egiten uzten diona, txorrota bilakatzen ari dena, eta azkenean ur-jauzi... uholdea ekarri arte.

Maddik ezin du hainbeste samin geldiarazi: etsipena, gabezia, inpotentzia, desesperazioa; izan ere, berak ere eragiten baitizu modu batean edo bestean. Jendeak harrituta begiratzen dizue: mutila negar zotinka neskaren besoetan! Kontsolamendu motela da, noski, ez du-eta ulertzen atsekabea benetan sortzen dizun kausa.

ERREZONOKOZIMENDU GISA, DOMINA

Atxiloketa noiz gauzatuko zen ez zenekiela itzuli zinen etxera, atxilotuko ote zuten. Aitorpena bukaturik, atseginez agurtu zizun komisarioak, inori ezer ez esateko eskatuz. Tripako mina zenuela esan zenion Santa Manoliri eta gelara jo zenuen zuzenean. Handik gutxira, kamamilazko infusio batekin agertu zitzaizunean, nekez eutsi zenien malkoei: ama zugatik dena ematen eta zu bere seme bat salatuz ordaintzen.

Pijama bilatzeko ireki zenuen armairua. Txandal praka zaharraren gainean zegoen; pentsakor laztandu zenuen, institutu garaietan zure eguneroko larruazala izandako hura: estilo bat, klan bat, iraultza bat. Orduan zure saltsan mugitzen zinen auzoan, noizbait

kartzelara bidaliko zenuen anaiaren gerizpean gustura.

Estitxuk popatik hartzera bidali zintuenean, nonbait krisian sartu eta unibertsitateak azken bultzada eman zizun amildegi ertzean. Eta zeu, beti zirt edo zart, dena edo deus ez: salto egin zenuen pijoen lubakira, haien putzuetan murgildu. Txeferen harridurarako *aldatu* egin zinen. Auzoaren historian gertatu zen lehen aldia, nori eta bere anaiari gertatzea ere!

Institutuko Jon Preziadok eta unibertsitateko Jon Preciadok katamalo zeharo ezberdinak zeramatzaten. Ez zintuela ezagutzen ebatzi zuen Txefek; handik bere mesfidantza, hoztasuna.

Irten egin zinen zegokizun molde eta klasetik. Zeuen txikitako unibertsoan, edozein pasadizok edo markak sailkatzen zuen jendea tiradera mugiezin batean: azkarra izatea (*Anibal*), koldarra (*Kakati*), indartsua (*He-man*), argala (*Espageti*), atzerrian bizi izana (*Aleman*)... Bizitza osorako izango ziren zigorrak edo bedeinkapenak, zure kasuan bezala. Eta hein handi batean Txeferekin esker oneko egon behar zenuke. Ahaztu egin duzu ja zure ezizena?

Ez: Kapi. *Futbol taldeko kapitaina izan nintzelako beti*.

Ba, izaera hori traizionatu zenuen. Eta anaia eta familia eta auzoa eta erroak. Ez dago ezaugarririk gabeko gizonik; zuk mozorro hutsa izan nahi zenuen.

Txorakeria galanta. Denok daukagu aldatzeko eskubidea; bizitzak kanbiatu egiten gaitu, saihetsezina da. Eta ezinezkoa ere bai.

Utzi aho-korapiloak. Anaiak, bigarren aldiz traizionatua izan aurretik, ezetz asmatu zer egin zuen *Kapi* ezizenarekin? Hizki bat ordeztu eta hara!: *Kain*. Nago ez ote zuen berak uste baino beteago asmatu.

Ez du batere graziarik.

Anaia etxera heltzen entzun zenuen, amari gaixorik zeundela esanez. Ondoren, urratsak pasilloan eta zu bakean uzteko xuxurlak, lotan egongo zinela ziur aski. Aurpegia burukian iltzatu zenuen lotsa minean: saldu egin duzu eta, bitartean, Txefe zutaz kezkatzen da. Txefe ere bai.

KEINU HONEK EUSKAL GIZARTEAREN KOLDARKERIA ETEN DU

– Bai ala ez?

– Zer?

– Epaiketan deklaratuko zenuke? Erantzun, mesedez.

Maddik burua laztantzen dizu, mina konpartitu nahian. Oker, bihotzaren matematikak aplikatu behar baitira: min bat zati bi berdin bi min.

Maddik behin besterik ez zuen Txefe ikusi; ez zegoen anaiaren gurasoekin bizitzera derrigortuta.

Zeu ere ez, badakizu ezetz.

– Jon, galdera bat egin dizut.

Ze demontre espero zuen ba? Anaia salatzera joana nintzen; jakina deklaratuko nukeela!

Ordurako berdin zuen: otsoaren ahutzak ixten ari ziren zu barru-barruan zinela.

ADIERAZI DU TERRORISMOKO BIKTIMEN BOZERAMAILEAK

– Hiru atal izango ditu azterketak. Hirurak gainditu behar dira. Hiruretako bat suspendituz gero, zuzentzeari utziko diot automatikoki. Nota finala hiruren batez besteko aritmetikoa izango da... lehen aipatutako lana gaindituta baldin badago, jakina. Egunero-egunero lan eginda, aise gaindituko duzue ikasgai

hau; bestela, denbora luzez izango nauzue zuen amesgaiztoetan.

«ZERO TOLERANTZIA» POLITIKA ZIURTATU DUTE

– Bai, deklaratuko dut.

– Ondo. Pozten nau gugana jo izanak.

– Jon, maitea, ez da zure errua izan; mesedez, ez negar egin. Berak egin zuen, ez zuk.

– Epailearen agindua iritsi bezain pronto atxilotuko dugu. Ganbara miatu beharko dugu frogen bila. Baliteke deklarazioa nahikoa ez izatea; anaia izanda... auskalo.

IRMOTASUNAREN ETEKINAK

Serie B-ko pelikula bat dirudi eta zeu zara protagonista. Oso aktore traketsa, bide batez, bere burua ezagutzen ez duena: agertzen dituzun sentimenduak ez datoz hitzekin bat. Eta gainera, galduta zaude eszenan: zure aurrean mintzo ari dira, han bertan ez bazina bezala.

– Deklarazio honekin, hogei urte seguru. Barruan daukagu jadanik.

Eta orain, benetako egia:

– He-man, hasi SLKrekin. Kolpetxo bat dik txapan. Aprobetxa ezak errebisio osoa egiteko.

– Ados, nire kontu.

Txefek begirada azkar bat bota zion. Makurtu, ukitu, ireki, itxi. Epaia:

– Hegala da, nagusi. Hegala eta gidariaren atea ere bai. Hori bai, txapa besterik ez. Beno, argi keinu-karia ere izorratuta dauka, baina gainerakoan ondo.

– Ba idatz ezak eta hasi berehala, ostia; honek presa zaukak. Bezero inportante baten semea duk; beraz, badakik, sar ezak egurra, atzorako bukatuta nahi diat-eta.

– Ez dut oraindik Copa Turboarekin bukatu.

– Popatik hartzera erlikia hori! Hasi SLKrekin eta gero gerokoak. Argi zagok?

– Bai, bai, nire kontu.

Baina aldea hementxe dator. Adi: telefonoak jo du bulegoan. Anaiak ez du zirkinik egin; baten batek har-tuko du. Auto azpian etzanda dago.

– He-man! Hiretzat, Lasa duk.

Lasa? Tailerrera deitzen? Bekozkoa jarri eta mugikorra aldagelan itzalita duela gogoratu du. Azpitik irten eta eskuak trapuarekin garbitu ditu. Betiko urrats motzez mugitu da; tresna arrotza balitz bezala hartu du entzungailua. Gertu dauka nagusia; ezin du patxadaz hitz egin.

– Esan.

– Hi, kontu txarra: zipaioengana joan dituk eta hire izena zaukatek.

– Ze esatek? Nork...?

– Ez zakitek. Alde egin ezak oraintxe bertan, etxetik ere pasa gabe. Joan hadi Iparraldera eta desagertu denboraldi batez, aditzen al duk?

Lasaren gainontzeko jarraibideak txundituta entzun ditu, bere burua arreta jartzera behartuz: nora jo, norekin kontaktatu.

– Ze berri? –nagusia ez da ergela.

– Kaka zaharra! Arazo larri bat.

– Larri-larria?

– Aitari bihotzekoak eman dio –ez da gezurtero ona gure mutil txintxoa–. Joan beharra daukat, ospitalera.

– Eramatea nahi duk?

– Ez, ez... –hanka sartu du bihotzekoarekin–. Aurrena amaren bila joan beharra dut etxera.

– Joan lasai. Eta arratsaldean deitu, dena kontatzeko. Hala, ospa, hoa!

– Eskerrik asko.

Laneko arropaz irten da, koipez belztuta eta SLK hiltzailea tailerrean geratu da, konpondu gabe. Zeu ere ohartuko zarenez, horrek denbora pixka bat gehiago ematen dizu agoniaz *gozatzeko*.

Autobusean harrituta begiratzen diote. Gure lanak zikinak eta apalak izan arren, bulegariak bezala jantzi ohi gara. Eta Txeferen haserre keinuak, gainera, arreta deitzen du: Supermekanikaria munduaren aurka. Ze ostia begiratzen duzue?

Badakizu... Txefe Txefe da eta ez dio Lasari kasurik egin: etxera joan da. Ganbarara jo du zuzen. Kutxazko harresia behera bota eta plastikozko poltsa hartu du urduri. Igogailua geratu du txikitan jolasean egiten zenuten antzera, gogoratzen? Abiatu eta gutxira, stop botoiari sakatuz eta gero atea bortxatuz irekitzeko. Mailatik hogei edo hogeita hamar zentimetrotara gelditzen zenuten, tarteko hutsunean eskua sartzen nor ausartuko. Ba, handik bota du froga, inork

aurkituko ez duen gordelekura: leloa zen erosi genuenean!

Izerditan sartu da etxera.

– Zer egiten duzu hain goiz etxean? Zerbait gertatzen da?

Erantzunik ez. Gelan sartu da arrapaladan, danbatekoz. Bi gauza ditu gogoan: arropa eta diru pixka bat hartzea, eta Luke Skywalkerri agur esatea. Bost axola etxeko besteek; sentibera, gure hiltzailea.

Amak bidali zaitu galdezka:

– Zer duzu? –potro ikaragarriak zureak: ziniko halakoa!

– Ospa hemendik eta itxi ate puta hori!

Sikiera zure aurpegia ikusi izan balu... Bizitzan, ordea, Tagorek zioen moduan, eguzkia ezkutatu delako negar egiten baduzu, malkoek ez dizute izarrak ikusten utziko. Harrapazak hori!

Kontu handiz men egin diozu eta zure logelan babestu zara. Hain lasai egoteak harritu egiten zaitu. Heltzear dira. Barruko ezbaia: eskapatzea edo atxiloketan egotea, ez duzu batere argi: ze *komeni* zaizu?

Normalean goizeko hirurak aldean ekiten diote antzezlanari, izorratzeko batik bat. Atea ostikoz botatzen dute, denak ahuspez jarri, eta abar. Baina kasu hone-

tan, presagatik, Basque Country Street-eko kanta tristea antzarak ferratzera joan zaie.

Txefe ohearen azpira makurtu eta aldizkari eta paperak ateratzen hasi da, dena azkar-azkar kontrolatzen. Ez die froga tontorik utzi nahi.

Txirrina entzun du, zirrara sabelean sentitu. Amaren lagun bat izango ahal da! Isilune arrotza, bi segundo, eta gelako ateak paretaren kontra jo du bortizki. Unitate antiterroristako rugbilari bik plakatu dute.

– Eskuak gora! Paretaren kontra!

Irauli egin dute eta ohe gainera bota, aurpegia burukiaren kontra itoz. Txefek kanoi hotza sentitzen du lepoan; eskuak gogor helduta, mina sorbaldetan. Ez du ezer ikusten; tiraderak lurrera botatzen aditu die. Pasillotik ahots bare bat heltzen da amaren negar-zotinekin batera.

– Talde armatuko kidea da, andrea. Hilketa batean parte hartu du. Terrorista bat hazi duzue hemen... Pentsa ezazu arretaz zer egin duzun gaizki.

Zure anaiak begiak itxi eta listua irentsi du. Ez du ezer ulertzen; aspalditik onartua zuen halako zer edo zer gerta zekiokeela. Mundu hartan loteriatzat daukate: tokatzen da, eta kito. Eta denek ezagutzen dute sari handia *irabazi* duen baten bat. Baina erokeria

haren erdian Txefek ezin du egia asmatu: trapuzko txotxongilo bat besterik ez dela izango.

Eskuak bizkarrean bilurtuta, tiraka altxatu dute. Uniforme gabeko ertzain bat dago amaren ondoan, buru-estalki beltzarekin; negarrez jarraitzen du Manolik. Momentu horretan bertan atera zara gelatik, ezinegonean. Kolpeak eta oihuak entzun dituzu baina ez zara lehenago irteten ausartu. Komisarioak agurtu egin zaitu:

– Mila esker, Jon. Bete beharrekoa egin duzu –sorbaldako takatekoak hogeita hamar zilarrezko txanpon balio du.

Masailezurreko giharrak tenkatu dituzu, beste aldera mugitu aurpegia.

– Zuk salatu nauzu? Nire anaiak! Kabroi halakoa! Txikitu egingo zaitut!

Txefe ero moduan jarri da. Buelta eman duzu negar batean. Eta, azkenik, algarak kontzientzia esnatu dio Independence day-ri; uniformeen joan-etorria behatzen egona da liluratuta, txaloka eta saltoka. Orain, ordea, Txeferen suminak zerbait piztu dio barru-barruan, eta anaia eutsita daukan poliziaren gainean salto egin du eta jo egin eta atzaparkatu eta

hozka egin. Tigre bat da, behi lodiari helduta. Ertzainak bultzaka astindu du hormaren kontra:

– Kendu egidazue subnormala gainetik! Kabenzotz!

Iraina entzuteaz bat, Txefek ezker eta eskuin egin du dorpeki; loturatik askatu egin da eta sekulako ostikoa eman dio potroetan. Arnasestuan belauniko erori da polizia. Braveheartek ez du gehiagorako astirik: beste ertzain guztiek kontraerasoa jo dute, kolpez kolpe, denak batera. Eta zuen ama melee erdian sartu da garrasika, jipoia alferrik gelditu nahian.

Komisarioak lepotik helduta dauka Avatar; eta laguntza eskatu dizu, beste polizia bat bazina bezala:

– Eutsiozu, joder!

Zaplateko batek atzera bota du Manoli. Lurrean eserita geratu da, alzheimerra duen atsoaren gisara. Txefe ahuspez estutu dute zoruan, zorabiatuta baina aieneka. Liskarrarekin jarraitu nahi duen bakarra Yuri Gagarin koitadua da: hankei eragiten die amorruz, zeuk besoen artean heldu arren. Eta zuen amak, bizitzan lehendabiziko aldiz, ez dio kasurik egiten.

Kalera atera dute Txefe, arrastaka, lauren artean. Atea itxita ere, Pottoki Astronautaren deiadarrak entzuten dituzte.

Igogailuan, potroetakoa jaso duenak iletik tiratzen dio jadanik hain adoretsua ez den gudariari:

– Hirekin jaitsiko nauk Madrilera, putaseme hori! Gustuko ditiat hi bezalako heroi ausartak: gehiago irauten duzue!

Beldurra sartu zaio hezurretaraino. Unai Romanoren aurpegia ikusi uste izan du flash batean.

Buru-estalki bat alderantzira ipini diote, itsutzearren. Izerdi eta listu lehorraren kiratsa dario. Furgonetara sartu duten bitartean pentsamendu bitxi batek hartu dio gogoa: Space Cowboya izan da egiazko maitasun keinua erakutsi duen bakarra. Hurrengo hiru egunetan, ordea, ez diote pentsamendu bitxietarako astirik utziko.

...bai, deklaratuko dut...

ganbaran, ezkutatuta...

...zurekin nago, bale?

...nire anaia...

...baina, lehenago, muxu bat eman...

muxu bat

muxu goxoa

Kainen musua.

Nola geratu zaizu gorputza? Benga, txotxolo, ez horrela hartu. Agian tragikoegi jarri naiz, baina sinetsi egin behar didazu: askoz hobea izan da zuretzat heriotza.

Ez zenuen etorkizunik. Inork ez du etorkizunik, benetan ari naiz. Baina zureak... ez zuen bizi izatea ere merezi. Ez didazu sinesten? Oraindik gauza gehiago jakin nahi duzu? Jakin-mina da katu guztien galbidea, adiskidea! Gero ez niri etorri gustatu ez zaizula esanez.

Zeren, akabatu ez bazintuzte, arlote bat

IZANGO ZINEN

Akabo etxeko bakea. Adi jarri zaitu ateko hotsak: ama. Agur lakoniko bat eta badoa sukaldera. Portaera gupidagabe hau bere ageriko errepresalia da.

Bakarrik bizi zarete dagoeneko: minbiziak kiskali egin zuen aita. Nolanahi ere, *ElPueblo*n beste bertsio bat zabaldu zen, hiru burukoa: penak kontsumitu du, amorruak birrindu du, lotsak irentsi du.

Zahartu egin zen esfingea, aste gutxitan zimeldu. Eztulka hasi zen, gero eta zakarrago; erasoetan bertan itoko zela uste izaten zenuten: gorri-gorri, arnasestuka, apurtuta.

Laneko azterketa fisiko arrunt batean topatu zioten biriketako minbizia. «Berrogeita hamar urtez erretzearen ondorioz», biribila izan zen medikuaren epaia. Zuen aitak, ordea, ondo baino hobeto ezagutzen zuen gaitzaren iturria.

Hurrengo bizpahiru asteetan suspertu egin zen, bukaera hurbil sumatzeak arinduta; gero, kimio eta radioterapiarekin hasi aurretik, berehala iraungi zen, isilean. Damututako mafiosoen antzera, etsi-etsian eta otzan onetsi zuen trajez jantzitako morroskoen gonbidapena auto baten maletategian sartzeko:

– Meategiak ez du inoiz ahazten.

Jadanik, bostetik hiru baino ez zeundeten etxean. Cocoon eta zeu, a ze parea zure amarentzat! Nork jotzen du trikia eta nork panderoa?

Sukaldean sartu zara.

– Nondik zatoz, ama?

– Txefe ikustetik.

– Zer moduz dago?

– Pozik dirudi antolatu duten musika taldearekin.

– Ondo orduan.

– Goraintziak bidali dizkit zuretzat –badakizu gezurra dela, baina segidan datorrena prestatzeko balio dio–: Noiz joango zara anaia bisitatzera?

Esanda dago. Hasperen egin du eta zilbor hestearen kateak barruko sua hauspotu dizu. Inork baino hobeto ezagutzen zaitu amak; mina non eta nola eragiteko bezainbeste bai.

Gaua izorratu dizu: ezin begirik bildu.

Eta akordura etorriko zaizu beste okasio hura. Neska-laguna amarekin afaltzera ekarri zenuen aurreneko aldia...

– Jan gehiago, maitea –neska-lagunari ertzeraino beteko dio platera hirugarren aldiz–. Argal ikusten zaitut. Ez al zaizu gustatzen?

Gerra psikologikoan Basamortuko Azeria da zuen ama: zehatza, errukigabea, zorrotza.

– Oso goxoa dago, eskerrik asko.

Neskak laguntza eskatu nahi dizu begiradarekin. Alferrik: ilargian zaude, espazioan galdutako anaiaren paper berbera jokatzen.

– Txefek den-dena jango luke.

Neskak baietz erantzungo dio keinu batekin.

– Jonek hitz egiten al dizu Txeferi buruz?

Neskak baietz berriz, lotsatuta.

– Gezurra! –haserretuko da ama.

Ez zaizue batere argi geratuko zer den gezurra: kontatu diozula, azaldu diozun bertsioa edo akusazioa bera.

– Txorimalo bat behar zuten. *Nire* Txefek beti izan du oso zorte txarra. Baina on puska da. Ikasten hasi ez da, ba, kartzelan!

Koilara betetzeari utziko dio neskak, eta hala ere Manolik platera hurbilduko dio irribarretsu.

– Etxeko beste izarra ere falta da. Psikiatriko batean sartu beharra zegoela agindu zidaten. Huts-hutsik dago dena hemen. Marka da, gero. Batzuetan sukaldean egoteko gogorik ere ez dut izaten. «Zertarako?» pentsatzen dut, «ez du merezi». Gure txikiari bai

gustatzen zitzaiola *kokreta* hauek jatea; binaka jaten zituen!

Neskak buruarekin baietz.

– Onena zen beretzat, bai, baina... ni umezurtz bezala geratu naiz. Bi aldiz umezurtz. *Bi* semeak, atxilo *biak*.

Nostalgiak goretsitako anekdotak besterik ez ditu Manolik: Txefek txikitan pilotaria izan nahi zuela baina partida guztiak galtzen zituela; Hodeiren eguneroko ongi-etorri urduriak txalo zaparraden artean; zeinen ongi konpontzen ziren anaia biak elkarrekin.

Normalean, erleak eztena sartu ondoren bezala, berehala iraungiko zaio liskar gogoa: frustrazioa erakutsita baketu egiten da ama. Normalean, diotsut, bai baitaki mezu sakonekin izorratzen ere.

– Nongoa da zure familia? –baina ez dio neskari erantzuteko aukerarik utziko eta epokako tragedietan bezala segidan deklamatuko du–: Ni ez naiz hemengoa. Lau urterekin ekarri ninduten Asturiastik. Baina, nola esan, ez nuen sustraitzeko astirik izan. Urtero mugitzen ginen: herriz herri, auzoz auzo. Ezinezkoa zen lagunak egitea, are gutxiago bertakotzea. Hamabi urte nituela aurkitu zuen gure aitak lan egonkor bat Donostian eta, handik gutxira, gure herriko gazte ba-

tekin agertu zen. Heldu berria zen hirira; Amadeo zuen izena.

Bakarrizketa eteteko nagi zu, bahituta dauka neska zuen amak.

– Artean asko ziren hamabi urte, ia emakume bat nintzen. Anai-arreba nagusiek lan egiten zuten, eta gazteak gazteegiak ziren. Beraz, gure amak aitarekin egiten zuena kopiatzeari ekin nion Amadeorekin: afaria egongelara eraman, bazkaria lanera, gela txukundu, arropa garbitu... Amadeo besterik ez nuen buruan. Bera zen nire bizitzako ardatza, bera hartu nuen ainguratzat.

Oroitzapenetan kontzentratuko da harrikoa egin bitartean; ihes egiterik ez. Erne: estura hori piercing baten modura lotuko zaio zure neskari, gorrotoaren eta ezinikusiaren artean balantzan.

– Nik hamabost bete aurretik desagertu zen. Batbatean. Gurasoekin adostu omen zuen alde egitea, baina inork ez ninduen jakinaren gainean jarri. Goiz batean esnatu eta hutsik aurkitu nuen bere gela. Gure amak normal-normal jarraitu zuen, ezer gertatu ez balitz bezala. Horregatik pentsatu nuen betiko joana zela. Hori mina barruan sentitu nuena!

Ez da isilduko.

– Urtebetetzea larunbatean izan arren, nire bizitzako egunik tristeena zela iruditu zitzaidan. Ez nuen gozatzeko modurik aurkitzen. Ulertu behar duzue: maiteminduta nengoen lehenengo aldia zen; hamabost urterekin, zer esango dizuet ba! Egongelako erlojuak arratsaldeko bostak ematearekin batera jo zuten ateko txirrina. Amadeo zen, ea gure aita ba ote zegoen galdetzen entzun nion. Amak barrura pasarazi zuen. Igandeko arroparekin zetorren, bizarra kendu berri, garbi eta dirdiratsu. Niri begiratu gabe, kapela eskuan, ni zinemara eramateko baimena eskatu zion gure aitari. «Zinemara orduan», esan zuen gure aitak mantso eta solemne. «Asmo garbiak al dakartzazu?». Amadeori aurpegia aldatu zitzaion, saminez. «Baina, jauna, berarekin ezkondu nahi dut-eta!». Inoizko poz handiena hartu nuen.

Trapu batekin lehortuko ditu eskuak eta erratza pasatzen hasiko da.

– Hemezortzigarren urtebetetzean, ezkontzeko baimena eskatu zion gure aitari. Eta ni berriz ere ipuineko printzesen antzera sentitu nintzen. Orain konturatzen naiz inork ez zidala sekulan ezer galdetu: aberearen pare tratatu ninduten. Salerosketa: «zure txa-

hala nahi dut, handitan nire etxean esne ugari eman dezan». Esklabo bat eskuratu zuen Amadeok.

Eta minutu baten buruan, neska eta zu zalantzan egongo zarete, benetan hori guztia entzun duzuen edo haluzinazio bat izan ote den.

Adio esango diozuenerako azken sasoiko atsoa izango da berriro: nekatu eta hondatua. Arima ajetuta utziko dizu familia bilerak. Eta ataritik irtetea, erreematea: urkatzear zaude eta aulkiari ostikoa jo diote. Sarrerako bi hormetako pintadak spray gorriz margoturik daude, bi hitz diana baten barruan: JON KAIN. Horrelaxe, letra larriz, garrantzitsua delako. Neska-lagunak derrigor irakurriko du eta zuk ezikusiarena egitea beste aukerarik ez duzu izango. Ez zaitez saiatu amaren etxeko afari hura zure bizitzatik osorik ezabatzen, debalde ariko zara-eta.

Gogoan duzu pintadak aurkitu zenituen lehen aldia? Ertzaintzak Txefe eraman eta bi astera. Kalera irten zinen etxeko esturatik eskapatzearren, eta danba!: hortxe zeuden bi hitz horiek aurrez aurre, zure burura destatzen, parabellum baten jomugan. Si vis pacem, para bellum: prestatu guda bakea nahi baduzu. Erotuta daude erromatarrak!

Auzokoen etsaia zinen: azpijalea, salataria, traidorea, damutua. Opresio faxistaren indarrei saldua. Adibide batzuk nahi? Ingelesei laguntzen zien zipaioa, nazien kolaboratzailea, torturatzaile amerikanoen itzultzailea.

Ubelik uzten ez duen ukabilkada izan zen. Kalean geratzeko ausardiarik gabe, etxean giltzapetu zinen iluntzera arte, eta orduan jaitsi zinen espartzu eta alkoholez irakurtezin uztera.

Hurrengo goizean, unibertsitatera abiatu zinenean, ezusteko galanta: letrak berriturik agertu ziren, lodiago eta zuri-zuri: JON KAIN. Eta beren gailentasuna argi gera zedin, ondoko hormak epaia azpimarratzen zuen: SALATARI ESPAINOLA HERRIAK EZ DU BARKATUKO. Uso-tiroa zinen, ferietan botatzeko ahatea.

Baina zer duzu? Goibel ikusten zaitut. A, badakit... lehengo kontakizunean *neska-laguna* hitza erabili dudalako, Maddi ordez... kar kar kar. Zergatik pentsatu duzu, ba, Maddik zure neska-laguna izaten jarraitzeko asmoa zuela?

Tira, uste dut kontuak argitu beharko dizkizudala, ez baitzara zeure kabuz ezer oroitzeko gauza.

Pelikula bat badakizu funtsean zer den, ezta? Argazki soilen igarotze azkarra: beren artean alde ñimi-

ñoak egonez gero mugimenduaren ilusioa sortzen da. Burmuinaren gezurra besterik ez da, ezin dituela banan-banan bereizi disimulatzeko; bizitzaren metafora zinez fina. Eta denbora ezberdineko pasarteak tartekatzen baditugu? Tarantino for president! Adi beraz ondoko esperimentuaren aurrean eta eraman itzazu umeak ohera, gordina baita errealitatea:

* * *

FOTOGRAMA: Terraza bat udaberriko eguzkitan. Jon eta Maddi mahai batean eserita, aurrean edalontzi huts bana, itsasoari begira. Isilik. Inguruan jende zurrunbilo bat joan-etorrian, taldeka, hitz eta pitz.

* * *

FOTOGRAMA: Gaua, etxeko egongela. Mahai eta aulkiak bazter batean, erdian sofa, telebista, ume baten erreportaje fotografikoa apaletan eta ezkontza potreta. Urratsak pasilloan: emaztea. Azkar mugitzen da, energiaz. Mahaiko loreak ureztatzen hasi da.

SILVIA: Bitxia da Eneko ez egotea... Haurrak hazi egiten dira eta, konturatu orduko, eskolako irteera.

JON (telebistatik begiak kendu gabe): Hm-m.

SILVIA: Behin baino gehiagotan pentsatu dut, saiatu egin behar genukeela berriro, ondorioak ondorio. Tristea da ume bakarra izatea. Orain ez da konturatzen baina gero faltan botako du. Badakit familiaren kontua ez duzula batere atsegin, ez da harritzekoa, baina Enekok ez du horren errurik. Berak ez du zertan bere aitaren herentzia guztiak pagatu.

JON: Otsoa aipatu duzunez... nire amaren urtebetetzea da bihar.

SILVIA: Deitu egiozu ba.

JON: Berriz ere bazkaltzera gonbidatzen bagaitu, zer esango diot?

SILVIA: Berriz ere ezin dugula eta kito.

JON: Baina...

SILVIA (gelatik irtetear, ur pitxer hustuarekin): Bainarik ez. Nahikoa jasaten dugu Urtezahar gauean.

(Telebistak bereganatu du berriro Jonen arreta: neska gazte ederrak agertu dira, eskolako gona eta poloez.)

SILVIA (sofan eserita): Zer ikusten ari zara?

JON (zerbait debekatua egiten harrapatuta): Hm? Ez dakit.

SILVIA: Zer dira, mexikarrak? Baboa zara, gero. Eman agintea. (Kendu dio eta kanalez kanal pasatzen hasi da). Zerbait interesgarria gaur? Zer da, asteazkena? Orduan... ai ama!, ia ahaztuta neukan. (Aurkitu du nahi zuena). Saio honetan behintzat zer edo zer ikasten da.

* * *

FOTOGRAMA: Larunbat gaua, kalea. Maddi azkar dabil espaloian, takoi hotsa markatzen: metronomo bat allegro molto vivace. Izkina batetik zelatan ari da Jon. Maddik aurrera egin ahala Jon ezkutatu egiten da autoen artean. Maddik maiz begiratzen du atzera, gero eta arinago. Taxi bat kontrako noranzkoan agertzean, Maddik eskua altxatu eta, erabat gelditzeko astirik eman gabe, barrura sartu da.

JON: Maddi! Maddi! (Taxiaren atzetik korrika). Itxaron!, zurekin hitz egin behar dut. Zerbait esan behar dizut! Maddi!!! (Errepide erditik doa eta estropezu egin du. Lurrean, ozta-ozta saihestu du beste erreitik datorren autoa). Maite zaitut! Maddiii! Barkaidazu! Orain badakit! Maite zaituuut! (Negarrez dago, belauniko).

(Ehun bat metro aurrera gelditu da taxia. Maddi tak-tak itzuli da).

MADDI: Berriz ere atzetik etortzen bazara Ertzaintzari deituko diot, aditu? Erotu egin zara: hau jazarpena da! Ez dut zure lorerik nahi, ezta zure deirik ere; ez bidali emailik, gure argazkik... ezer ez. Ez egin ezer! Nire bizitzatik desagertzea nahi dut!

* * *

FOTOGRAMA: Gaua, etxeko egongela. Telebistaren argi oihartzunak islatzen dira horman. Emakume eta gizon bat elkar biluzten ari dira; garagardo iragarki bat, aseguru iragarki bat, detergente iragarki bat.

SILVIA: Mikel topatu dut kalean.

JON: Mikel?

SILVIA: Bai, nire mutil ohia.

JON: Dibortziatua.

SILVIA: *Nire mutil ohia*. Esan dit tailerrean lanpostu bat libre dagoela, bulegoan, eta curriculuma bidaltzeko. Baina ez dakit: bulegoko gauzak... Ordenagailuekin ez naiz ondo moldatzen. Unibertsitatean ez zen derrigorrezkoa informatika.

JON: Onartuko duzu, orduan, gizarte langintzako ikasketek ez dutela ezertarako balio?

SILVIA: Zuk Enpresa ikasketekin sekulako dirutza irabazi duzu, ala? Ez zuk... ez inork ere: denak milaeuristak! Nola zuen izena Maddiren zorioneko enpresa hark? Sar-froga egiteko Ameriketara joatera behartu zuena?

JON: Zertara dator orain Maddi?

SILVIA: McKenzie, hori da. Ba Maddi McKenziek ere ez; esku hutsik itzuli zen handik, denak bezala: urrutiko intxaurrak... Hutsaren hurrengoak zarete Enpresakoak. Zer uste zenuen ba, murtxikatu gabe irentsiko zenuela mundua? Inozo hori...

JON: Zure lan finkoak ematen dizun segurtasunetik mintzatzen zara horrela, ezta?

SILVIA: Ez da, ez, finkoa; polita ere ez. Nire aurreko lanak gogoratzen dituzu? Supermerkatua, frutategia, lurrin-denda, kafetegia, eskola garbitzen...

JON (mikatz): Torlojuen kontua ahaztu zaizu.

SILVIA: Hanka sartu nuen, bai; sinetsita nengoen erraza izango zela torloju komertzial bezala dirutza egitea. Azkenean dirua eta dena galdu genuen baina, badakizu zer?, ez naiz damu, hori behintzat ez! (Telebistari begiratzen dio haserre). Nik behintzat borroka

egin dut... Supermerkatuan jarraitu izan banu orain finkoa izango nintzatekeen, baina asmo handiko sasijakintsu batek ez konformatzeko aholkatu zidan, probetxuzko zerbait bilatzeko, bizitzan aurrera egin behar zela. Eta zu? Lehenengo lanarekin jarraitzen duzu; hori da hori bizitzan arrakasta eduki nahi izatea!

JON: Nik promozionatu dut.

SILVIA: Hamabost urtetan postu bakarra igo duzu! A ze marka! Eta bitartean ni edozein lan hartzen eta zure semea zaintzen, matxista nazkantea. Gure Jon maitea beti kanpoan zegoen eta ezin zen umeaz arduratu. Niri tokatu zait guztia: gaixotzen zenean goiz erdian eskolara bila joatea, oporretan zaintzea... Ez da harritzekoa Eneko jaio zenetik ni bajak betetzen jardun izana. Zure errua da!

JON: Nola, ba, nire errua? Lan eta lan besterik ez dut egin! Zuengatik!

SILVIA: Bai zera! Gure heroia... orain esango didazu hiru lan batera egiten aritu zarela. Nola esan zenidan? «Bi urtez lan eta lan jardun eta gero goiko postura seguru!». Batzuetan beste pertsona batez ari garela iruditzen zait, esnatu behingoz! Ezin duzu bizitza ostruken antzera pasatu. Kanpoan mundua mugitzen

ari da... (eskuak bildu ditu desespero batean, nahi gabe txalo bat eginez) ... mugitzen ari gara!

* * *

FOTOGRAMA: Jaieguna, gaua, taberna bat lepo. Hondoan, Jon eta beste sei gazte, denak hogeita hamarretatik gertu, garagardo bana eskuan, cromlech formazioan.

BATEK: Ezetz asmatu puten eta putakumeen arteko aldea? Putak denekin oheratzen dira; putakumeak, aldiz, denekin... zurekin izan ezik. Ona, ezta?

(Argiak piztu dituzte, musika iraungi. Zerbitzariek utzi egin diote saltzeari eta hozkailuak betetzen dihardute. Jendea irteten hasi da. Bi talde besterik ez dira geratzen: mutilena eta antzeko adineko neska koadrila bat).

BESTE BATEK: Joder, gero eta goizago ixten dute, hau kaka puta! Ze ostia gelditzen da irekita?

BATEK: Be-bop besterik ez. Eta diskotekak.

BESTE BATEK: Ba goazen Be-bopera, ea sartzerik daukagun.

(Neskek norabide bera hartu dute. Une batez nahasi egin dira talde biak).

SILVIA (Jonen ondoan): Zuk ez duzu asko hitz egiten, ezta?

* * *

FOTOGRAMA: Etxeko egongela. Mutur luzeak.

JON: Gaur goizean lankide bat bota dute bulegotik. Urtebete eskas zeraman enpresan; abisatu gabe, eraikinean sartzerakoan zinpeko zaindariak baztertu egin du eta kaleratze agiria eman dio sinatzeko. Kartoizko kutxa eta guzti prestatuta omen zeukan. Joder, lanera joateko esnatzen zara egun batean eta ordubete geroago kale gorrian zaude.

SILVIA: Ezta okurritu ere orain lanik gabe geratzea, e?

JON: Soldata jaitsiko digute. %10 inguru.

SILVIA: Berriz? Baina ze... Eta zer esan diezu?

JON: Zer esango diet ba? Ezer ez.

SILVIA: Non galdu zenuen harrotasuna? Beti apal-apal... Bizitzan burua jasota joan behar da, bestela leku guztietatik egurra! Hamabost urtez hor buru-belarri lanean, goizeko zortzietatik gaueko auskalo ze ordutara, kaka zahar bat kobratzen... eta Jon jaun txit argiak zer egin du hamabost urte hauetan? Isil-isilik

lan! Protesta bakar bat ere ez. Bajarik ez. Soldata igoera eskatzeko adorerik ez. Langile perfektua zara, geldoena! Zubi batetik behera salto egiteko eskatzen badizute, pentsatu gabe egingo zenuke.

JON: Tira, tira.

SILVIA: Hau poza... orduan jarraitu beharko dut atso denda madarikatu hartan. Baten batek ekarri beharko du dirua etxera.

JON: Baina ez naute bidali.

SILVIA: Oraindik ez! Dedio, nazkagarri horiek agoantatzea, hau panorama!

* * *

FOTOGRAMA: Ilunabarra, kalea. Jon arnasestuka heldu da Silvia itxaroten ari den kale kantoira. Musu emateko keinua egin eta Silviak masaila ukatu dio.

SILVIA: Hogei minutu zure zain. Zer zara, Espainiako presidentea?

JON: Benetan sentitzen dut baina nagusiak azken momentuan harrapatu nau eta...

SILVIA: Beti bada zerbait, dela zorioneko lana, dela zoritxarreko nagusia. Eta ni beti itxoiten.

(Ibiltzeari ekin dio errieta egiteari utzi gabe. Jon ondoan doakio, noiz edo noiz baietz buruarekin eginez. Altzari denda baten atarian Silviak alkandoraren lepoa txukundu dio. Jonek beirazko ate ireki eta harreran dagoen neskarengana jo dute).

SILVIA: Kaixo, Esmeraldarekin gelditu gara.

(Berehala etorri da berrogei urte inguruko emakumea, dotore jantzita. Konfiantza handiz agurtu ondoren, logelen erakusketara lagundu die berritsu).

ESMERALDA: Klasiko bat duzue hau. Beste tonu batzuetan ere badauzkagu alfonbrak eta ohe-markoa, baina, zer nahi duzue esatea, niri gris hau iruditzen zait eleganteena.

SILVIA: Ez dakit, ez dut Jon oso ziur ikusten. Zer iruditzen? Jonek ez ditu kolore ilunak atsegin... Gainera, nahiago du armairua pixka bat handiagoa izan dadin.

ESMERALDA: Bai, gizon hauek ez dute onartu nahi baina azkenean guk baino leku gehiago behar dute.

(Hainbat logelatatik igaroko dira. Esmeraldak Silviaren lilura antzemango du halako batean eta luzatu egingo da azalpenetan):

ESMERALDA: ...eta aurtengo modakoa da. Gortinen apaingarri horiek orain gutxi heldu zaizkigu. Zoragarriak dira.

SILVIA: Hau gustatzen zaio Joni, igartzen diot... Baina prezioa ez da batere merkea. Eta hau beti preziora begira dago, dena esan behar badizut. Ze deritzozu, Jon? Begira, liburuak uzteko txoko bat du mesanotxeak; pitxia da, baietz!

* * *

FOTOGRAMA: Istiluak bost minutuz iraun du. Silvia zutik dago, Jon besaulkian tenk.

JON: Etxean lasai egon nahi dut. Nahikoa arazo badaukat lanean, gero zuk hemen etengabe egurra emateko. Noizbait atseden hartu beharko dut!

SILVIA: Niri ez oihu egin, aditu? Eta ez dizut egurra ematen, egia besterik ez dizut esaten. Desastre hutsa bazara, ez da ez nire errua! (Eskuaz aurpegia estali du. Negarrez hasi da). Ez nuen horrela irteterik nahi.

JON: Zer.

SILVIA: Hau... dena. Beste... beste ilusio bat behar dut, beste... ez dakit.

JON: Ez zaigu hain gaizki joan, ezta?

SILVIA: Ez?

JON: Begira lortu dugun guztia. Eneko eta...

SILVIA: Eneko bai... baina... ez dakit. (Paperezko zapi batez lehortu ditu malkoak). Tuntuna naiz.

JON: Zergatik?

SILVIA: Zuk uste duzu aldatzea lortuko genukeela?

JON: Nola aldatu?

SILVIA: Ez dakit. (Jonek ez du ulertzen nora doan solasa. Silviak zalantza besterik ez du). Gustuko nauzu?

JON: Zer?

SILVIA: Ikusten? Zure gustukoa banintz ez zenuke horrela erantzungo.

JON: Jakina gustuko zaitudala, Silvia. Galderak ustekabean harrapatu nau, besterik gabe.

SILVIA: Ez didazu inoiz esan ederra nagoela, inoiz ez. Edo zerbait ondo egin dudala. Edo... ez dakit... konplimenduren bat. Ezer ere ez. Momia batekin bizi naiz, zonbi batekin.

JON: Badakizu ez dudala kexarik eta gogor saiatzen naizela zoriontsuak izan gaitezen.

SILVIA: Ez du ematen pozik zaudenik.

JON: Elkarrizketa honek ez garamatza inora.

SILVIA: Batzuetan hiri handi bateko autobus geltokian bezala sentitzen naiz. Autobusak nora eraman nazakeen amesten baina autobusera igotzeko adorerik gabe beti.

JON: Igo ba. Ez... ez dizut ulertzen.

SILVIA: Igo naiz jada, Jon; horixe esan nahi nizun, badirela sei hilabete igo naizela. Eta ez dago atzera bueltarik.

JON: Hori esan nahi zenuen *igo*-rekin.

SILVIA: Bai, horixe.

(Isilean geratu dira).

JON: Nik ere... (Eztarria garbitu du). Nik ere, zera... azken laneko afarian...

SILVIA: Zer, Gabonetan?

JON: Bai.

SILVIA: Ordu bietan itzuli zinen.

JON: Lehenago.

SILVIA: Begira egidazu. Begira egidazu eta esadazu egia dela.

JON (etsita): Ez.

SILVIA: Adarrak jartzeko gauza batzuk behar dira. Besteak beste: potroak. Zuk, baina, ez dauzkazu.

JON: Eta zu... beste batekin... ?

SILVIA: Bai.

JON: Baina nirekin jarraitu nahi al duzu?

SILVIA: Ikusten? Engainatu zaitudala esan dizut eta ez zara haserretu ere egin. Ez duzu odolik! Nahiago nuen adarren gezurrarekin jarraitzea! Horretarako, ordea, ausardia falta zaizu; horretarako ere bai. Ez duzu inoiz nigatik borrokatu: gugatik. Ez duzu inorenganako sentimendurik. Ez duzu zeure burua ere maite. Batzuetan duda egiten dut, bularrean bihotz bat edo patata bat, zer ote daukazun!

JON (lotsatuta): Egia al da?

SILVIA: Zer.

JON: Beste tipoarena.

SILVIA (logelara alde eginez): Izango ahal da!

* * *

FOTOGRAMA: Gaua, sukalde zahar bat. Mahaian postreak. Flan bana jaten ari dira Manoli, Jon eta Silvia.

MANOLI (atseginez errainari): Har ezazu beste bat, maitea. Inoiz baino gehiago jan behar duzu (Silviaren sabel haurdunari seinalatuz).

SILVIA: Beteta nago, eskerrik asko.

MANOLI (platerak biltzen ari dela): Bizitzaren latza! Gazte zarenean ez duzu ezertan pentsatzen: dena inertziagatik egiten duzu. Miseria gorritik irteteko ezkontzen zara: media pare bat eta kulero batzuk erosi ahal izateko, bai horixe.

(Silviak aztoratuta begiratzen dio Joni. Ez dirudi hau entzuten ari denik).

MANOLI: Aitaren karteratik senarrarenera pasatzen zara; beti inoren menpe, beti diru eskean. Bizitza osoa ematen duzu besteengandik dena ematen eta, bat-batean, zahartu egin zarela konturatzen zara. Hankek min ematen dizute, eta artikulazioek, eta bizkarrak. Begira atzamar hauei. Hain ondo josten nuen! Eta orain komeriak haria ere hartzeko. Baina, beno, ez dizuet gaua mikaztu nahi, atso mingots bat besterik ez naiz-eta.

SILVIA (altxatu egin da): Oso ona zegoen afaria. Orain alde egin beharko dugu, Manoli. Jonek igande arratsaldeetan lan egiten du etxean, badakizu.

MANOLI (dezepzioa ezin ezkutatuz): Jakina, maitea, jakina. Ez dizuet denbora kendu nahi.

(Pare bat minututan agurtu dute eta presaka irten dira).

SILVIA: Etortzen naizen azkeneko aldia, aditzen? Ez dut hau jasan beharrik; are gehiago hemendik aurrera, umearekin. Hobe legoke zahar-etxe batean! Ikusi al dituzu armairuak? Urteak garbitu gabe, lepoa egingo nuke.

* * *

FOTOGRAMA: Goiza, Manoliren etxean, seme ertainaren gela ohia. Jon galtzontziloetan, burugaineko soilguneko ile finak tente. Nerabezaroko ohean eserita dago, bezperan Silviak arineketan prestatutako maletako ondareak zenbatzen. Alkandora eta jertseen artean, paper solte bat:

> «Barkatu hau aurpegira ez esatea, baina nahiko zaila izan da erabakia hartzea. Dibortzioa nahi dut. Gure artekoak aspaldi ez du funtzionatzen eta denontzat onena bukatzea da. Horrela errazago egingo zaigu bizitzaren zati berri bat hastea. Epaiketa eta kontu guztiak pasatu arte hobe da Eneko ez ikustea. Nire abokatuak deituko dizu xehetasun guztiak azaltzeko».

* * *

Zapla.

Eta ostia honekin amaitzen da gure pelikula. Gogoratzen Kosmonautak pareta buruarekin behin eta berriro jotzen zuenean? Anaia azkenean ulertzen hasiko zara, bada marka!

Egunen batean ohartuko zara, zure okerrak ez direla besteen errua izan. Bizitza horrenbeste makotu bazaizu, zure arduragabekeriagatik besterik ez dela izan ametitzen hasi beharko duzu.

Eta behingoagatik onartuko didazu, hobe gaudela horrela. Hilda. Biok. Heriotzan. Akabu luze honetan. Kordearen azkentzean. Bake santuan.

Ez dakit ideia harrapatzen hasi ote zaren...

Beti amarrutan! Iruzurti bat zara! Gezurrontzi betea! Esaten duzun ezerk ez dauka zentzurik!

Zentzua? Zeinen hitz ergela den hori! Ezerk ez dauka zentzurik. *C'est la vie.* Seko gaude, bi metro lur azpian. Hain hilik, non denak berdin digun. Mundualdi goxo honetan gauza bakarra egitera derrigortuta gaude: hiltzera. Handik aurrera, askatasuna! Esan dizut hamaika aldiz: ez dago araurik, ezta horthographycoak ere! Kar kar kar... Bizitzarik gabe dena

zaigu zilegi! Ezer ez galtzeko! Jainkoak gara, deabru adarjotzaileak; ez al zaizu gustatzen? Hau da astaputza!... Ni, hemen, poesia egiten, eta babalorea egokitu zait aldamenean. Behintzat Santxo Panza bazina... enfin.

Inpostore bat zara! Trikimailu zikinak, intriga faltsuak, asmazio ustelak... ez darabilzu besterik.

Hara harroxkoa! Ez ahaztu kontatu berri dizudana gerta dadin, baldintza zail bat bete behar dela: inork zu ez garbitzea; ez gehiago ez gutxiago. Eta jakin badakizu ez zela horrelakorik gertatu. Hau guztia jolas komiko bat izan da, zizka-mizka gozo bat, Hamleten katamalo dantza, maskarada bat nobelaren barruan. Zugatik egin dut, kokoloa; batez ere, zure kasuan bizitzea merezi ez duela frogatzearren. Ikusten? Bihotz onekoa naiz gero! Azkenean adiskidetu eta guzti egingo gara, bai, zu eta biok. Denbora soberan daukagu horretarako: eternitate osoa.

Baina... *beware the idus of March*: iragar diezazukedana aurreko bertsio eztituak baino zakarragoa izango da. Gordinagoa, mingarriagoa, benetakoa. Egiten duzuna egiten duzula... edo, agian, juxtu horregatik...

Zoaz infernura!

Infernuan gaude, laztana. Zer izan daiteke, ba, betierea baino gauza infernutarragorik? Eta Azken Judizio iritsi bitarte, utzidazu denbora pasa hau gozatzen. Benetan ez duzu jakin-minik? Etorkizuna oparoa baita zu gabe. Izan ere, istorio honetan azkenean, galtzaile bakarra zeu

IZANGO ZARA

Sentsazioa gogoratzen dut: lehertuta nengoen, adiera guztietan.

Ideia bat eman didazu; ikus dezagun Ibon Sarasolak zer dioskun:

> **lehertu, leher** edo **lehertu, lehertzen** da-du *ad.* (1571)
>
> **1**. Barneko indarrak eraginik edo barneko mamia irteten dela ireki; indarrez eta gehienetan zarataz hautsi, pitzatuz edo zatiak jaurtikiz. Ik. **leher egin; zartatu (2)**. || Erabat nekatu. Ik. **leher egin.**
>
> **2**. *Batez ere ipar.* Zapaldu, zanpatu.

Ohe gainean nengoen, galtzontzilotan. Begi zabalik ari nintzen lotan. Gau luzea izan zen, erdi mozkortuta nengoen artean. Eta, beno, zerbait gehiago.

Oinak arrastaka, irekita darama pijamaren jaka: Spock kapitaina irribarretsu sartu da.

Irekitzen sentitu nuen eta ez nintzen mugitu. Zertarako? Neu nintzen orduan autista. Mundua behera erori zitzaidan eta ez neukan ezer, ezta bizitzeko go-

gorik ere. Hutsik sentitzen nintzen. Jarri zaitez nire egoeran: bizitza irauli zitzaidan deus ere egin gabe.

Poliki-poliki zabaldu da atea, mamu baten eskuak bultzatuko balu bezala: betor epailea.

Gauza bakarra buruan: Txefe ero moduan oihuka, Hodei polizien gainean kolpeka. Ez nuen inoiz horrela ikusi, bere onetik irtenda. Heldu egin behar izan nion. Hodei ez zen inoiz oldarkorra izan.

Eskuak altxa eta txalo baten keinua egin du; ahurrak, hala ere, ez ditu bildu. Irribarre zuhurra, beste aldera biratu eta imintzio berriak antzeztu ditu isilean. Bi, hiru, bost minutuz aritu da mimo baten antzera, airezko kaiolaren paretak ukituz, tai-chia egunsentian.

Gelditu egin da bat-batean, arreta anaiarengan pausatuta.

– Zer, mutu geratu haiz? Non laga duk ausardia, gudari? Ez daukak barrabilik? Ez ditiat ikusten, maritxu hori! Hasi hadi igogailuarena egiten, ORAIN!

Biluzik eta begiak estalita, Txefe makurtu eta altxatu egiten da mantso.

– Besoak gurutzean! Subnormal ederra eginda hago: AUTISTA! Ahaztu egin zaik jadanik ala? Eta ezta mugitu ere, muturra berotuko diat-eta!

Minutuak hostoak bezain motel erortzen dira; esfortzuaren keinua zizelkatuta dago Txeferen hazpegietan. Izerditan, arnas-hartzea bizkortzen ari zaio; erritmoa, geldotu. Aurpegia zurbil, hankak dardarka hasi zaizkio. Ziplo erortzeko zorian dagoenean heldu diote besoetatik, eta gelditzeko agindua eman dio nagusiak.

– Nekatuta hago, putakumea? Gudariak askoz gogorragoak zinetela uste nian. A ze dezepzioa!

Atea harrituta ireki du. Eskale bat ote? Gizona eta buru-estalkidunak atzean ikusteak bere ustekabea areagotu du; ahotik ez zaio hotsik irteten, ez daki zer esan. Komisarioak zakarki baztertu egin du etxekoandrea, eta ertzainak korrika baina isilik sartzen ari dira, keinuen bitartez koordinatuz, metodikoki gelak ireki eta barrura apuntatzen.

Balen kontrako txalekoekin sartu ziren, metraileta eta guzti, terrorista edo serieko hiltzailea balitz bezala. Ez. Elkarrekin hazi ginen, nire anaia zen: nola, ba, hiltzailetzat hartu?

Komisarioa zure amaren ondoan geratu da, hura artean zur eta lur. Txeferen gelatik algara. Handik gutxira arrastaka ekarri dute, bilurturik, bihurturik, belduruturik.

Amak eskuak amantalarekin lehortzea besterik ez zuen egiten, etengabe, iskanbila bukatu arte.

Agertu diren era berean desagertu dira: azkar, formazioa galdu gabe, militarren boten erritmoan. Atzean geratu dira altzari mugitu edo puskatuak, tiraderak lurrean, nahaspila. Eta atea irekirik.

Komisarioak esker oneko txaloa sorbaldan ematean, amak ez zidan gorrotoz begiratu: mespretxuz. Berehala ulertu zuen. Begiak hustu egin zitzaizkion eta hil egin nahi izan nuen momentu horretan: ba al daki inork Kainek sentitutakoa Eva berriz topatu zuenean?

Aita ordubete geroxeago heldu da. Zabalik dagoela ikusita, espantu batean sartu da: lapurreta? Herritik kanpo, ez da inoiz kaletarrekin fio.

Anabasaren erdian topatu du emaztea, aulki baten ertzean eserita, begirada lurrean galduta eta eskuak amantala estutzen.

– ¿Qué pasó, ne?

Amak negarrez kontatu zion. Gelan sartuta nengoen, zer egin edo nola erreakzionatu jakin gabe, Hodeiren adiak entzuten, amaren marmarak. Negarrez ari zen. Aitak ez zuen nirekin hitz egiteko ausardiarik izan.

Bere buruari botako dio errua: zer egin dut gaizki? Eta berehala, zure antzera, auto-errukia: zergatik niri? Nolako zura, halako ezpala. Uste eta nahi baino aitarekiko antz handiagoa zenuen.

Ordea, Manoliren sentimenduak konplexuagoak dira. Eva gai izan zen Abelen heriotza deitoratu eta negar egiteko, Kainen patuaz *ere* kezkatuta. «Ere» horretan datza ama izatearen mamia: naturaren instintua edo instintu naturala, nahi duzun moduan.

Nik dakidanez, Bibliak ez du aipatzen Evak Kainen aitorpena ikusi zuenik, bizi, sentitu. Manolik, berriz, bai; Manoliri sorbaldako txalo haiek bihotza mailukatu zioten. Zutaz sentitzen zuen harrotasuna lurrundu egin zen, eta ondoren lehortu; pena, Txeferenganako atsekabearekin estali. Nora daramate? Zer egingo diote? Zer egin dezakegu? Zer egin duzu *zuk*?

Amadeo egongelako besaulkian ezkutatu zen, argizarizko estatu bat museoan: Rodin-en *Pentsalaria* ideia batean betiko galduta, Michelangeloren *David*, gizatiarra forman baina harri hutsa eta hotza barruan. Ez zegoen mailurik botatzeko, poesia ere ez.

Momentu horretan, gertakariak bertatik bertara bizi ondoren, damutu egin nintzen Poliziara jo izanaz.

Beranduegi, adiskidea. Enkargu eder hau emateko, atera kontuak, komisarioari baietz agindu zenion momentuan bertan esnatu ninduten betiko lotik. Edonola ere, biharamunean gelatik ateratzen zara. Gauean zehar begiak bildu ezinik, eternitate bat igaro duzu ate aurrean irteteko indarrak batzen. Egongelatik pasatzean, aita besaulkian eserita sumatzen duzu, itzalita dagoen telebistari tinko begira.

Gau osoa ohean etzanda, bueltaka, loaren salbazioaren zain. Ez zen heldu. Egunsentian, unibertsitatera joan edo ez pentsatzen hasi nintzen. Egokia al zen? Zer espero zen nitaz egoera hartan? Ondo sentitzen nintzen, inguruko sufrimenduak ez ninduen hunkitzen; hala ere, ez nekien korapilo nahasi horren eragina nigan nola minimizatu. Erabat galduta nengoen.

Joateko erabakia hartu nuen. Maddi ikustea oso zaila suertatuko bazitzaidan ere, are zailago etxean geratzea. Txapa bat jasatea ispilatze goxoa zen: inork ez lidake hitz egingo, denek entzungo lukete eta errutina berreskuratuko nuke pixka batez. Pixka batez aurreko bizitza.

Badakit aitak nire urratsak pasilloan aditu zituela: zirkinik ez. Burua telebista putan sartuta jarraitu zuen, existituko ez banintz bezala. Autista ematen zuen

hark ere. Pentsamendu bitxi bat etorri zitzaidan gogora: pena eman besterik ez zuela nahi, biktimaren papera hartu. A ze familia: gutako inork ez zuen zure heriotzan parte hartu; ez zintugun ezagutzen eta, hala eta guztiz ere, zure kausaz, hortxe geunden denok puskatuta, txikituta. Denok akabatuta.

Zergatik ez nituen ezpainak josi? Isilik egon eta zama horrekin bizitzea saiatu, sekretuarekin betiko. Txefe egunero ikusi, berarekin hitz egin, hiltzaile bat zela jakinda. Gizajo bat ostikoka aurpegian hiltzeraino jotzen ikusi dudala onartu eta kito.

Joder, anaia hiltzaile bat zen eta zu garbitzen harrapatu nuen.

Segi horrela, dena dramatizatzen. Inozo hutsa zara gero! Oraintxe bertan erakutsiko dizut mina egingo dizun beste gauza bat: egia.

Bizitzan gutaz arduratzen edo kezkatzen direnei errealitatean bost axola die gertatzen zaiguna. Negar egingo dute, pixka bat agian, baina segituan ahaztuko dute. Bizitzen jarraitzeko oinarrizko babes-mekanismoa da, behar-beharrezkoa, esentziala! Edo beste modu batean esanda, teknikoagoa: ahaztera programaturik gaude. Esperantza izateko, ahaztu egin behar da. Hori bai: oroitzapen bat ezkutatzea giltzurrunetan

harri-koxkor bat txertatzea da. Hasieran ñimiñoa, denboraren poderioz hazi egingo dena. Eta gero komeriak kentzeko, komeria mingarriak. Bide batez, ondokoa, mendi oso bat zure eskuineko giltzurrunean...

Modako tokia Madrilen. Hormak ordez beira, besterik ez; kanpoan daudenek bezeroei inbidia eduki diezaieten. Eta distiraren barnean suzko edukia: ardotegi *moderno* bat, Tiffany's wine, edaria harribitxi.

Mahai altu baten ondoan, bakar-bakarrik, kalera begira –ea behingoz heltzen den, ordu erdi berandutzen ari da, mesedez puntuala izateko eskatu badio ere–, trajezko jaka eta gona, dena tonu urdinetan, zetazko zapia lepoan: Maddi.

Zer egiten du Madrilen?

Zer espero zenuen ba? Donostia txikiegia da gora eta gora igo nahi duenarentzat. Etxetik zetorkion ideia: urte batzuetan atzerrian printzesa formazioa osatu eta erregina koroaren bila itzuli.

Begira, begira... ez esan ez dela edertasunaren fetitxe bat.

Oso ederra dago, bai. Agian argalegi.

Zaharragoa ikusten duzulako. Orain ez da zuk ezagutu zenuen Lolita bero hura. Heldutasunarekin hezurdura zorroztu zaio.

Itxaroteaz gogaituta, zigarro bat erretzera irten da kalera. Hara! Zer gertatu zaio bularraldean? Ene!, anorexiak lisatutako titiak. Pena, ezta? *High society*ko *TXEMA*-izan-nahiei exijitzen zaie taula hori, derrigorrez. Geroago, senar matxistak ordainduko dizkio gomazko mardulak, erortzen ez diren horietakoak, eta akabo arazoak betiko.

Gehiegi erretzen du...

Urduri dago.

Zertan ari da hemen?

Ez al duzu ikusten? Mutilaren zain dago, edo beharbada esan beharko nuke senargaiaren zain, laster ezkonduko dira-eta.

Ezkondu egingo da?

Noski. Ez zara orain jeloskor jarriko, ezta? Edo onartuko didazu nahiago duzula betiko zugatik alargun geratzea?

Ez, baina...

Bizitza ez da inoiz gelditzen! Begira: gehiegi mugitzen du eskuineko oina, antsia batean. Beste zurrupada bat zigarroari. Kea mantso-mantso desegiten ari da, pazientzia bezala. Non demontre sartu ote da gizon hori?

Mahaira itzuli da. Beste kafe bat eskatu du. Tragoxka eman dio, eskua beti elegante, hatz txikia arinki ateratzen. Ag, ze nazka. Ez dago munduan kafe hotza baino gehiago gorrotatzen duen gauzarik. Eta hotza geratuko zaio, hainbeste denboran esperoan egoteagatik.

Kontxo, hortxe dator! Han, Versace trajeduna! Alfonso Maria Lerma di Bolzano: o sole mio! Soilik izenarengatik irrikatan egoten da jendea hura ezagutzeko. Izena eta arrosa, arrosa eta izena. Ezen kasu honetan, arrosa ere primerakoa da. To, gaur ez du gorbatarik jantzi; arraroa.

Pijo itxura ikaragarria, ezta?

Benetako pijoa izatea ez dago edonoren esku, gazte. Eta morroi horren esku, gauza mordoa: abokatu bufete inportante bateko kidea da, Porsche Cayenne bat dauka garajean, Italiako noblezia zaharren leinu printzipaletakoa du ama. Alemanez eta ingelesez bikain moldatzen da, artista golfean, dirutza du bankuan eta burtsan, palkoa Bernabeun eta, gutxi balitz, Maddiri asko gustatzen zaion gakoa geratzen zaigu; ezetz asmatu zein! Aita... hilzorian dagoena... dukea da! Trebea da *zure* Maddi hori: urliako dukesa izango da laster!

Alfonso bere buruaz harro sartuko da ardotegira. Keinu kalkulatu batez ile xerlo bat formazio perfektura itzularaziko du. Zuzen-zuzen hurbilduko da emaztegaiarengana: koadrizepsek franelaren azpian orro egin dezaten, bularraldea gora, esku handiak atzera eta aurrera urrats atletikoekin. Zeure burua atsegin ezazu mirets zaitzaten: pantera elastikoa naiz, harmoniatsua, leuna eta plastikoa alde batetik; basatia, harroa, ausarta eta garailea, bestetik. Batez ere garailea.

– Ze ederra zauden, bihotza! Ene, badakizu konjunto hori maite dudala? Esan izan dizut, ezta? Horregatik jantzi duzu, baietz! Ea, eman musu bat, laztana.

Haserre aurpegia jartzen saiatuko da Maddi. Ordea, artean gaztelu osoa konkistatua izango ez duenez, ez ezkontzarainoko beste, ezin izango du normal samarra dena baino eszena zapuztiagoa egin. Alfonsok irribarre egingo du, gustura, dirdiraz.

– Eskatu duzu jada? Ondo. Tira, gaur egundokoa gertatu zait. Luccianok deitu dit eta... ezetz asmatu: bi txartel ditut lehenengo klasean bidaiatzeko. Ditugu, hobe esanda.

– Nora?

– Erromara! –eskua ferekatuko dio, pozik.

Kristoren dirutza utzi du ortodontzian. Begira ze nolako hortzak dituen kabroi horrek!

Ez pentsa. Ama ezagutuko bazenu berehala ulertuko zenuke nondik datozkion. Nobleen kumeak edo atzeratuak dira edo ezin ederragoak, segun noren antza duten. Kasu honetan, gainera, aita hil egingo da amari apenas adarrak jarri izan gabe.

– Erromara? Alfonso, horrelako gauzak egin aurretik niri galdetu –gonbidapenak txoratu egiten duela ezin disimulatuz–. Noizko dira?

– Hiru aste barrurako. Utzi dena nire esku, bihotza. Nik topatuko dut hotela. Aizu, hori al da San Valentinerako oparitu nizun eraztuna?

– Hauxe bera, ez al zara ba gogoratzen?

– Egun gogorra izan da gaurkoa. Lur jota nago. Monica!, nola zuen izena Hegoafrikako ardo hark? Aurreneko aldikoak? Bai, ekarri egidazu kopa bat, arren. Mila esker, polit hori.

Nola da posible hitz eta irribarre aldi berean egitea?

– A!, ahaztu aurretik: datorren astean Munichera joan beharko dut berriz. Badakizu, Volkswagen. Ez du batere itxura onik, eta horregatik bidaliko naute ni.

Maddi elkarrizketaren norabidea aldatzen saiatuko da:

– Alfonso...

– Itxaron, bihotza. Ezetz sinetsi! Sartu naiz bulegora eta zer aurkitu dut? Saezen abisu bat, datorren asteko kontu guztiak Mario Fuentesi pasatzeko. Mario Fuentes, marka da, gero!

– Alfonso...

– Zer egin dut orduan? Ba, Saezen bulegora zuzenean jo eta nireak eta bi bota dizkiot. Estiloz, noski, baina pentsatzen nuen guztia. Nire uste apalean, esan diot, *dena* egiteko gauza naiz. Datorren astean oso gauza delikatuak ditugu esku artean eta dena ondo irtetea nahi dut. Saez serio ipini da, badakizu nola begiratzen duen, eta baietz esan dit. Ene! Momentu hartan gustura joango nintzatekeen Mario Fuentesengana kalera ostikoka botatzeko, izorra bedi! Tontolapiko horrek kasuak hain erraz lapurtuko dizkidala pentsatzen badu... Mila esker, Monica; tori, dena kobratu eta gorde bueltak.

Kristoren eskupekoa utziko dio!

Erne zerbitzariak nola begiratzen dion gure Alfonsori: jan egingo du begiekin! Horrekin *ere* txortan egingo zuen honezkero, afari bat baietz!

– Biribil irten zait, gero Saezek deitu egin baitit, kontseiluaren hurrengo bilera *nirekin* prestatu nahi duela esateko. Ikusten? Kontseilua! Eta Volkswagenekoa ongi ateraz gero...

Baina zein demontre da morroi hau? Ze ostia pentsatzen du.

Ze ostia zer? Hogeita hamabi urte egin berriak, abokatu ezaguna, diruduna, etengabe bidaian eta ohean makina bat.

Ba, ez entzunarena egiten dio Maddik!

Bai zera! Erromara eramango du. Zenbat bidaia erromantiko egin zituen zurekin? Eta first class-ean, arlote baldar hori!

Baina zer bidaia eta zer erromantiko! Nire ikasketak ordaintzeko egiten nuen lan eta bere asteko paga nire soldata baino handiagoa zen.

Maitasunak mirariak obratzen ditu! Orain ixo eta erne, onena galduko duzu-eta:

– Beno, bihotza, eta zu zer?, zer moduz bulegoan?

– Ezer berririk ez.

– Orduan, dena ondo. Ahaztu aurretik: laster izango da anaiaren lizentziatura. Jai txiki bat antolatuko dugu etxean eta *la Mamma*k zu gonbidatzea eskatu

dit. Promozio-kide batzuk etorriko dira, irakasleak... betikoa. Baina ondo pasatuko dugu.

– Ados.

– Zer duzu? Beste kafe bat nahi? Nik ez dut beste koparik hartuko. Autoa hartu behar dut eta kontrol madarikatu horiek...

– Nora joateko?

– Gurasoen etxera afaltzera.

Maddi asko haserretzen hasia da, orain bai.

– Ez genuen ba esan geu joango ginela afaltzera?

– Laztana, astelehenean esan nizun ezin nuela.

– Ez.

– Ziur nago. Agendan idatzita daukat –mugikor ultramodernoa atera du patrikatik–. «Cena da Mamma» –italieraz ahoskatu du, natural asko–. Bihar joango gara gu, bai, ideia ona da. Berehala deituko dut Asadorrera, biharko. Planik bai? Ups, itxaron –telefonoak Real Madrilen ereserkia jo du–. Kaka! –atsekabe teatrala–. Oraintxe bertan itzuliko naiz, bihotza. Ni gabe ez dute bizitzerik –kalera irten da.

Espaloitik urrunduko da pixka bat, ardotegiko leiho handiari bizkar emanda.

– Zenbat aldiz esana dizut ordu honetan *ez* deitzeko? Burutik zaude, neska? Maddirekin nago, ostia...

Bai, noski joango naizela, arazorik ez. Egin beharrekoa bertan behera utzi dut... Bai, ez kezkatu... Ados, neuk egingo dut. Hala, gero arte, eder hori... sekulako gogoa daukat zu harrapatzeko, ikusiko duzu!

Kabroia! Beste batekin dabil!

Zer espero zenuen ba? Begira, begira: Maddik isilean entzungo du azalpena. Horrelako morroiek beti daukate azalpen bikain bat errekamaran.

– Volkswagenekoak berriro ere. Aleman hauek gauera arte lanean, izugarriak dira!

– Alfonso, ez duzu alemanez hitz egin.

– Han denak ez dira alemanak. Hona deitzen dutenean espainol bat jartzen dute solaskide. Bizkorrak dira gero!

Maddik irribarre ironikoa egin du.

– Zer.

– Ezer ez.

– Maitea, begiratu egidazu. Haserretu egin zara afariarenagatik.

– Ez.

– Ezagutzen zaitut.

– Ez nago haserre.

Alfonsok aurpegia ferekatu dio. Maddik pixka bat aldendu du burua, baina baita berehala damutu ere.

– Nahi baduzu amari deituko diot, zurekin geratu naizela eta ez noala esateko. *Ziur* nago ulertuko duela. Laztana, begiratu egidazu. Nire errua izan da. Konforme? Amari deituko diot oraintxe bertan. Ulertuko du zurekin geratu nahi dudala.

– Badakizu ezin duzula egin.

– Nahi duzu deitzea? –mugikorra hartuko du.

– Zure amak erotuta nagoela pentsatuko du, ez dudalako nahi zu Sierrara berarekin afaltzera joatea.

– Neuk azalduko diot dena, *non c'e' problema*. Tira, badakizu *la Mamma* zelakoa den baina...

– Ez, utziozu.

– Printzesa, begiratu egidazu –Maddiren eskuari eutsita.

– Beti aldatzen dituzu planak...

– Ez al naiz, ba, zurekin afaltzen joaten? Ez al naiz, ba, zurekin nahiko egoten? Maitea, bufeteko bazkide askok nik baino askoz urriago ikusten dute emaztea. Asadorrean erreserba egin berri dut biharko. Horregatik luzatu naiz hainbeste kanpoan. Zuk nahi duzuna zera da: mimoak eta musu gehiago, baietz? Nire mimosa maitea...

Kilimak egin dizkio eta Maddi irri ez egiteko borrokatu da.

– Eman musu bat. Ene, berandu da! Joango al gara? Bestela presaka ibili beharko dut autoan!

Bikote ederra osatuko dute, ezta? Maddi hain pinpirina, Alfonso hain garaia. Gizon eleganteek atea eusten diote emakumeei pasatzen uzteko: garesti ordaindutako hezkuntza. Baina digresio debaldekoetan galtzen ari naiz. Harira: iluntzea Madrilen, arima galduak agertzen diren ordua.

– Autoz etorri zara, bihotza?

– Ez, noski, zurekin itzuliko nintzela uste nuen.

– Oooso berandu noa. Metroz joatea inporta? Edo neuk ordainduko dizut taxia.

– Metroz joango naiz.

Atsekabea. Nekea. Gaztetasuna zimeldu zaio Maddiri. Ikusten?

– Ez egin orain eszena bat, maitea. Badakizu ahal izango banu...

Maddik ez daki argi zergatik, baina Alfonsorekin ez du inoiz muinera heltzea lortuko. Berriketan hasiko zaio eta Maddik ezin izango du harira jo. Ezinegon arin bat sentitu du, barnean aspalditik nabari duena: ezerk ez diola benetan axola, korronte batetik atera ezinik doala, bizitza bere gorputzetik kanpo gertatzen ari dela, besteen pelikuletan kuxkuxean ari dela.

– Zurekin hitz egin nahi nuen.

– Hizketan jardun dugu! Zer nahi duzu? Aste osoan ez dut segundo bat bera ere libre. Neuretzat ezer ere ez, eta ez didazu kexarik entzungo. Gaur ez dut zuretzat ia astirik izan. Badakizu sentitzen dudala, nire *priority number one* zarela. Zugatik egiten ari naiz den-dena eta ez didazu inoiz eskertzen.

Azken horrek Maddiren kontzientzia txarra esnatu du. «Bingo!» pentsatu du Alfonsok.

– Benga, eman musu bat. Umm, badakizu maite zaitudala. Betiko, bihotza, betiko –besarkatu eta musuak eman dizkio bekokian, sudurrean, ezpainetan; eta belarrira xuxurlatuko dio–: Bihar elkarrekin lo egingo dugu.

– Ados –Maddik, triste eta pozik aldi berean.

– Deituko dizut. Gau ona pasa, maitea.

Urruntzen ikusi du Maddik. Berokiaren lepoak igo eta udazkeneko ilunabar hotz eta haizetsuan abiatu da metro geltoki gertuenera. Urrats erregularrak, takoien metronomoa: tok-tok-tok. Pentsamenduetan galduta joango da, poltsa esku batean, bestea poltsikoan. Egun osoan bueltaka izan duen ideia berbera biraka. Batzuetan hobe izaten da datarik ez jakitea.

Putakume halakoa!

Lasai, inork ez du-eta Maddi printze horrekin jarraitzera behartuko. Eta hala ere, hortxe daukazu, lau urte elkarrekin.

Lau? Guk ez genituen bi urte ere bete. Maddi gaixoa.

Bai, gaixoa. Ez al dakizu ez zela zure hiletara joan?

Ez? Benetan? Ez nuen halakorik espero...

Iltzea ondo sartuta geratuko zitzaiola uste zenuen; mutil-lagun idealizatua hilda, helezina betiko, beste harreman bat hasi eta gozatzen galarazten... bai zera! Mozkorrak utzitako iltzea beste iltze batekin kentzen da. Maddi berekoiegia zen zuk espero zenuen papera jokatzeko. Eta azkarregia. Hori bai, aitortuko dizut hiletarena bidezkoa izan zela: ongia eta gaizkiaren arteko gatazkaren beste kapitulu bat bihurtu zuten, Starwarsen hamargarren ondokoa edo aurrekoa, ez dakit nik. Alde batetatik, espainolistak martir baten familiari elkartasuna adierazten une latz batean; bestetik, aurrez aurre, independentistak presoen argazkiekin, traidore salatari bati beren nazka erakusten.

Inprobisatu egin zizuten hileta. Eta badakizu: azkar eta ondo, usoak egiten du hegan.

Telebistako kamerek alde bakarra erakutsi zuten: ikusleak, txaloak, esku zuriak altxatuta, zipaioak segi-

zioari babesa ematen errenkadan... Portadowngo Orange ibilaldia zirudien! Izugarrizko zirkua antolatu zuten eta, gainera, arrazoirik gabe berriz ere.

Hori ez zen txarrena izan: *hereneko egunean* zure hilobia hutsik agertu zen. Artxila-murtxila: *resuszitatu* egin zinen!

Ez, txantxetan ari naiz, txotxolo. Hirugarren egunean zure hilarria pintadez beteta agertu zen: «Izorrai»; «Preziadotarrak: Heroia eta Kabroia»; «Kain hobira, Herria ogira»; «Herriak ez du barkatuko».

Ikusten gorrotoa zenbateraino heltzen den? Gutxienez bi astez telebistako zaborrontzia elikatzen jarraitzeko adina. Irudika ezazu egoera, merezi du-eta: politikariak gaitzespenik zorrotz eta erabatekoena botatzeko lehia sutsuan, bizilagunak saioz saio zeure bizitza eta mirariak goraipatzen, kazetariak zure gurasoen etxea setiatzen... mundiala!

Hilerriko arduradunak ezabatu egin zituen, babalore hark, baina etxeko atarikoekin gertatu bezala, berriz agertu ziren, onddoen antzera. Bigarren aldiz garbitu eta, badaezpada, udalak zainketa berezia jarri zuen.

Hiru hilabete geroago, zaindarien zerbitzua kendu bezain pronto, zas, hilerriko mamu grafitizaleek beren

eginkizuna bete zuten, aurrekoan baino handiago eta zitalago.

Tirabirak luze jo zuen arren, azkenean bi funtzionario joan zitzaizkion Manoliri, atsekabe handiz esanez garestiegi ateratzen zela kanposantuaren zainketa eta hantxe geratuko zirela pintadak *per saecula saeculorum*. Zuen amak ez zuen beste aukerarik izan: makurtu, irentsi, amore eman.

Tira, baina itzul gaitezen zu gabeko Maddirengana, horixe da-eta gehien ardura dizuna. Ezetz asmatu zergatik gaur, gaur bertan, etsi-etsian egon behar zuen bere mutil-lagun eredugarriarekin?

Nik zer dakit!

Pista bat: kasualitatez, lagun guztiak kanpoan egongo dira...

Ez da koldarra; ez dut uste gauean bakarrik egoteari beldur dionik.

Beldur? Nork esan du beldur dela? Oker zaude, beti bezala. Ez al dakizu zer egun den gaur?

Independentzi eguna?

Mozoloa! Zuretzat oraindik data bereziagoa: duela hamar urte hil zintuzten!

Eta gaur, gaur zehatz-mehatz, Maddik ibilian jarraituko du, metro geltokian sartu beharrean. Ez du in-

darrik izango lurpera jaisteko, aire berora, jendearen joan-etorrietara. Autobusa hartuko du, atzealdean eseriko da, kristalaren kontra bermatuko du burua eta farolen argien igarotze azkarrari so egingo dio. Zalantza izango du bidaide. Eta autoerrukia.

Ametsak ez dira bete.

Autobusez ere abiatuko dira beste horiek goizaldean, eguzkia atera aurretik. Kantauri aldean gaude, hirurehun bat kilometro iparralderantz. Begira: umeak, zaharrak, bikoteak, koadrilak. Herri oso bat txangoan? Mendizaleak? Done Jakue bidea familian? Ez, presoen senideak bisitan, penintsulan barrena.

Txefe ElPuerton giltzapetu zuten hasieran. Orain Manoli poz-pozik dago Sotora *hurbildu* dutelako. ETAren iragarpenaren ondoren, gainera, kasu arinak Euskal Herriratuko omen dituzte zuhurki eta sekretupean: esperantza. Hiru urte daramatza epairik gabe. Ez dago presarik, legeak ezartzen duen epea ez baita oraindik gainditu.

Soto... del Real? Hori ez al dago Madrilen?

Eta? Zer esan nahi duzu horrekin? Ez hasi orain inkonstituzionala dela eta txorakeria horiekin. Hau ez da haur-jolas bat.

Nahasiak entzuten dira euskara eta espainola:

– Belauniko, cabrón! Erdira joan hadi, hijoputa! Mugi ezak ipurdi zikin hori!

Txefek katuka egiten du aurrera, begiak estalita, kontuz, talka egiteko beldurragatik burua makurtuta.

Hanka bat jarri diote gerrian, eta geldítutakoan bultza egin dute, lurrean pirrilaka joan dadin. Oin batek barrabilak zapaldu dizkio. Txefek garrasi egin du, eskuak bizkarrean bilurtuta dituela.

– Zer pasatzen zaik... mina? Kabroi hori!... Eta hi eusko gudari bat haiz? Ez, hi marikoi puta bat haiz, zakil ipotx horrekin. Baietz zakilak zupatzea gustuko! Mutilak, ikusi diozue ipurtzuloa? Zabal-zabalik zaukak! Belauniko berriz ere!, nork esan dik etzanda egoteko?

Agindua bete ahal izateko borroka egin behar du Txefek, oin azpitik eskapatu. Min handiagoa.

– Makur ezak burua, zerrikumea! Orain ikusiko diagu ea atzetik gustuko duan... Ziur nagok baietz.

Ahalegin handia eginda tentetu eta korridorean geratu da zutik.

Zuen ama asko gizendu da azken urteotan. Hobe berari ez esatea, baina Lita Julianaren itxura hartu du! Lodi eta zatar, autobuseko azken eserlekura joan da, hara iritsi orduko bueltan itzultzeko. Zirkulazio arazo-

ak ditu hanketan. Ez zaio batere komeni hainbeste denbora eserita igarotzea.

– Ze, Manoli, bisitan berriro ere? –hogeita bost bat urteko neska batek.

– Bai, ea dena ondo doan.

Atsekabea nabari zaio ahotsean. Baina, itxaron: zure amarengandik esperoko ez zenuen beste gauza bat igartzen zaio hitz egitean: indarra.

Autobusean jarrera anbiguoa dute berarekin. Alde batetik estimatzen dute, bihotz onekoa dela nabaritzen zaiolako; bestetik, ez da erabat *integratzen*; baina okerrena... zure kontu arraro hori ez du inork ahaztu.

Ze kontu eta ze ostia?

Ene, dena azaldu behar dizut, ala? Manoli terrorista baten *eta* salatari baten ama da, biena aldi berean, harri batez bi kolpe. Beherapenak, eskaintza berezia: biak baten prezioan, zer iruditzen?

Tematu egin zara horrekin!

Bizitzaren ironia: nori eta Manoli Fueyori buruz ari gara, *apolitikoa*, iskanbila haietatik beti behatz-puntetan igaro dena. Badakizu: inor hiltzea gaizki dago, terrorismoa txarra da, denok elkar maite behar dugu, *gerrari-ez* eta Jainkoak salba gaitzala azken egunean.

Berak asturiartzat eta espainoltzat du bere burua, buelta askorik eman gabe, beste batzuk Perpinya, Brusela edo Saharakoak diren bezalaxe. Familia da bere aberria: semeak. Handik harago, ezer ez.

Manoli gaixoa: alarguntzean erosi ahal izan zituen behingoz media pare bat eta kuleroak nahieran eta noiznahi. Patriarka hilda, Txefe kartzelan eta *kometa* kaiolaturik, etxea hutsik geratu zitzaion bat-batean. Jaiotzatik beti jendez inguraturik eta zahartzaroan, zapla, bakarrik!

Isolamendua apaltzeko atsoak askotan oroitzapenak birlanduz kontsolatzen dira. Zuen amak, baina, presaka pasa du bizitza, kezkek estututa, lanez lepo, larri. Koherentzia eta zintzotasuna, horiek salbatuko dute beharbada; memoria ez zaio gelditzen. Amadeo esfingearen bihozberatasuna? Hobe elur-gizon batekin oheratzea! Semeen esker ona? Mespretxatu ez zenuten aldi bakar hartaz ez dago gogoratzerik!

Zure heriotza baino, berea penatu du doluan.

Eta geratzen zaion zirrikituari heldu dio grinatsu: Txeferi. Denetik egingo du harengatik. Misio berri bat da Manolirentzat, uste zuena baino arinagoa, denbora librea baitu lehen aldiz, pasieran ibiltzeko, lo egiteko, telebista ikusteko, lasai egoteko. Malenkonia heda-

tzen zaiola sentitzen duenean, semea ziega batean irudikatuz egiten dio kontra, handik irtetean izango duten poza aurregozatuz.

Imajina ezazu nolakoa izan zen haietako autobus batera lehenengoz sartzea. Ezinegonean igaro zuen bidaia osoa, pelikulen ordez ETAren bideoak itxaroten, tipo bat buru-estalki eta metraileta eskuan ondotik pasatzen noiz ikusiko. Baina kartzelatik bueltan, enpatiak ezjakintasunaren horma eraisten lagundu zion: aurpegi tristeak, atzean geratzen zenagatik jendea sufritzen.

Hogei urte kalkulatzen nizkion kartzelan, hogei gutxienez. Zazpi mila eta hirurehun egun. Eta Maddik ezin zuen ulertu pisu horrek eragiten zidan oinazea. Gero esango digute hitzek ez dutela errealitatea eraldatzeko botererik.

Polizietako bat aldamenean makurtu zaio Txeferi eta, kezka itxurak eginez xuxurlatu dio:

– Hi, gauza bat ahaztu zaidak esatea. Anaia ere atxilotu egin diagu; badakik, pitzatuta dagoena. Bidean zatorrek. Heltzen denean entzungo duk.

– Hodei? –izutu egin da Txefe–. Ez dago pitzatuta! Autista da! Gaixo dago...

– Eta? Oldartu egin zuan. Horretarako ez duk autista, ezta? Ba orain barre batzuk botako ditiagu bere kontura.

– Ezin duzue hori egin, autista da! Ez da ezertaz konturatzen!

– Zaplazteko batzuekin Rocio Juradoren antzera egingo dik kantuan, egingo ez dik ba! Autista gehiago ere izan diagu hemen –barre algarak egin ditu– eta den-denak sendatuta irten dituk!

Antsietate atake bat izan du Txefek: dar-dar batean dago, izerditan, bihotza bizkorregi taupaka, lehertuko zaiolakoan, arnasestuka, begiak lausotzen hasita. Akabo. Tenperatura igo egin da. Arratsalde gozo bat izango da, udaberrian sartuta, luzeago datozela egunak. Ama talde bat banku baten inguruan, haurren ogitarteko bukatu gabeak eskuetan, aluminiozko paper irekiak. Noizean behin, umeei deituko diete beste hozkada bat eman dezaten.

– Benga, gehiago. Geeehio esan dizut!

Haietako batek kotxe urdin bat kulunkatuko du atzera eta aurrera emeki. Haurrak pilotarekin jolastuko dira, korrika hemendik hara, zalaparta batean, lau urte inguruko deskoordinazioarekin.

Non gaude?

Siberia-Gasteizen. Ez duzu ezagutzen, ezta?

Zertan ari gara orain hemen?

Parkera etorri gara. Begira umeei, ze zoriontsu dauden! Parkean jolasten zinen zu ere txikitan?

Auzoan ez zegoen parkerik.

Nik, aldiz, parke ederra neukan etxean bertan. Gaixoa, gure Jon. Entzun: ama hark umetxoa aterako du kotxetik eta besteek betiko komentarioak botako dizkiote: «ze handi dagoen», «ze ederra den».

Bi hilabete egin berriak ditu. Bularra emango dio bankuan bertan, gero kotxean sartuko du berriz ere. Ume trankila, batere ez negartia, erregularra eta gauetan lo egiten utziko duena: amestutakoa.

Ze potxoloa...

Haurrak gustatzen zaizkizu?

Maddik eta biok bizpahiru eduki nahi genituen. Hori esaten genuen maiz.

Horrelako bat izateak ederra izan behar du, egiatan. Fardela kentzea eta bularra emateaz aparte, amak ez du besterik egin behar. Katalogoko umea dirudi.

Nire amak beti esaten nuen horrelakoa nintzela ni.

Genetikoa izango da orduan.

Zer?

Ezer ez, segi, segi begiratzen...

– Eta non dago Jose, Amaia?

Umearen amak harro erantzungo dio:

– Bestearekin joan da futbolera. Ikastolako taldean hasi da eta zaletu egin zaigu. Josek zelaira eraman du: Realeko bazkideak dira eta Donostiaraino joaten dira partidu egunetan. Ez pentsa etxean geratuko direnik astegun buruzuria delako! Kopa dute, eta kopa ez bada, telebistako partidua, eta hori ez bada, kontsolarekin... ene! Ez dakit zenbat jokalariren izenak dakizkien buruz.

– Gure etxean bazkaltzeko orduan katez kate ibiltzen gara kirol berri guztiak ikusten; kokoteraino nago! Zortea duzu zureak oraindik txikiak direlako; baina gero, koskortzen direnean, ez dute beste gauzarik ahotan.

–Zenbat eta zaharrago –esango dio hirugarren batek–, orduan eta txarrago. Nireak hamaika eta hamahiru urteko kategoriatan daude eta astebururo eraman behar izaten ditugu: entrenamenduak, lohitutako arropa garbitu, botak... Esklabo bihurtzen zaitu!

– Amaia oraindik umea koskortzea inporta ez zaion momentu horretan dago.

– Bai, eta gero bizitza osoa ematen duzu txikiak berriz ere izatea desiratzen. Baina ze polita, Amaia, benetan, ze zortea izan duzun: ez du zirkinik ere egiten, zeinen ume ona! Ze izen du?

– Aingeru jarri behar izan zenion, hala ematen du! –emakumeak laztantxo bat egingo dio haurtxoari.

– Aitak hautatu zuen izena.

– Hurrengoan orduan zuri tokatuko zaizu. Auskalo, agian hirugarrena neskatoa etorriko zaizue.

– Niri berdin zait. Josek bi mutil nahi zituen: bi panpinatxo futbolariz mozorrotzeko.

– Ene... gizonak.

Hitz eta pitz jarraituko dute solasean; eguraldi epelak lagunduko die.

Badator ilunabarra, farolak piztu egingo dira eta, momentu batean, gauaren iriste lotsatia argituko dute. Parkeko bazter batetik aita bat eta semea etorriko dira, elkarrizketa bizian. Sei urteko haurra: argala, ile horia. Eta aitak berrogei, gehiago dirudien arren: lokietan ile falta nabaria, gizen samarra, sabel eta kokospe mamitsuarekin.

Txefe da!

Ziur zaude?

Egongo ez naiz, ba! Txefe da... baina... zahartuta!

Bingo. Eta umea bere seme nagusia da. Zeure iloba izan zitekeen baina... zer esango dizut ba: ez zarete bateragarriak. Hau da, zeu bazara, bera ez da izango; eta bera da zu ez zarelako.

Ez dizut ezer ulertu.

Geroago adieraziko dizut, orain entzun:

Amaia txikitxoarekin dagoen lekura abiatuko dira. Agurrean agerian geratuko da maitasuna. Gero Txefek diosala egingo die beste emakumeei.

– Ze, Hodei, ez al diguzu kontatuko nola joan den partidua?

Umeak zalantzakor begiratuko dio aitatxori; honek buruarekin baietz erantzungo dio, irribarretsu. Umeak jaka irekiko du eta Realeko kamiseta txuri-urdina erakutsiko die denei.

– Begira, ama, zer erosi didan aitatxok! Aurtengoa da!

– Ze polita, pittin.

– Eta, nork irabazi du?

– Gaur zorte txarra izan dugu, ezta, maitea? Konta egiezu.

– Alavesen kontra galdu dugu: bi eta bat.

– Ez da posible –ama batek besteei keinu egingo die–. Real zalea al zara ba? Benetan?

– Bai.

– Oso gaizki: Alaves zalea izan behar zenuke. Alaves da zure hiriko taldea.

– Bai, Alaves... oso txarrak dira-eta! Real zalea naiz, aitatxo bezala.

– Ez dira hain txarrak izango gaur Realekoei irabazi badiete, ezta?

– Zorte pixka bat izan dute. Baietz? Segi kontatzen, maitea –eskatu dio berriro Txefek.

– Bihar barre egingo didate ikastolan –semeak, atsekabeturik.

– Aizu, Hodei, txoritxo batek esan digu futbolean hasia zarela. Laster ikusiko zaitugu futbol zelai barruan zu ere.

Hodei gorritu egingo da.

– Aurrelaria naiz. Gol pilo bat sartzen dut. Joan den igandean hiru sartu nituen!

– Eta zelako golak! –Txefek.

Txeferen semeak Hodei izena du, gure anaiak bezala...

Normala da zure seme-alabei maite duzun norbaiten izena ipintzea.

Bai, bai.

Emaztearekin eta bere lagunekin eseriko da eta, solasean ariko direnez pixka bat gehiago, Hodei gainontzeko umeei bere kamiseta berria erakustera joango da bien bitartean. Plaza txiki bat izango da futbol zelaia, ateak bi banku. Zurrunbiloan ibiliko dira korrika, builaka, pilotari ostikoka. Erabat ilundutakoan deitu egingo diete amek eta izerditan itzuliko dira, gorri-gorri, mendeko partida garrantzitsuena jokatu berri balute bezala.

– Hodei, zatoz hona ondo janztera. Itxi jaka, gaixotuko zara bestela.

– Gol asko sartu duzu?

– Irabazi egin dugu.

– Gezurtero! –beste haur batek–. Guk irabazi dugu!

– Tranpekin!

– Tira, aski da. Garrantzitsuena parte hartzea da, ez irabaztea.

Oraindik ulertuko ez dituzten kontzeptuak; umeen munduan beti da biharamuna.

Famili taldea banandu egingo da, udaberriko egun zoragarri bateko arratseko bederatzietan.

Ohartu zara: Txefek zorte ikaragarria izan zuen zure heriotzarekin.

Nire heriotzarekin? Zer ba?

Nire hilketaren lekuko bakarra izan zinen; beraz, zeu ere hilda, akabo afera. Ez zuten inoiz forropolarra aurkitu; nire gurasoak sutan jarri eta abokatuetan xahutu dirutza arren, libre eta kargurik gabe. Horrelakoa da justizia.

Kargurik gabe?

Bi potro erakutsi zituen Madrilen. Ez zien deus ere aitortu, ez zen kareorik izan, ez zuten ezertan harrapatzeko modurik izan.

Orduan... ez da kartzelan egon?

Bai, jakina! Ez duzu, ba, zuen ama autobusean ikusi? Afera hauetan ohi denez, hiru bat urte egon zen preso, epaiketa egin bitartean. Gero kalera. Hori bai: zigortu ez bazuten ere, hanka egin zuen Donostiatik, denek baitzekiten zer egin zuen. Lana galduta, beste ezer lortzeko aukera hutsaren hurrengoa zen. Gaitz erdi: epaiketa hasi aurretik Gasteizko espetxera hurbildu zutenean ezagutu zuen Amaia, presoak laguntzen dituen GKE horietako batean ari zena.

Eta Gasteizen geratu zen?

Emaztea du, bi seme, bizimodu normal bat. Nork esango luke morroi horrek garbitu ninduela bere lagunekin? Bizitzaren latza!

Baina segi begiratzen, segi, zein zoriontsu doazen, beren arazo arruntekin. Eta gu hemen!

Nazkatuta, deiadar egin dio:

– Hitz egingo duk, bai ala ez?

Danbateko zakarra emanez irten da beste kide batekin. Hirugarrena geratu da Txeferen aldamenean.

– Kontatu egiok, motel, eta berehala bukatuko duk infernu hau –xuxurlatuko dio–. Bestela... garbitu egingo hau. Pitzatuta zagok. Erantzun egiok aditu nahi duena.

– Baina... –ez du beste ezer esateko indarrik.

– Hobe duk kolaboratzea, benetan. Hemen jartzen duena besterik ez duk ikasi behar, sinatu eta listo. Dena bukatuko duk: galdeketa, inkomunikazioa eta kolpeak. Epailearenera eramango haugu, sinetsi egidak.

Txefe eraitsita dago.

Atea zabaldu da. Nagusia dator amorru bizian.

– Oraindik ez duk kantatzen hasi? Oraindik ez? Hireak egin dik, putaseme hori! Akabatuko haut! Utzidazue, akabatu egingo dut-eta!

Txeferen gainean salto egingo du, kolpearekin lurrera bota ere. Bere onetik aterata, pistolaren muturra sartu dio ahoan, hortz zati bat apurtuz.

– Kantatzen hasiko haiz? Esadak baietz! Hasi hizketan edo tiro bat sartuko diat burmuinean, kabroia! Astiro zenbatuko diat: bat, bi... eta HIRU!

Klik. Sakatu du.

Txefe oihuka lehertu da. Negarrez ondoren. Poliziak, irribarrez eta mespretxuz begiratu dio lurrean botatako gatibuari.

– Orain hitz egiteko prest, ezta?

Ostiko bortitza jo dio bizkarrean.

– Lasai, ostia, txikitu egingo duk-eta. Geldi hadi behingoz! –baretzen saiatu da polizia zintzoa.

Gaiztoak kanoia sartu dio berriro ahoan.

– Entzun nahi dudana esango didak? Bai edo ez?

Txeferen goragalea.

– Ez diat ezer ulertzen! Argiago hitz egin ezak –oraindik barrurago pistola–. Zenbat bala kendu ditiat? Hik ba ote dakik? Neu ez bainaiz gogoratzen. Memoria oso eskasa diat. Hurrengoan tiroa joango zaik. Badakik ez zaizkidala hi bezalako gudari maritxuak gustatzen. Hitz egingo duk?

Beste ostiko bat, saihetsetan.

– Bala hau ni baino beroago zagok hire burua zulatzeko. Ihesean izan dela besterik ez diagu esan beharko: arazorik ez!

Txefe lurretik altxatu dutenerako hiperbentilatzen ari da. Benda mugituta dauka, begi bat erakutsiz. Begi-ninia zabalik, eguzki beltz bat.

Dena ederto zihoan, bizitza osoa aurrean: ilusioak eta proiektuak. Perfektua zen: neska-lagun aparta, unibertsitatean primeran, etxean askatasuna, diru pixka bat ematen zidan tabernak... Zer gehiago behar nuen? Ezer ez: goian nengoen eta gorantz jarraitu nahi nuen, gora eta gora beti, gorenera; merezi nuen. Ba al dakizu zenbat ikasi behar izan nuen haraino iristeko? Eta Deustun nengoen! Enpresa Deustun ikasiz gero, ziurtatuta dituzu dirua eta bizimodua. Makila magikoa erabiltzen irakasten dizute, euroen iturriak non dauden aurkitzen. Lau urte eta etxebizitza erosteko moduan izango ginen, agian ezkontzeko ere bai. Badakit beharbada azkarregi nindoala, baina sekulako harremana geneukan.

Baina Txeferen astakeriak kolokan jarri zuen bikote oreka.

Txefek burua galdu izan ez balu... orduan...

Orduan beste aitzakiaren bat asmatuko zuen Maddik, zugandik ahalik eta lasterren ospa egiteko. Ezin duzu hain geldoa izan: maila ziztrineko gurasoak, lerdo erradikala anaia bat eta bestea Sputnik potro

handia. Ez dira konpainia atseginena printzesa batentzat.

Aski da izen txoro horiekin! Dei iezaiozu Hodei eta utzi iraintzeari behingoagatik!

Beeeno, autista.

Autista ere ez! Hodei du izena.

Miraria! Kostatu zaizu gero! Badaramat ez dakit zenbat denbora denetarik deitzen eta azkenean erreakzionatu duzu. Bihotza bigundu egin zaigu ala? Aldatzen ari gara?

Errespetua merezi du.

Errespetua, noski; buruz dakit erretolika puta hori. Baina ez da hain erraza, ezta hain polita ere.

Gorrotoa diguzu.

Eta zuk ez duzu Txefe gorroto?

Honezkero denak berdin dit.

Eta berak gorroto zaituela uste duzu?

Bai, ezta? Baietz esango nuke... Ze ostia: erabat ziur nago.

Ba ez pentsa. Badirudi zu baino askoz ere sentiberagoa zela bera.

Zer ziri klase sartu nahi didazu orain?

Amari ematen zion soldataren parte bat.

Hori badakit. Gure amak ez zion inoiz hartzen.

Zu unibertsitatean hasi zinen arte ez zion hartzen. Edo zure ekarpen zimelarekin nahikoa zela uste zenuen ala? Txefek bere anaia esker txarrekoaren alde inbertitzen zuen hilero garagardotan xahutu ordez.

Ez nekien ezer...

Garaia da ba esnatzen hasteko, Loti Ederra! Begira: Txefe familiarekin etxera itzultzen. *Bere* familiarekin: haurtxoa eskutik helduta, emaztearen sorbaldan besoa. Amultsu doaz, solasean, egunean gertatutakoari errepasoa egiten:

– Nola portatu da gure Jontxu gaur?

– Jan eta lo, ez du besterik egin.

Ez, ez nengoen lo. Edo, behintzat, ez betiko moduan. Gau hartan denetik hartu nuen. Drogek eta alkoholak eldarniotan murgildu ninduten. Dena irreala zen... bukaeraraino.

– Aitortuko duk orduan?

Horrela harrapatu ninduen, etzanda eta begiak irekita, joanda bezala.

– Dena kontatuko diguk, betiko izorratuta geratu nahi ez baduk! Hitz egingo duk, bai ala ez?

Etxera sartzean konturatu nintzen aitak egongelan jarraitzen zuela, bere besaulkian, telebista itzaliari begira. Zotinak entzun nizkion. Gure aita negarrez.

Oso gogorra. Ez nion ezer esan, ez nintzen ausartzen. Txefe eraman zutenetik ez genion elkarri hitzik egiten.

Polizia gelatik irten da beste kide batekin, danbateko zakarra emanez. Hirugarren bat geratu da Txeferen aldamenean.

– Kontatu egiok, motel.

Ohean bueltaka, loak hartu ezinik. Azkenean erdi jota geratu nintzela suposatzen dut. Horregatik ez nuen sartzen entzun.

– Eta berehala bukatuko duk infernu hau –xuxurlatu dio–. Bestela... garbitu egingo hau. Pitzatuta zagok. Erantzun egiok aditu nahi duena.

Nork pentsa zezakeen nire gelara etorriko zela? Ez nuen erreakzionatzeko astirik izan. Eta horrela akabatu ninduen... begiak irekita.

– Baina... –Txefek ez du beste ezer esateko indarrik.

– Hobe duk kolaboratzea, benetan. Hemen jartzen duena besterik ez duk ikasi behar, sinatu eta listo. Dena bukatuko duk: galdeketa, inkomunikazioa eta kolpeak. Epailarenera eramango haugu, sinetsi egidak.

Anaiak anaia mendekatu zuen anaia salatzeagatik.

Klik, sakatu du. Txefe oihuka lehertu da. Negarrez ondoren. Poliziak, irribarrez eta mespretxuz begiratu dio lurrean botatako gatibuari. Eta jarraian ostiko bortitza bizkarrean.

Azkeneko sentsazioa besterik ez zait geratu. Edo, hobe esanda, azken momentuan nuen sentsazio hura: estura, egonezina, antsietatea. Gau hartakoa. Txefe kartzelan, Hodei uluka hormei kopetarekin kolpeka, ama negarrez, aita mutu telebista beltzaren aurrean.

– Ez da kantuan hasiko? Konforme. Orain ni izango nauk hi kantatzen hasterik nahi ez duena. Geroxeago heuk eskatuko didak, belauniko jarrita eskatuko didak. –Eta polizia zintzoari aginduko dio–: Poltsa berriz ere... bukaeraraino. Potrotaraino nagok. Eta etsitzen ez badik, *istripu* bat izan dela esango diagu eta kito.

Denok geneukan geure drama, denon drama. Baina nik bizitzen jarraitu nahi nuen; horretan saiatzen zen bakarra nintzen. Bizitza bakar bat besterik ez dugu. Eta aldi berean neure burua gorrotatzen nuen hargatik. Zer egin behar nuen: gelan giltzapetu eta denbora eskapatzen ikusi? Nik ez nuen ezer egin. Are gehiago: egin behar zena egina nuen. Ez nintzen inoren hiltzailea. Zergatik ordaindu behar nuen nik?

Plastikozko poltsa jarriko diote, lepoan itxita. Ito-tzen hasiko da, zangoei eragingo die desesperoan, ar-nasa azkarregi hartu nahian. Alferrik: poltsa azalera itsatsiko zaio, ahoan sartuko zaio, sudurreko zuloetan, begietan. Tope.

Ur azpian zaude, airera ateratzeko zangoak eta besoak astintzen, borrokatzen; baina airea bukatzen ari zaizu eta itsas azala urruti da oraindik; ez duzu oxi-genorik.

Nola liteke horrelako zerbait poliki-poliki ahaztea? Ezinezkoa da. Espetxerako bisitak eta bisabisak, gela hutsa, epaiketa, abokatu gastuak. Ez, betiko geratuko zitzaigun kontua izango zen; leporaino sartuta geun-den kaka-putzu horretan, Txefek libratua zuen simaur-mendi horretan.

Bularra hanpatuko duen arren, biriketan ez da ai-rerik sartuko. Zurrunga larria entzungo da arnasa har-tzeko ahaleginarekin batera.

Eta gau hartan esturak ito ninduen. Hori da gera-tu zaidana: Kainen sentipen bitxia, anaia hil egin iza-nagatik pagatu beharra, betiko pagatu ere, kontzien-tziaren etengabeko ausikitzea nahikoa ez balitz beza-la.

Kondoi baten antzera moldatuko da plastikozko poltsa larruazalera, hertsiki, aireari sartzea ukatuz. Muskuluak tenkatuko dira oxigeno bila. Biriken bukaeran tapa itxi bat blokeatuta dagoela sentituko du. Ez da airerik sartzen, ez da airerik geratzen. Zorabiatzen hasiko da, ubeltzen. Dardara egingo du, hankei eragin, indarrak eskapatzeraino mugitu. Espasmoak dira keinu guztiak.

Kolpe batez kenduko diote poltsa. Lehenengo arnasa hartzeak orro bat dirudi. Belauniko geratuko da, bekokia lurrean. Leher eginda, izerditan blai. Ze erraz suntsitzen den gorputza.

Bi poliziaren artean altxatu eta aulkian eserariziko dute. Polizia gaiztoa ondoan makurtuko zaio. Txalo batzuk emango dizkio masailean, begiak ireki ditzan.

– Ea, putaseme hori: zerbait errazarekin hasiko gaituk, abiada hartzeko. Nola duk izena?

Maitea. Hodei. Sientahijo Callahijo. Errota haizeorratza eulia. Azalorea geldoa baboa ergela leloa txepela mozoloa. Anormala. Autista.

Izenak. Zati bat besterik ez: nola hartu dena? Izenak Amatxo: lixiba usaina bigarren azazkala hautsita sabela tolestua amantala koadroduna kafe orbana goiko erdiko hagina borobil zuria blusa gorria gona

oihal berdea goiko ezpain gainean hiru ile motz zuzen masailean koipezko grano ahotsak maite-maite.

Gaur. Atzo ezberdina: ulertzen ez aldaketak mintzen nauela? Orratzak: gona urdina orratza, blusa berdea orratza, detergente usaina orratza, orrazkeraren ile bakoitza orratza. Sartzen zaizkit buruan bat bi hiru lau bost sei zazpi zortzi bederatzi hamar hamaika ai-ai. Oihu egiten dut, hankei eragin besoei buruaren kolpea paretaren kontra klonk-klonk mina minaz baretzeko burua irekitzeko mina ateratzeko mina kolpea buruan paretan klonk mina-mina barruan.

Barruan: isila, zuria, lasaia.

Izenak: Amadeo amatxo Txefe Litajuliana Andereñomara Aitana Iker Mikel Ainara Peru Libe. Izenak gustuko ez. Izena gaur, izena bihar ezberdina mina klonk. Izena bera baina aldatzen: Ainarak begizta zuri bizia ilean bi bueltekin ezkerreko begizta-begia eskuinekoa handiagoa buztan motz buztan luze belarriraino hiru hari fin bukaeran. Ainarak begizta berde arbola ilean buelta batekin ezkerreko begizta-begia eskuinekoa handiagoa buztan motz bat buztan motz bat orban ilun txiki batekin.

Tiratu nion begiztatik eta ura bota zuen eta Andereñomarak oihu bekainak altxatuz ahoa irekitzean

goiko zortzi haginak erdiko bi bananduta eskuineko eskuaren bigarren hatzekin seinalatuz azazkala luzea gorria bukaeran ez eskumuturra heldu zidan hatz potoloa bigarrenaren gainean azalean koadrotxoak zulo txiki bana erdian.

Izen gehiegi kanpoan. Kanpoan behar. Kanpoan ezin. Kanpoan mantso mugitu, hitzak jaurtiki, ikusi-ikusi, soka, alkandora hertsagarri, estura, mina. Kanpoan ez.

Barruan nirea da. Nirea naiz. Barruan lortzen dut, begiratzen, ukitzen, gozatzen, jasotzen, salto, hegan. Hitzak flotatzen ditut. Neureganatu: dena neuretzat. Barruan ni neu. Neurea.

Lehen: Txefe. Esertzeko ematen zidan eskua azala zulotxoak ile beltz bana fin ezkerretara bat eskuinera lerro urdin-berdeak hatz-koxkor gorrituak marratxoak hatz potolo indartsu zimurrak borobil erdi arrosa argia azazkala arrosa beltza beltza eser zaitez ondoko gelaren tik-tak tik-tak Amadeoren urratsak pasilloan Jonen klik-klak eskuko pantailan amatxok plin-plan sukaldean platerak frst janaria aulkia Hodei urratsak plin-klak-tik arnas-hotsak mina buruarekin paretan klonk mina klonk barruan.

Txefe ni da. Txefe da gara gure. Txefek kutxa grisari kolorea ematen dio eta gizontxo txuri-urdinak belar berdea puntu zuria korrika hasi zarata oe-oe txilibitu ezetz aupa-aupa txalo-txalo. Aupa-aupa txalo-txalo. Eman jo bai-bai penalti aurrera bota aurreramutilakaurreragipuzkoa kontuz falta-falta aurreratxuriurdinak putakumea ai ama gaztegaztegaztegaztegaztedi baietz aupa-aupa bai-bai. Hitzak soinuetan uzten ditu. Nik txalo-txalo beti. Txalo-txalo barruan, txalo-txalo kanpoan. Hor ere bai. Eta aurpegia tolesten du, besarkatu. Txefe da gara gure. Zen.

Borobila. Izen borobila oihukatzen zuenean begiak mehetu zimurrak ezpainak luzatzen haginak erakutsi oihu eta heltzen zidan eta airera botatzen ni eta hegan egiten nuen. Hegan.

Hegan egitea gustuko bai.

Izen borobila automobila bila. Opila. O. Ohola. Farola hola bola. Gola. Izen borobila oihukatzen bai eta besarkatzen ninduen zen gara gure golagola aurreramutilak tsss ur beltza ekartzen zidan. Kola.

Tsss ur beltza gustuko bai.

Amadeok ematen zion kolorea kutxa grisari gizontxo txuri-urdinak belar berdea puntu zuria txilibitu zarata. Baina Amadeok besaulkian tranquilohijo aurpegi

luzatuta. Amadeo ez zen gara gure izen borobila oihukatzen nuen callahijo begiak mehetu ez zimurrak ez ezpainak luzatzen ez hegan ez tsss ur beltzik ez.

Amadeo aurpegi luzatuta. Ez zidan Maitea Hodei esaten. Hijohitzak besterik ez: callahijo venhijo sientahijo. Parahijo. Amatxok maitea hitzak xuxurlatzen zizkidan: torimaitea horrelamaitea ondoloinmaitea maitezaitutmaitea. Beroa gorputzean zidan: amatxo zen gara gure.

Amatxoren izenak gustuko bai.

Eta amatxok tortilla egiten zidan jan. Bainugelan ura plisti-plasti laino beroa plisti-plasta nahi adina amatxok irri ni plisti-plasta laino beroa. Askotan besarkatzen muxu-muxu txiki pila laztandu kili-kili maite-maite nondagomundukoederrena irrintzi bat muxu-muxu txiki pila. Gauetan oheko tapakia igotzen ahoraino. Amatxok. Begiak mehe ezpain luzatuta esaten zuen berak bezala gustatzen zaidala ohean egotea: burua ondo estalita. Eta orduan maitehitzak arnasten zituen. Muxu-muxu kili-kili ondoloeginmaitea laztanak buruan zerbaitpolitamestumaitea muxu-muxu biharartemaitea. Amatxo Txefe ziren gara gure.

Negarrez amatxo. Estuago besarkatu, kulunkatu, hitz txiki asko murmurikatu. Aurpegia luzatuta. Negarrez.

Orduan neu ere aurpegi luzatuta. Hotza gorputzean. Mugitu nahi ez. Geldi-geldi egotea gustuko ez. Amatxo negarrez ez zen gara gure. Isilik.

Mugitzea gustuko bai. Korrika salto hegan algara lasterka buelta jira bira arin azkar bizkor aurrera. Pozik txalo-txalo egiten nuen. Txalo-txalo gustuko arin-arin korrika azkar-azkar saltoka bai. Parkea.

Parkean neskatxo bat zegoen zerua begietan. Zeru begiak gustuko bai. Beti politak ziren, euria edo zeru polita egonda. Beti zerua begietan aldatu ez. Bero gorputzean ikusteak.

Berarengana arin-arin korrika arrapaladan txalo-txalo. Bera ere hasten zen lasterka azkar-azkar oihuka ai-ai-ai amamama. Amatxok keinuak eta oihu eta oihu betigauzabera gelditzeko beldurtuduzu gaizto-gaizto. Neskatxoak korrika ez arin-arin.

Handiegiazara ez zidan uzten parkeko umeekin korrika. Amatxok. Umeek kutxa grisaren gizontxoak korrika puntuzuria: bota-bota. Hitz borobila oihukatzen zuten arin-arin lasterka denak batera. Sartu nintzen azkar-azkar bota-bota harrapatu eta korrika arra-

paladan txalo-txalo bota-bota hartu aurrera-aurrera amamama gurepilotagurepilota. Amatxok emaiezupilotamaitea bota-bota kendu aurpegi luzatuta klonk buruan klonk barruan.

Barruan Txefe ez. Gizontxorik ez, hitz borobilik, korrika arrapaladan txalo-txalo. Parkerik. Amatxo. Ez gara gara gure. Inor ez da gara gure.

Gizon bat pasilloan etorri urdin iluna neguko txamarren oihala burdin astun beltz luzea eskuetan botak hamasei botoi fila korrika eskularruak buru-estalkia bi gizon lau sei zortzi hamar danba oihu amatxoren hortz-karraska lurreko egur xaflak kraska urratsak klik oihuak ai-ai fris-fris oihala urratsak.

Ilea sudur azpian marroia zuria marroia marroia ezpainaren gainean albo batean harrotuta gizon bat heldu zen. Amatxorekin hitz. Amatxo negarrez ene-ene. Txefe ekarri zuten gaizto-gaizto lotuta mugi ezinik alkandora hertsagarri nola besoak bizkarrean. Txefek burua altxatzen ez. Negarrez, aurpegia luzatuta.

Jon etorri zen gizon sudur azpian ileari hitz. Hitz, begiak mehetu, zaplada lepoan, Jonek hitz. Txefek oihu Joni begiak gorrituta ahoa zabalik lepoko zainak lodi sorbaldak handituta indartsu Joni. Urdin ilunak es-

tutu besoa igo zion Txefek ai-ai mina. Txefek mina nik mina. Mina. Txalo-txalo gaizto-gaizto buruan egin nion kolpe urdin ilunari txalo-txalo sorbaldan kolpe klonk kenduidazuesubnormalagainetik kolpe klonk aurpegian atzaparkatu Txefe altxatu ostiko aiaiai kabenzotz hotsak kabroiputasemea fris-fris danba kronk kronk amatxo negarrez oihuak kolpeak eutsiozuostia Jonek hartu ninduen Txefek mina nik buruan paretan mina klonk barruan.

Txefe ez eta hotza gorputzean. Negar, mugitu nahi ez, eseri besterik ez, eseri atzera eta aurrera kulunka, Txefe ez.

Amadeo negarrez. Ni negarrez. Amatxok buruan laztandu eramandutemaitea besarkatu, malkoa kendu nion eskuarekin sentitzendutmaitea. Aurpegi luzatuta nengoen barruan.

Kutxa griseko gizontxoak ikusi eta aurpegi luzatuta jartzen nintzen. Txefe ez, gustuko ez. Ez nuen korrika egiten. Ez nuen hegan egin nahi. Geldi-geldi. Ezer gustuko ez. Lehen zena ez zen. Aldatzea gustuko ez: negar, negar, negar. Amatxok burua laztandu hilabeteanegarrezmaitea besarkatu kulunkatu mina barruan mina barruan.

Odola. Ur lodia. Odola gustuko ez. Joni odola gorputzean hotza aurpegi luzatuta. Esnatu etorri gauean deitu zidan oihu. Jon etorri zen esnatzera. Mutil bat etorri zen esnatzera. Jonek hotza gorputzean, joateko bere gelara odola ziri-ziri begiratzeko. Jonek hitz eta Jongeldigeldi gora begira. Izen bat, bi Jon. Jongeldigeldi odola eskumuturrean odola eskuan hatzetan ziri-ziri lurrean tantaka tantan. Mugitu ez. Hotza gorputzean. Negar egin nuen.

Jonek esaten odola begiratzeko eta plisti-plasta odol gorria lodia ziri-ziri eta mutilak begiratzeko Jongeldigeldirik ahoz gora aurpegi luzatuta, zurbil hotza gorputzean. Odola lurrean putzua, labana putzuan Jongeldigeldiren esku irekian bigarren hatzaren punta ukitzen. Labana hartu nion.

Txefegeldigeldi, urdin iluneko gizonek eraman. Jongeldigeldi, aurpegia tolestuta, begiak irekita, tantaka.

Labana nire eskuan. Jonek, ziztatzeko. Mutilak, ziztatzeko. Ziztatu eta Jongeldigeldi esnatu ez eta ziztatu. Odola zerion plisti-plasta putzua, odola bularraldean ziri-ziri. Ni odoletan. Txaf-txaf ziztatu. Amatxok sukaldean txaf-txaf, nik Jongeldigeldiren bularraldean ziztatu txaf-txaf. Begiak irekita, geldi-geldi. Txa-ftxaf.

Amatxok aiene. Amatxok negar nik negar mina klonk mina klonk-klonk-klonk barruan.

Oihu, gorputzean hotza, mugitzea gustuko ez. Negar, oihu, garrasi besterik ez nuen nahi. Mina gorputzean, klonk-klonk-klonk barruan ez klonk. Amatxok lasaitumaitea nik gaizto-gaizto oihu negar. Amadeok negar amatxok negar noizarteegingodunegar ene zereginduguguaizki amatxo ez zen gara gure nik kolpeak amatxori kolpeak Amadeori klonk buruan klonk buruan klonk-klonk barruan. Gorputzean hotza, amatxo ikusi kolpatu nahi, oihu-oihu klonk-klonk barruan.

Bainugelan ur beroa baineran sartzeko amatxok laztandu lurrina lasaitumaitea. Plisti-plasta nahi ez, amatxok ura buruan laztandu zuretzatonenamaitea. Labanatxoa ekarri dardarka malkoak ezsufritugehiagomaitea. Eskumuturra hartu zidan labanatxoarekin ai-ai zidan zerbaitpolitamestu laztandu maite-maite muxu txiki pila malkoak altxatu eta komunetik joan zen atea itxi likido gorria zurrustaka zerion bainuontzian tantan plisti-plasta amatxoren negarrak ate atzean tantan plisti-plasta minik ez oihu nahi ez lasai nekea garrasi egiteari utzi nion soinuak leundu barea grisa ilundu iraungi isilik.

Barruan. Barruan lehen da. Barruan aldatu ez. Barruan zeru urdina. Barruan Txefek kutxa grisari kolorea eman hitz borobila oihukatu batera txalo-txalo aupa-aupa tsss ur beltz gehiago eta amatxo Txefe dira gara gure barruan eta amatxok bainu beroa plisti-plasta gauean burua ondo estali muxu-muxu kili-kili ondoloeginmaitea laztanak buruan zerbaitpolitamestu biharartemaitea begiak mehetu urdin ilun gizonik ez odolik ez bi Jon ez Jongeldigeldi hotza gorputzean ez amatxok aiene odol putzuan plisti-plasta ikusi ez dardarka eskua ahora eraman eta barruan amatxok ez du negar egiten.

Barruan bainugelarik ez, odolik ez, minik ez.

Barruan ni hotza gorputzean ez.

Barruan lehen da. Ni naiz gara gure.

Barruan.

Eskerrik asko: Piedad Landaburu, Luigi Anselmi, Felix Arrieta, Nora Arriola, Pepe Avendaño, Theresia Berger, Mercedes Castro, Miren Ceberio, Javier Cerro, Isidro Elgezabal, Eli Epelde, Maria Epelde, Izaskun Etxeberria, Inma Gomez, Karmele Igartua, Tere Irastortza, Gorka Idirin, Jose Luis Larrañaga, Maider Legorburu, Inaxio Lopez de Arana, Ainara Maia, Ugaitz Markinez, Ion Muñoa, Natalie Oberhollenzer, Maider Paskual, Wolfgang Pratl, Fernando Rojo, Pablo «SuperLobo», Lolita Vivanco, Iñaki Zubeldia eta, bereziki, Edorta Jimenez.